innobasque
berrikuntzaren euskal agentzia
agencia vasca de la innovación

# 1. txostena 2012



CONNECTIVITY

Tecnaliaren diseinua

# "Innobasque exchange"

"Berriztatzeko era berriak, kolaboratzeko era berriak"



MOWAY

GLOBALINK

PANSANO

HBIO

XRAMP

AUÑAMENDI EUSKO ENTZIKLOPEDIA

LA RUTA DE LA EFICIENCIA

BIOSKOLA BBK

SPOTBROS

BRAND EVOLUTION SYSTEM



**10 bazkidek aurkeztu dituzte beren lankidetza-proiektuak Innobasque sarera**

*Zeure proiektua aurkeztu nahi baduzu, bidali posta bat hona: mruiz@innobasque.com*

# Aurkibidea

Editoriala 4-5

2 minututan 6-7

Seihilekoko protagonistak 8-12

## Berrikuntza-sistema 14-25

> Gobernu-organoak
> Berrikuntzako Euskal Sistemaren jarraipena eta ebaluazioa
> Berrikuntza politika publikoetan
> I+G+b Sistemaren nazioartekotzea

5 gako ... 26-27

## Dinamizazioa 28-45

> Ekonomia Ekoberritzailea Dinamika
> Gizarte Efiosasungarria eta Bizi Kalitatea Dinamika
> Enpresak Azeleratzea Dinamika
> Laugarren Sektorea Dinamika
> Berrikuntza-sareak

Hau partekatu nahi dut 40-41

## Sozializazioa 48-58

> Innobasqueren Astearteak
> Innoberri
> Openideiak
> First Lego League Euskadi: berrikuntza-eskola
> Diplomazia berritzailea
> Innocampus
> Bazkideak

Innobasque medioetan 59-61

Seihilekoko argitalpenak 62-65

Txosten honen azala **TECNALIA**k diseinatu du

# Hazkuntza eta enplegua...
# lokarriak askatzen

Innobasqueren bigarren zikloa hastera doa, eta bere aginte-organoak indartzearekin egiten du hori berrikuntzaren balioa sortze-kateko bost barrutiak ordezkatzen dituzten 16 pertsonaz osatutako Batzorde Eragile berri baten bitartez, hau da, zientzia, teknologia, enpresa, gizartea eta administrazioa. Batzorde Eragileari 3 funtzio nagusi esleitu zaizkio:

- Zuzendaritza Kontseiluen eta nazioarteko Kontseilu Aholku-emaileen proposamenak/proiektuak ebaluatu.
- Etorkizuna bistaratu, aurreratu, joera sozial, ekonomiko, zientifiko eta teknologikoak detektatuz eta haiek Berrikuntzako Euskal Sisteman duten eragina.
- Innobasque marka-balioak ordezkatu eta hedatu.

Ziklo berri horrek zaildu egin du Innobasquerentzat eskakizun-helburua, izan ere sakonera handiko ataza berri bati egiten dio aurre. Ekintzako tentsioari eusteaz, eta, ondorioz, Eraldaketa Sozio-ekonomikoko Dinamiken hedapena sakontzen jarraitzeaz gainera, funtzio berri bati ekiten dio, Berrikuntzako Euskal Sistema ebaluatzeari, Innobasque ZTiP 2015eko kokamenduaren ondorio bezala.

"Gehigarritasuna" deitutako erronkari erantzuna ematea besterik ez da helburua, berrikuntzako inbertsio publikoari gaitasunak eta inbertsio pribatua eranstea, eta horretarako inoiz baino beharrezkoagoa da berrikuntzako inbertsioen balio eraginkorra egiaztatzea.

Zergatik ekingo diogu eragina ebaluatzearen ahalegin garrantzitsuari? Helburua argi eta garbi produktiboa da, gure bazkideek eta euskal gizarteak emaitza hobeak lortzea beren berrikuntza-inbertsioetan. Eta ebaluazio horrek aukera eman diezaiola sistema guztiari eta handik kontzeptutik, ideiatik produktu/zerbitzu baten merkaturatzera doan zikloa murrizteko. Beti nahigarria litzatekeen hori, gaurko zirkunstantzietan presazkoa da, eta bereziki kritikoa Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako proiektuetarako, zeren eta aukera emango baitu lan-postuak, Balio Erantsi Gordina (BEG) eta bizitzarekiko asetasuna sortzen, Gainera sektore pribatuko berrikuntza-inbertsioak erakarri nahi badira, punturen batzuk argitu beharko dira hala nola:

- Nola ari dira laguntzen gure berrikuntza-inbertsioak gure lehiakortasuna mantentzen edo hobetzen?
- Jasotzen al dituzte gaurko neurketa-metodoek gure berrikuntza-enpresa guztietako, mota guztietako inbertsio errealak?
- Nola dakigu gehiago inbertitu behar



**Guillermo Ulacia**
Presidente de Innobasque

dugun zientzia edo teknologian, fabrikatzaileetan edo zerbitzu-enpresatan...?

Ondorioz, Innobasqueren jarduera derrigor bideratuko da galdera horiei erantzuna ematera, aldi berean, dagoeneko esan dugunez, dinamizatze sozioekonomikoaren aldeko geure apustuari eusten diogun bitartean. Zalantzarik gabe, Innobasqueko bazkideak sinetsirik gaude Berrikuntzak funtzionatu egiten duela, eta horregatik jarraituko dugu berritzen, zeren eta gakoa baita enpresen eta Euskal gizartearen arrakastarako. Baina haren intentsitateari eusteaz gainera, haren eraginkortasuna gehitu behar dugu. Nola egingo dugu Innobasquetik? Konexioak bultzatuz sareko lana indartzeko.

Zalantzarik gabe, ez da halabehar hutsa Txosten honetarako Tecnaliak eskuzabaltasunez diseinatu zuen azalean "konexioa" esamolde hori agertu izana. Hala ikusten du Tecnaliak Innobasque, eta erabat bat nator balioespen horrekin, zeren eta eragile berritzaileen arteko lokarriak eta lankidetza indartzeak lagundu egiten baitie ideiei loratzen, enpresa-ekimenei abian jartzen, zeinak baitira hainbeste behar dugun enplegua ekarri digutenak, enpresek behar dituzten giza ekipoak eta aukera berrien bitartez beren burua birsortzen lagunduko dieten berrikuntzak aurkitu ditzaten, eta enpresa gehiago hazi eta lehiakide izan daitezen merkatu globaletan.

Zeren eta egindako aurrerapenak gorabehera ez baita erraza gertatzen ideia gordinetik merkatuan bideragarriak diren enpresetara igarotzen. Zenbat ideia dira beharrezko arrakastako produktu batekin topo egiteko? Rosabeth Moss Kanter, Harvardeko irakasleak dio bere ikerkuntzek 3.000 ideiaren kopurua ematen dutela. Agian ahalegina txikiagoa izango da sareko lan-dinamika baten eta ikerkuntza eta teknologiak haiek inplementatzen dituzten enpresekin lortzen dituzten abiarazte baten bitartez. Bestela esateko. Berrikuntza Sistemako eragileen interesak lerrokatzea. Ildo horretatik Innobasquetik hona bideratutako proiektuak sustatuko dituzten ekimenak bultzatuko dira:

1. Dagoeneko merkatuan dauden enpresen bitartez ideiak sortu eta hedatzera.
2. Eteak eta negozio-ekimen berriak Enpresa handiekin konektatzera.
3. Hezkuntza Enpresen beharrekin lerrokatzera.
4. Sektore desberdinetako liderrak lerrokatzera estrategia partekatuak garatzeko.

EKonexio horiek, gainera, indartu egin daitezke balio-kate luzea erasango duen hedatze batean, zeinek eragina izango baitu ekintzaileengan, GKEetan, aktibista sozialengan, teknologia, ikerkuntza-zentroetan, unibertsitateetan, lanbide-heziketan, inkubategietan, inbertitzaileengan, finantzariengan, jardunean dauden profesional aktiboengan, etab. Konexio horiek, arestiko artikulu batean "Kapitalaz harago" existitzen den balio bezala definitu ditugu. Gaitasun horiek baliabide ekonomikoak bezain baliotsuak edo baliotsuagoak dira, izan ere, bestalde, gero eta urriagoak dira.

Nahiz eta batzuetan konexio-guneak kudeatzen zailak direla uste izaten den, begi-bistakoa da konexio-guneak efizientziak eta ondorio biderkatzaileak sortzeko gai ere badirela, indargune sistemiko iraunkorrak izateaz gainera, enplegua eta aberastasun integratzaileago bat sortzea sustatzen dutenak konponbideen eta hazkuntza duten enpresa berritzaileen bitartez. Horren mesede egiten die enpresa banakoei, baina bai eta ekonomiari eta gizarteari ere. Horretara goaz.

# 2 minututan



› Innobasqueko aginte-organoak **berritu dira.** Ezagutu itzazu estrategia gidatuko duten **Zuzendaritza Batzordeko** 16 liderrak

› Zifratan: **7.000** pertsona mobilizatu, **18** erronka berri **Openideiak**-en, **1.000** bertaratu ZTbP2015aren aurkezpenean, **1.575** inpaktu prentsan, **113** erakunde **Adimen Emozionaleko Partzuergoan.** **14.000** pertsona sare sozialetan

› **Europar World Café** bat 160 pertsonarekin berrikuntza soziala zahartze aktiboarekin konektatzeko. (Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Urtea)

› Berrikuntza irekia bultzatzen politika gakoetan: **400** erakunde **Immigrazioaren aldeko Itun sozialean eta Enpresa Lehiakortasunaren Planean**

› **32 profesionalek** ikasi dute **I+G+b-ko nazioarteko proiektuak** kudeatzen

› Euskadiren konkista teknologia garbietan. 2013an, **europar Cleantech Forumaren** egoitza

› Eraikuntzaren sektorea berrasmatzen: **1,3 M€ Eraikuntza Jasangarrirako** Euskadin





> Abian GOSASUNekin. 32 eragile bizimodu osasungarri baten aldeko mugimenduarekin

> Lehen sektorean ideiak landatzen. KATILU aurkeztu da

> LAUGARREN SEKTORE berria 21 erakunderekin jaio da

> "Enpresa ezin daiteke egon bakarturik gizarteko arazoetatik" Antonio Vivesek Laugarren Sektorearen Nazioarteko Mintegian

> Asteartetik Asteartera eta neu eskutik. Zerbitzu profesional aurreratuak, osasuna enpresan, laugarren sektorea, zahartzea eta partaidetza azkeneko 5 Innobasqueren Astearteetan

> Nola bihurtu titular berrikuntza. Innoberri eta i-Bazkide, bi Innobasqueren newsletter berriak

> Berrikuntza praktikatzen duten eskola-ikasleak: FLL Euskadiko 2 ekipo nazioarteko torneoetan

> Berrikuntza boladan dago: 39 erakunde berri Innobasqueren bazkide



# hiruhilekoko protagonistak

## IK4k esku hartzen du merkatuan proiekzioa duten 23 proiektu berritzaileetan

IK4 Aliantza Teknologikoko zentroek “Mondragon Open Innovation” esparruan hautatutako 39 proiektuetatik 23tan parte hartu dute.

Berrikuntza sustatzeko Eusko Jaurlaritzak bultzatutako proiektu pilotu honek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragile nagusien ekarpenak izan ditu, zeinen proposamenek epe laburrean negozio-aukerak sortzera bideratuak izan behar baitzuten, lankidetza-proiektuen bitartez gauzatzeko modukoak, Mondragon Korporazioko 200 kooperatiba baino gehiagotan.

Proiektuak lan-jardunaldi bat izan zuen martxoaren azkenetan Arrasaten eta bertan hautatu ziren aurkeztutako 153 ekarpenetatik merkatura iristeko ahalmen handiena zutenak, eta haietako gehienak osasuna, energia, garraioa eta mugikortasuna eta fabrikazio aurreratua sektoreetara bideratuak, izan ere horiek kontsideratu ditu IK4k estrategiko I+G+b-ko bere jarduera garatzeko datozen urteetan.

Iturria: **IK4** [2012ko martxoak 28]





## TECNALIAk bikoiztu egin ditu bere salmentak nazioarteko merkatuan bere ibilaldiko lehen urtean

Denboraldi honetan, Tecnalia Research & Innovation sendotu egin da ikerkuntza aplikatuko zentro pribatu erreferente bezala Europan. 1.500 pertsona langilerekin eta 116 milioiko diru-sarrerekin, datuek berretsi egin dute korporazioa eratzen duten zortzi erakundeek bat egitea egokia izan dela eta etorkizun bikaina izango duela.

Fakturazio osotik, %56 merkatu nazional eta nazioartekotik datozen diru-sarrerei dagokie eta gainerakoa, %44, ikerkuntza-proiektu estrategikoei neurri batean administrazio publikoek finantzatu dituztenei.

INGRID izeneko inbertsioa azpimarratzekoa da, Europako lehen instalazioak baitira hornidura-ondasun elektrikoen fabrikatzaile-sektorearen zerbitzurako sare adimendunen ikerkuntzan.

Iturria: **Tecnalia** [2012ko otsailak 16]

## Europak saritu egin du burmuinari buruzko euskal ikerkuntza

Europar Ikerkuntza Kontseiluak, Europako ikerkuntza finantzatzeko lehen erakundeak Manuel Carreiras, Basque Center on Cognition Brain and Language-ko (BCBL) zuzendariari ERC Advanced Grant beka bat eman dio, 2,5 milioi eurorekin hornitua "Bialfabetakuntza: lehen eta bigarren hizkuntzan irakurtzen ikasten" bere ikerkuntza burutu dezan. Nazioarteko aintzatespenaz gainera, beka horrek injekzio ekonomiko garrantzitsua esan nahi du BCBLren apustua indartzeko burmuina ikertzen mundu osoan zehar lehen postuan kokatu delako.

Aitortza hori lehena da ikertzaile batek jaso duena hizkuntzari ezarritako Neurozientzia Kognitiboaren eremuan Espainian eta hirugarrena Euskadin egoitza duen zientzialari batentzat edozein jakintzagaitan. Batzorde ebaluatzaileak baieztatu du bere txostenean "txunditurik" dagoela BCALen sortu duen "ikerkuntza-giro bikainarengatik".

Iturria: **NoticiasMedicas.es** [2012ko otsailak 17)]





## Eroskik Ingurumenaren Mundu Eguna ospatzen du $CO_2$ igorpena %12 murrizteko helburuarekin

Eroskik Ingurumenaren Mundu Eguna ospatzen du apustu erabakigarri bat eginez jasangarritasun-gaian garapen jasangarriaren aldeko politikekin, zeinek lagunduko baitute %12an murrizten $CO_2$ igorpena. Horretarako, langileen, hornitzaileen eta bezeroen lankidetza du.

Ildo horretatik, Eroski duela hiru urte europar banaketa-sektorean jasangarritasun-praktika hoberenak trukatzeko eta 2011tik kontsumo jasangarria lortzea bultzatzeko edo zailtzeko aukerak eta hesiak identifikatzeko asmoarekin sortu zen "European Retail Forumeko" bazkide bihurtu da.

Iturria: **Europa Press** [2012ko ekainak 5]

## Virtualrehab-ek baliozkotze-emaitza oso onak lortu ditu

VirtualRehab martxoaren hasieran aurkeztu zen EMLABS Zentroaren inaugurazioan Eugenia Epalza Esklerosi Anizkoitzaren Euskal Fundazioaren eskutik birgaitze birtualerako Europako lehen gune bezala. Lehen birgaitze-produktua da kinect teknologia, 3D inguruneak eta telebirgaitzea konbinatzen dituena. Harrezkero, zentro berri horretan azterlan bat burutu da produktua baliozkotzeko eta bertan esklerosi anizkoitzeko 20 pazientek parte hartu dute gaitasun motor desberdinak dituztenak.

Iturri: **Virtualware** [2012ko ekainak 7]



## Nazioartekotzea, unibertsitate-karreratan pisua hartzen ari den hautabide bat

2.000 euskal ikasle unibertsitariok baino gehiagok parte hartzen dute urtero Euskal 3 unibertsitateek UPV/EHU, Deustuk eta Mondragonek sustatutako nazioarteko mugikortasun-programetan. Atzerrian urtebete ikasteko edo praktikak kanpoko enpresetan egiteko eskarien ehunekoa nabarmen gehitu da, %25eraino kasu batzuetan, azken urteetan. Gero eta kontzientzia handiagoa dago nazioarteko prestakuntza-esperientzia bat jokaldi garrantzitsua dela lan-merkatuan lehiatzeko ordurako.

Erasmus bekak dira programa "izarra" eta haiek mobilizatzen dituzte ikasle gehien Europako unibertsitate desberdinetara. Baina bada gehiago ere, eta helmuga askoz urrunagokoekin, Estatu Batuetaraino iristen direnak, latinoamerikar herrialdeen orbita guztia, Asia, eta Afrika eta Australia ere bai. Titulazioz, ingeniaritzak dira ikasle gehien mugitzen dituztenak, eta ondoren datoz Enpresa Ikasketak eta Zuzenbidea.

Iturria: **Estrategia Empresarial** [2012ko otsailak 29]





## USAko industria-sindikatu handienak Mondragon eredua aldatu nahi du bere herrialdera

Gamesaren plantak Pennsylvanian instalatu eta gero, United Steelworkers (USW) sindikatuak, 1,2 milioi bazkiderekin Mondragon Kooperatibetara hurbildu zen 2009an. Harrezkero kontaktu-kanal bat izan da eta elkarrekin lan egin da (eta horretan Ohio Employee Ownership Center ere partaide izan da) eta kooperatiba-eredu bat sorrarazi du lanpostu jasangarriak garatzeko langilearen jabetza eta negoziazio kolektiboaren prozesuaren konbinazioa erabiltzen dituztenak.

Iturria: **Blog About Basque Country** [2012ko martxoak 28]

## Sener-ek %8,6 bat gehiago irabazi du 2011n eta %3 ugaldu du bere langileria

Sener, ingeniaritza eta teknologia taldea, 2011n 107,58 milioi euroko etekin garbia izan zuen eta horrek %8,6ko hazkuntza esan nahi du aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta hori %3 gehitzeaz gainera bere langileria (157 pertsona), urtea 5.251 pertsonarekin itxi zuelarik.

Fakturazioa %8,8 hazi zen joan den ekitaldian, 1.159,69 milioi euro batzeraino; aldiz, ustiapeneko etekin gordina (Ebitda) 145,66 milioitan kokatu zen, %19,7 gehiagoan.

Enpresak emaitza horiek "3b: Berrikuntza+Nazioartekotzea +Inbertsioa" deritzon estrategiari egozten dizkio.

Iturria: **ElEconomista.es** [2012ko uztailak 15]



## Hondakina baliabide bihurtzen denean

"Erabiltzen ez dena enplegu eta aurrezki bihurtu". Javier Mariño Koopera Sare Soziala kooperatibako Ingurumen Zerbitzuen zuzendariak bere jardueraren ardatz egituratzaile bihurtu den ekimenaren egitekoa definitzen du: Koopera Reusing Center, hiritarrek baztertutako gauzaki mota guztiak kudeatzen, berrerabiltzen eta birziklatzen Espainian aritzen den lehen planta automatizatua. Mungian (Bizkaia) kokatutako lantegiak 4.500 metro koadro ditu eta bertan jantzi, oinetako, jostailu, liburu edo aparatu elektronikoen bizitza baliagarria luzatzen da eta haiek gizartean eta lanean sartzea sustatzen da.

Iturria: **El País** [2012ko ekainak 6]





## Uri Zaharrak zabaldu egin du bere merkataritza-eskaintza

Hamabi hilabete doi-doi igaro dira eta 60 establezimendu berrik jaso dute pertsiana Bilboko Hiri Zaharrean; errealitate horrek arnasberritzea esan nahi du Bilboko June horretarako, izan ere merkataritza-gune oso desiratua bihurtu da. Urre-meategi bat, gero eta distiratsuagoa, eratzen duten establezimendu sorta ugariarengatik. Frutategiak, enotekak, arropa-denda berriak, oinetakotegiak, souvenir dendak, hestebete hautatuak, estetika, esku-lanak, ostalaritza, haurtzaintza eta, eraikuntza ere bai... Guztira, hirurogei. "Gauza da Hiri Zaharrean negozioak irekitzen direla; beste batzuk itxi egiten direla, bai, baina enpresaburuek hemen ezarri nahi dituzte beren negozioak. Zerbaitengatik izango da. Bada urtebete oso bat itxaroten egon denik.", azaltzen du Hiri Zaharreko Merkatarien Elkarteko kudeatzaileak, Jon Aldeiturriagak.

Iturri: **Deia** [2012ko ekainak 9]

## Fagor Etxetresna Elektrikoak, TRANSMODAL Saria 2012 Euskal Herriko Logistika Intermodaleko Ekimen Hoberenari

Fagor Etxetresna Elektrikoak aitortu egin dute TRANSMODAL Saria 2012 Euskal Herriko Logistika Intermodaleko Ekimen Hoberenari Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak eta Bilboko Portu Agintaritzak ematen dutenaz. Sari hori ematea profesionalentzako TRANSMODAL 2012- Logistika Intermodaleko V. Foroa egin den bitartean gertatu zen Vitoria-Gasteizen. Jardunaldian, sektoreko ehun enpresa baino gehiago bertan direla, logistikak eta garraiok nazioarteko enpresa garrantzitsuetako aditu aitortuen partaidetza izan da.

Iturria: **Cámara de Comercio de Álava** [2012ko maiatza 17]



## Iberdrolak 300 milioi lortu ditu 10 parke eoliko finantzatzeko

Iberdrolak, Neoenergia brasildar enpresarekin batera, hamar kreditu sinatuko ditu guztira 300 milioi eurokoak Garapen Ekonomiko eta Sozialeko Banku nazionalarekin (BNDES) eta Brasilgo Bankuarekin 10 parke eoliko eraikitzeko 288 megawatteko (MW) potentziarekin herrialde hartan.

Instalazio bat baino gehiago dira Energia Elektrikoaren Agentzia Nazionalaren (Aneel) enkanteetan esleitu zirenak Brasildar Gobernuaren Azeleratze Ekonomikoko Programaren esparruan.

Bi enpresek dagoeneko ekin diote horietako lau instalazioren eraikitze-obrei eta datozen hilabeteetan espero dute ekitea gainerako sei parke eolikoei. Bertan instalatuko diren aerosorgailu guztiak Gamesak eginak izango dira. Iberdrolak dio parke horiek abian jartzearekin 200 bat enplegu sortuko direla eta instalazioek nahikoa energia sortuko dutela 450.000 brasildar inguruei argindarra hornitzeko.

Iturria: **Cinco Días.com** [2012ko ekainak 20]





## Innova Basque Audiovisual proiektuak hautatu ditu epai-mahaiak

Innova Basque Audiovisualen lehen edizioko programa pilotuen proiektuak hautatzeko nazioarteko epai-mahaia bildu eta gero, eta bidalitako dokumentazioa kontuan izanik, epai-mahaiak adierazi du balioetsi egiten duela aurkeztutako lan gehienen maila kalitatea eta profesionaltasunarengatik, bai eta partaide guztiek egindako ahaleginarengatik ere. Epai-mahaiak erabaki du haien guztien artetik honako hauek hautatzea: Pausokak aurkeztua (Mamma Mia eta Jakitunen Kontseilua); 3 Komak aurkeztua (Zu ala ni?: eta Bainetek aurkeztua. (Zein seinalatzen duzu hatzaz?), zeren proiektu horiek Innova Basque Audiovisual ekimenaren oinarrizko eskakizun guztiak biltzen dituztela ulertzen baitu, argitaratutako oinarrien arabera, eta, eta era esanguratsuan egokitzen zaizkie EiTB eta Eikenek bultzatu nahi dituzten helburuei: originaltasuna eta berrikuntza, nazioartekotzea eta salmenta, eta bideragarritasuna.

Iturria: **eitb.com** [2012ko ekainaren 29]

## Hirikok bere lehen pauso agerikoak eman ditu Gasteizen

Hirikoren prototipoa, Gasteizen garatzen den automobil elektrikoa eta duela hilabete batzuk Bruselan aurkeztu zena mugikortasun jasangarriaren aldeko apustu irmo bat bezala, lehen aldiz agertu da Arabako hiriburuko kaleetan, oinezkoen begiradapean, prentaskoen kameren aurrean jartzen zelarik, haren sustapen-irudia prestatzeaz arduratzen den ekipoaren eta Discovery Channeleko profesionalen aurrean, izan ere dokumental bat egitera etorri ziren automobil elektriko iraultzaile horri buruz.

Iturria: **ElCorreo.com** [2012ko ekainaren 29]



innobasque

berrikuntzaren euskal agentzia
agencia vasca de la innovación

CONECTAMOS
HACEMOS
INNOVAMOS

KONEKTATZEN
EGITEN
BERRITZEN

# El valor de Innobasque… nuestros socios.

# gure bazkideak... innobasqueren balioa.



# Berrikuntza Sistema

## Gobernu-organoak

### ZUZENDARITZA BATZORDEA

Zuzendaritza Batzordearen urteko lehen bilkuran, %95eko quorumarekin, 2011ko ekitaldiaren balantzea azaldu zen 24.000 pertsonaren mobilizazioa nabarmenduz jarduera baten baino gehiagoren bitartez, 4 eraldaketa-dinamiketako aurrerapenak, bai eta Berrikuntzako Euskal Sistemaren estrategia laguntzeko funtzioak eta Innobasqueren partaidetza 15 politika funtsezko baino gehiagotan, zeinen artean baitago ZTbP2015.

Aurten hasten den Innobasqueren II. Zikloari dagokionez (2012-2015)3 lan-prozesutan zentratuko dela azpimarratu zen: sozializazioa, dinamizazioa eta Berrikuntzako Euskal Sistemaren estrategiari laguntzea.

Gainera, gobernantza-eredu bat onartu zen, zeinean Zuzendaritza Batzordeak Batzorde Eragilearen laguntza izango baitu, Zuzendaritza-kidez osaturik, eta Zuzendaritza Kontseilu batzuez gaiak garatzeko edo izaera estrategikoa duten proiektuak, Zuzendaritzako kideek ordezkatutako pertsonek eta beste pertsona aditu batzuek eratuak. Halaber, Nazioarteko Kontseilua Aholkulari bat sortzea planteatu zen Zuzendaritza Batzordeari irismen globaleko orientazio estrategikoaren ekarpena egiteko. [2012ko urtarrilak 26]



## BATZAR NAGUSIA

Zuzendaritza Batzordearen 2012ko bigarren bilkura egin eta gero, Bilboko Euskalduna Jauregian izan zen Batzar Nagusia. Landutako gaien artean, honako hauek dira nabarmentzekoak:

- Innobasqueko Ohorezko Lehendakaritzaren onarpena Lehendakariaren aldetik
- Zuzendaritza Batzordea Berritzea, gaur egun gizarte eta enpresaren (%55), zientzia eta teknologia (%25) eta administrazioaren (%20) barrutietako 60 kidek eratua
- Guillermo Ulacia Innobasqueko presidente hautatu dute bigarrenez
- Barruti desberdinetako 16 pertsonak eratutako Batzorde Eragilea eratzea:
  - **Guillermo Ulacia** - Presidentea
  - **Carlos Zapatero** (Kutxa Bank) - Diruzaina
  - **Txema Gisasola** (Mondragón Corporación) - Presidenteorde Soziala
  - **Miguel Ángel Lujua** (Confebask) - Enpresa Presidenteordea
  - **Javier Ormazábal** (Tecnalia) - Teknologia Presidenteordea (txandaka)
  - **Jesús María Iriondo** (IK4) - Teknologia Presidenteordea (txandaka)
  - **Fernando Cossío** (Ikerbasque) - Ikerkuntza Presidenteordea
  - **Manu Salinero** (Lehendakaritza - Eusko Jaurlaritza) - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Mandataria
  - **José Ignacio Arrieta** (AVIC) - Batzordekidea
  - **Rafael Barrenechea** (Danobat) - Batzordekidea
  - **Asís Canales** (Iberdrola) - Batzordekidea
  - **Luis Cañada Vicinay** - Batzordekidea
  - **Azucena Castro** (OWL) - Batzordekidea
  - **Matilde Eléxpuru** (Bizkaiko Emakume Enpresaburuen eta Gidarien Elkartea) - Batzordekidea
  - **Txema Franco** (Lantegi Batuak) - Batzordekidea
  - **Alberto García Erauzkin** (Euskaltel) - Batzordekidea
  - **Emilia Málaga** (UGT) - Batzordekidea
- 2012-2015 Planeko lan-lerroak onartzea. Innobasquek sendotze eta hazte-ziklo berri bati ekin dio eta bertan 2010-2011n finkatutako lerroei "berrikuntzaren egoera-txostena" garatzea batzen zaio (Innovation Index), berrikuntza sustatzea eta praktika hoberenak hedatzea eta Innobasque enpresa-erantzukizun sozialeko eredu bezala kokatzea (EES)
- Urteko kontuak eta 2011ko kudeaketa-txostena eta 2012ko aurrekontua onartzea

[2012ko maiatzak 22]











# Berrikuntzako Euskal Sistemaren jarraipena eta ebaluaketa

ZTbP 2015, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak 2011k abenduaren 27ko Gobernu Kontseiluak onartuak hau finkatzen du: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Euskal Kontseilua dela ZTbko politikaren orientazio estrategikoaren organo arduraduna eta horretarako Innobasqueren laguntza izango duela, izaera estrategikoa duen erakunde bezala aitortua denarena, zeinen eginkizuna Berrikuntzako Euskal Sistemaren jarraipen- eta ebaluazio-tresna bezala zerbitzatzea baita.

2012an Innobasque 2015 ZTbPak finkatutako laguntza-lana garatzen hasi zaio ZTbEKri, Planean definitutako gobernantzako hiru mailei dagozkien euskarri-funtzioetako batzuk definituz:

## 1. Maila: "lidergoa eta orientazio estrategikoa"

Honako hauek begietsi dira: zientzia eta teknologiako nazioarteko joeren analisia eta monitorizatzea, nazioarteko barrutian gailendutako adituen eta eragileen partaidetzaren dinamizatzea, bai eta Berrikuntza Funts Estrategikoko baliabideak esleitze-metodologia baten definizioa ere.

**Burututako ekintzak:**

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Batzordea (ZTBB) eratzea, Berrikuntzako Euskal Sistemaren gobernantza eraginkorraren eta Eusko Jaurlaritzako sail guztien artean eratuaren arduraduna. Innobasque Batzorde horretako idazkaritza teknikoaren lanetan aritzen da, Mandataritzaren funtzioari ematen dion laguntzaren parte bezala
- Metodologia sortu da Euskal Sistemaren lehentasunen gainean erabaki estrategikoak hartzeko laguntza-tresna bezala, bai eta haiek ebaluatu eta kontrolatzeko ere
- 2008-2012 Berrikuntza Funtsaren egikaritze-mailaren analisia

## 2. Maila: "plangintza eta kudeaketa"

Honako hauek begietsi dira: zientzia, teknologia eta balioa sortzearen, eta berrikuntza sozialeko barrutietan prozesuen bitartez kudeatze-ezarpenen funtzioak; berrikuntza soziala hedatzea; IKTen hedapena eta komunikazioa; ZTBESaren kudeaketari laguntzea eta sistema nazioartekotzea. Gainera, maila horretan txertatzen da politika publikoak landu eta kontrastatzearen prozesuetan administrazioari laguntzen Innobasque orain arte egiten ari zen lana.

**Burututako ekintzak:**

- ZTBBaren aldetik, 2015ZTbParen prozesuen mapa globala lantzea, Innobasqueren laguntza teknikoarekin, Plan berriaren hedapena bultzatu behar duten kritikoenak hautatuz. Haien artean daude Gobernuaren orientazio estrategikoak, baliabideak esleitzearena, talentuaren kudeaketa eta berrikuntza-sistema ebaluatzearena, bigarren faserako geratzen direlarik zientzia, teknologia eta balioa sortzearen eta berrikuntza sozialaren estrategiak definitzea, bai eta erosketa publiko berritzailearena eta ezagutzaren

salmenta eta ustiapenaren kudeaketa-prozesuak ere

- Talentua kudeatze-prozesuaren barruan, haren definizioaz arduratzen den lantaldea abiarazi da, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza Saila lider duela

## 3. Maila: "jarraipena eta ebaluazioa"

Innobasque funtsean honako honetan ari izan da lanean: berrikuntzan euskal enpresen inbertsio erreala neurtzeko aukera emango duen proiektu bat definitu eta abiarazten, gainera, jarduera-sektore bakoitzeko hazkuntza ekonomikoari egingo dion ekarpena kalkulatuz. Hurbiltze makro hori Berrikuntzaren Urteko Txostenean sartuko da, zeinek jasoko baitu Zientzia eta Teknologiaren, Enpresa eta Sektore Publikoaren ekarpena ere, bai eta Euskadiko berrikuntza sozialaren egoera ere

Proiektuaren helburuen artean honako hauek daude: Euskadi nazioarteko ekimenen abangoardian kokatzea berrikuntza neurtu, zientzia, teknologia eta berrikuntzako gure sistemaren eraginkortasun globala ebaluatu eta monitorizatzeko, hazkuntza ekonomikoari egiten zaion I+G+b-ko gure inbertsioen ekarpena kalkulatuz, bai eta 2015 CTbPean finkatutako lehentasunen dinamika definitzen laguntzeko ere.

Horretarako lankidetza-akordio bat finkatu da NESTA, Erresuma Batuko Zientzia, Teknologia eta Arteen Agentzia Nazionalarekin, erakunde hori lankide izan dadin proiektuan "hazkuntza-kontabilitatearen" teorian eta "berrikuntzaren ukiezin" deituen kalkuluan bere ezagutza praktikoaren ekarpena egin dezan. Akordio horri esker euskal kasuaren emaitzak konparagarriak izan daitezke nazioartean, britainiar agentzia ospetsuak definitutako eta ELGE beste herrialde batzuetan ezartzen hasi den estandarrak betetzea segurtatuz.

ZTbBaren ekarpenarekin, proiektuaren Batzorde Teknikoaren osaera finkatu da eta bertan 3 euskal unibertsitatek parte hartuko dute (UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea), eta 2 teknologia-korporaziok (Tecnalia eta IK4), Confebask, Orkestra eta Eustatek, bai eta Etorbizi eta Kronikgunek, sektore sozio-sanitarioaren ordezkari bezala.

Batzorde horren lehen topaketaren ostean, txosten-proposamen bat garatzea adostu da Berrikuntzaren Euskal Sistemaren ikuspuntu global bati kontu eginez, lankidetza publiko eta pribatua bultzatuz, nola haren diseinuan hala haren inplementazioan. Batzordeak berrikuntza-txostena diseinatze-lana zuzenduko du, haren egitura eta azken osaera baliozkotuz, eta jasotzeko interesgarrienak diren auziak edo estatistikak zein diren aholkua emanez, zeren eta Berrikuntzako gure Euskal Sistemaren errealitatea eta ahalmena era fidelagoan irudika baititzakete.



# Politika publikoetako berrikuntza

**Irekitako lan-lerroak**

- 2015 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana
- Bizitzan zeharreko Ikaskuntza Lege baterantz Euskadin
- Bizitzan zeharreko Ikaskuntzako Europar Proiektua - LABS2LEARN
- Lehendakariaren Kontseilu Aholku-emailea
- Enplegu Estrategia
- XXI. Mendeko Udalerria
- EcoEuskadi 2020
- Immigrazioaren aldeko Ituna
- Landa-barrutiko emakumeak
- Berrikuntza eta hiritarren partaidetza tokiko politika publikoetan

## Enpresa-lehiakortasuneko Plana

Innobasque, Euskalit eta Orkestrarekin batera Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren 2010-2013 Enpresa Lehiakortasuneko Plana jarraitu eta ebaluatzeko Proiektu Batzordearen osakide da. Planaren egoeraren azterketa teknikoko lana osatzera zuzendu da eginkizuna, bai eta lantegi bat garatzera ere, zeinetan euskal ingurune sozioekonomikoko 100 erakunde esanguratsuk baino gehiagok parte hartu baitzuten. Jardunaldi hartan, eragileek zera azpimarratu zuten, beharrezkoa dela koordinazioa eta lankidetza indartzea, nola administrazio publiko desberdinen artean, hala sistemako I+G+b-ko eragile guztien artean, adibidez, herrialdearen ikusmolde indartsu bat eraikitzeko nazioartekotzea, kanpo-merkatuei eta goranzko nitxoei laguntzea, apustu espezifikoak definitzea eta I+G+b-n baliabideak lehenestea, etab. [2012ko apirilak 23]

## Immigrazioaren aldeko itun soziala

2012ko lehen seihilekoan zehar, Immigrazioko Zuzendaritzatik aditu-batzordeak sortutako dokumentuaren kontrastea burutu da, euskal gizartearekin Itun Sozialari atxikitzeko gakoei ekiteko helburuarekin, itun hori tresna baliagarri eta proaktibo bihurtzea ahalbidetuko duten mekanismoak definitzeaz gainera, hura jarraitzeko bideak proposatzeaz gainera.

Hartarako, 3 kontraste-saio egin dira 3 euskal hiriburuetan 300 erakunde baino gehiagoren partaidetzarekin. Gaur egun toki-mailan ari da kontrastea egiten, orain arte Ermuan eta Berrizen.





## Gardentasunaren eta gobernu onaren lege-proiektua

Eusko Jaurlaritzak, Innobasquerekiko lankidetzan sustatutako Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Legegaiaren inguruko eztabaida-prozesuko lehen jardunaldian, parte hartu zuten barruti publiko eta pribatuko 50 eragile baino gehiagok, aukera izan zuten eztabaidatzeko, lan-mahai desberdinetan, Legegaian jasotako hiru ardatz nagusiei buruz: plangintza eta ebaluazioa, gardentasuna eta partaidetza.

Legegai-zirriborro horren funtsean gobernantza demokratiko berri baten diseinua dago, administrazio efiziente eta eraginkorrago bat sustatuko duena eta hiritargo prestatu, aktibo, erantzunkide eta partaidea ahalbidetuko duena. Halaber, Albert Serraren (ESADE Institutuko Kudeaketa publikoan Executive Master Programako Zuzendaria) eskutik inauguratze-hitzaldi bat izan zen, zeinek azaldu baitzuen gardentasunari ekin beharra, ez bakarrik segurtasun juridikoaren ikuspuntutik, baizik eta ekintza publiko emaitzarantz bideratzeko ezinbesteko baldintza bezala. [Zamudio, 2012ko martxoak 27]

## Bizitzan zeharreko ikaskuntza-legea

Bizitzan zeharreko Ikaskuntza Legea onartzea Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak Legebiltzarrera bidaltzeko. Innobasquek parte hartu du lege hori sostengatzen duten oinarriak definitzen gizarte zibilean burutu diren partaidetza-prozesu baten baino gehiagoren bitartez.

Lege horrek Euskal hiritargoaren prestakuntza-kezka guztiei erantzun nahi die, bizitzan zehar prestatzen jarraitzeko aukera izango duela, bere lan-esperientziari esker jaso diren gaitasun haiek aitortzeko eta lan-bizitza hastean pertsonen prestatze-prozesua ez amaitzea ahalbidetuko duten beste hainbat ekimeni esker.

Legeak Euskal Herrian bizitzan zeharreko ikaskuntzako sistema eraginkor bat bultzatu eta arautuko duen esparru bat finkatzen du, euskal hiritarren eskubide bat bezala marraztuz. [2012ko urtarrilak 31]



## Bizitzan zeharreko ikaskuntza-proiektu europarra Lab2learn

Frantzia, Errumania eta Lituaniara egindako nazioz gaindiko bisiten proiektu-esparruan, Prestakuntza Funtsa, proiektuaren liderrak, Lituanian bisitatutako "Validation of non-formal and informal learning of non-academic staff working at public education institutions" Euskadin ezartzea erabaki du.

Datozen hilabeteetan lan-plan bat buurtuko da Euskadin EAEren barrutian ekimen definitu eta proiektu pilotu bat abian jartzeko asmoarekin.



## INNOBASQUE HEMEN ZEGOEN

EcoEuskadi 2020 hautatua izan da "Colourful Cities" gai-erakusketan aurkeztutako 28 praktika onetako bat bezala, Erregioen eta Hirien V. Europar Gailurreko Bilkuran, Erregioen Batzordeak antolaturik Kopenhagen eta Danimarkako Erregio-Hiriburuarekin batera.

Zehazki, EcoEuskadi "green cities" kategorian kokatu da, energia-efizientzia eta garraioa eta garapen jasangarriaren inguruko ekimenak aitortzen dituelarik [2012ko martxoak 22 eta 23]

## Enplegua Euskadin eta etorkizun-ikuspegiak

Eusko Jaurlaritzak sustatutako lan-talde bat abiaraztea, enpleguaren barrutia eta lankidetzako proiektu bati ekiteko aukera aztertzeko asmoarekin, pertsona eta ikusmolde desberdinekin, zeinek ekingo dioten langabeziari, batez ere gazteenari, izan ere lan-merkatuan sartu beharko lukeen eta egiten ari ez den belaunaldi bat erasaten du; horrek jasangarritasun-arazoak eragin litzake epe ertain eta luzera. [2012ko maiatza]



## Tokiko berrikuntza-agentziak. XXI. Mendeko Udalerriak

Tokiko Berrikuntzako Agendetako batzorde teknikoan parte hartzea eta Eudelekin eta Eusko Jaurlaritzako Industria Sailarekin lankidetzan aritzea XXI. Mendea Udalerri-proiektuari jarraipena emateko

Halaber, erakunde horietatik, proposamen bat eskatu zaio Innobasqueri udaleko berrikuntza-esperientziak trukatu ahal izateko gune bat sozializatu eta dinamizatzeko, bai eta beste herrialde batzuetan sustatzen ari diren praktika onak ezagutzeko ere.

## European voices for active ageing

Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Europar Urtearen esparruan, Innobasquek beste 5 europar hirirekin batera (Estrasburgo, Bonn, Praga, Milan eta Londres) "Zahartze Aktiboaren aldeko Europar Ahotsak" World Kafean parte hartu du, helburu bikoitz batekin: 50 urtez gorako pertsonei gizartean aktiboki inplikatzeko aukera eskaintzea eta beren europar hiritartasunaren zentzua garatzea kultura arteko elkarrizketaren bitartez, eta gomendio zehatzak egitea zahartzearekin zerikusia duten politikei (toki-, nazio- eta europar mailan).

Proiektu horrek Europa guztiko pertsonak elkartu nahi ditu zahartze aktiboari buruzko ezagutzak eta balioak partekatzeko, eta geroa eraikitzeko Europako Batasunaren erronka estrategikoei ekinez hala nola biztanleria zahartzeari.

Deusto Business School-en egoitzan Innobasquek garatutako World Kafean,-bertara 160 pertsona agertu ziren- Berrikuntza Sozialari buruzkoa, eta hura dinamizatzeko proiektuarekin konprometitutako pertsonen lankidetza izan zen: Constance Little, Mirra Elkartekoa; Pedro Ruiz Aldasoro, Creativity Zentrum-ekoa; Begoña Nogueira; eta Iñaki Letona, IK4- Gaiker-eko Zuzendari nagusi ohia. [2012ko ekainak 28]






## Berrikuntza eta partaidetza tokiko politika publikoetan

Innobasqueko Gobernantzako i-Taldea, UPV/EHUarekin lankidetzan, ikerkuntza bat burutzen ari da politika publikoetan hiritarren partaidetzaren operatibotasuna, ezargarritasuna eta errendimendu erreal eta eraginkorra hobetzeko asmoarekin

Asmo horrekin, bigarren belaunaldiko praktika onen eskuliburu bat eta tresna-tipoen bilketa bat prestatzen ari dira. Ibilbide-orri bat osatzea da kontua, zeinek emango baitu aukera identifikatzeko zein diren beharrezko premisak, pausoak, metodoak, aldaketak, prozedurak, ardurak eta erabaki funtsezkoak gobernantza demokratiko onari atxikitako inpaktuak eta emaitzak lortzeko: erakunde-legitimitatea, zerbitzu publikoaren kalitatea, efizientzia eta eraginkortasuna kudeaketa publikoan, geroa aurreratu eta ikustea, lidergo demokratikoa, adostasun eta egituratze soziala, eta hiritarren inplikazioa eta erantzukizuna indartzea.

## Gizarte berritzaile baterako balioak

Diagnosi-tresna honek, Innobasqueren eskariz Emoiker-ek (UPV/EHU) garatua, neurri fidagarri eta baliozkoen bateria bat du antolaera- eta berrikuntza sozialari atxikitako balioak badirela aztertzea ahalbidetzen dutenak, bai eta balio horiek duten harremana antolaeretako emaitzekin, haien gaitasun lehiakorra gehituko dutenak

Tresna hori esku-hartze batez baliozkotu da (Eraldatu azterlana) 10 enpresatako 500 bat langilerengan, nagusiki Gipuzkoako lurraldekoak Gasteizko Udala, Beralan, Debegesa, Grupo Egile, Hanna, Ikerlan, Microdeco, Ope Consultores, RTS eta Tekniker.

Diseinatutako tresna horrek aukera ematen du identifikatzeko zer berrikuntza-balio dauden presente aplikatzen duten enpresetan. Halaber, teknologia-aurrerapenen bitartez, ahalgarri ikusten da erreferentziako datu-base bat sortzea, zeinek jasoko baititu aipaturiko balioen garapen-mailak eta enpresa-sektore desberdinei atxikitako haien portaerak.

Bigarren fasea dagoen erlazioa (eta iragartzeko gaitasuna) ezagutzen zentratu da berrikuntza-balioen eta antolaeren emaitza gakoen artean (fakturazioa, absentismoa, berrikuntza, etab.), bai eta tresnaren fitxa teknikoa bere baitan duen eskuliburu bat lantzea ere, eta esku-hartze gero eta doituagoak diseinatzea enpresa bakoitzaren beharretara.





## 2015 ZTbP: Konponbideen belaunaldi berri bat. Euskadi Eredua

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren aurkezte-ekitaldiko lankidetza (2015 ZTbP), Lehendakaritza lider izanik eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako euskal sistemako eragile publiko eta pribatuen partaidetzarekin.

Ekitaldia, 1.000 pertsona baino gehiagorekin, Bilboko Euskalduna Jauregian izan zen eta bertan agerian geratu ziren ZTBESeko balioa sortze-kateko ahotsak. [2012ko maiatzak 22]




## EMAITZAK

- Gobernu Kontseiluak Ikaskuntza Iraunkorraren Legea onartzea
- Gizarte berritzaile baterako balioak: Eraldatu azterlana aurkeztea, Emoker-ek egina
- Immigrazioaren aldeko Itun Sozialaren 3 kontraste-saiotan 300 erakunde partaide
- Enpresa Lehiakortasun Planaren kontraste-lantegia euskal ingurune sozio-ekonomikoko 100 erakunde esanguratsu baino gehiagorekin [2012ko apirilak 23]
- "Zahartze Aktiboaren aldeko Europar Ahotsak" europar proiektuan parte hartzea. [INNOVACIÓN SOCIAL - 2012ko ekainak 28]
- 2015 ZTbParen aurkezpena 1.000 pertsona baino gehiagoren aurrean [2012ko maiatzak 22]

## ALBISTE IZANGO DA

- "Emakumeen partaidetza eta ekarpen ekonomikoa landa-ingurunean" Euskadiko Landa Emakumeen Nazioarteko VIII. Egunaren ondorioen argitalpena
- Gardentasun eta Gobernu Onaren Legegai-zirriborroan lantzeko eztabaida-lerroak eta alderdiekiko Txostena, gizarte zibilak egindako ekarpenetatik abiatuta
- Immigrazioaren aldeko Itun Soziala: Euskal udalerri desberdinetako kontrastea
- Tokiko politika publikoetako berrikuntza eta partaidetzari buruzko azterlanaren emaitzen aurkezpena [2012ko iraila]

# I+G+b sistemaren nazioartekotzea

**I+G+b-aren nazioartekotze-ibilbidean enpresei laguntzea da haren helburua**

## I+G+b-ko nazioarteko proiektuak kudeatzen ikastaro aurreratua

Innobasquek ikastaro honen bigarren edizioa antolatu du, Zientzia, Teknologia eta Barrikuntzako Euskal Sareko enpresa eta eragileetako 32 profesionali zuzendua, zeinak prestatu baitira Europako I+G-eko VII. Esparru Programan proiektuak antolatzen eta kudeatzen, bai eta I+G+b finantzatzeko beste nazioarteko eta nazioko programa batzuetan ere.

Ikastaroak 52 orduko iraupena du eta IK4 eta Tecnalia, SPRI Taldea eta Innobasque teknologia-korporazioetako adituek eman dute, Industria Teknologiaren Garapeneko Zentroaren (ITGZ), Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Mondragon Unibertsitatearen lankidetzarekin.

Halaber, gisa honetako proiektuetan dagoeneko lankide diren euskal enpresek azaldutako arrakasta-kasu desberdinak ere aztertu dira hala nola:

- **Innoprot**, spin-off, UPV/EHUkoak "in Vitro" sistema zelularren hornitzaileak farmakoak aurkitu eta garatzeko saiakerak burutzeko, gaur egun 4 europar proiektutan parta hartzen ari dena, eta horrek aukera eman die sona handiko enpresen lankide izateko, ezagutza berriak eskuratu, I+G-aren finantzatze-iturri garrantzitsu bat hautatu, beste arlo batzuetako ikertzaileekin elkarreraginean aritzeko, nazioarteko beren irudia hobetzeko, merkatua ireki edo beren enpresaren nazioartekotzeari laguntzeko
- **ALFA Taldea**. haren eteetako batzuen partaidetza 7º Esparru Programako proiektutan haren behar teknologiko propioetatik sortzen da, ZTbESeko eragileekin teknologia garatzeko lankidetzan aritzekotik, eta tamaina txikiagoko europar proiektuetako esperientzia baikorretik, hala nola ERA-NET ekimenen bitartez finantzatuak [2012ko otsaila-martxoa]





## ERA-NET

### MANUNET 2012

Joan den urtarrilean ireki zen MANUNET 2012 deialdia eta bertan Euskal enpresek aukera izan dute fabrikazioko nazioarteko proiektuetan parte hartzeko Alemania, Asturias, Austria Behere, Katalunia, Eslovakia, Finlandia, Valonia, Austria Beherea, Franche-Comté, Alsazia, Euskadi, Greziaren mendebaldea, Nafarroa, Andaluzia, Turkia, Frantzia, Israel, Flandria, Veneto eta Suitza.

Frantzia, Ipar Irlanda, Israel, Luxemburg, Nafarroa, Greziaren Ekialdea, Piamonte, Errumania, Suitza, Toskana, Turkia eta Valoniako erakundeekin.

Aurkeztutako 111 proposamenak nazioartean ebaluatu zirelarik -hori Getxon (Bizkaian) gertatu zen- 63 bigarren faserako aurkeztu ziren. Euskadiri dagokionez, 21 aurre-proposamen aurkeztu ziren euskal partaidetzarekin, eta haietatik 8 bigarren fasera igaro dira. Proposamenak entregatzeko epe-muga uztailaren 11 izan da. [Getxo, 2012ko maiatzak 9]

### LEAD ERA 2012

Joan den otsailean ireki zen ERA-NET LEAD ERAren hirugarren deialdia, I+G+b proposamenak, lankidetza-proiektuekin zerikusia duten sei merkatu liderretan aukeztera zuzendua (e-health, protective textiles, sustainable construction, recycling, bio-based products and renewable energies). Aurten deialdi horretan bildu diren herrialde/erregioak honako hauek dira: Valonia, Austria Beherea, Valonia, Baja Austria, Franche-Comté, Alsazia, Euskadi, Greziaren Mendebaldea, Nafarroa, Andaluzia, Turkia, Frantzia, Israel, Flandria, Veneto eta Suitza.

15 aurre-proposamen jaso dira, haietako 6 euskal enpresak lider dituztenak, eta haietatik 5 gonbidatu dituzte azken proposamena prestatzera, zeinen entrega-epea uztailaren 18an amaitzen baita. [2012ko apirilak 27]

### M-ERANET

M-ERANET abian jartzea, ERA-NET proiektu berria, zeinean Euskadi partzuergo-kide bezala parte hartuko baitu eta zeina aurreko ERA-NETak bat-egitetik jaiotzen baita (MNT-ERA.NET eta MATERA), orduan ere euskal partaidetza bazuena.



Ekimen honek helburu bat izango du: I+G+b-ko proiektuetarako deialdiak abiaraztea makro-mikro- eta nano-eskaletan materialen teknologia eta ingeniaritzako barrutian. Berritasun bezala ERA-NET honek 32 herrialde/erregiotako 39 agentziatan parte hartzeko konpromisoa lortu du. Gainera, epe laburrera deialdia abiarazte posiblea du erronkatzat Europako Batasunaz kanpoko herrialdeekin batera, hala nola Japonia, Korea, Taiwan, EE.BB edo Brasil.

Abiarazte-bilkuran, -bertan izan ziren agentzia desberdinetako ordezkariak- datozen lau urteetan garatuko diren lan-pakete desberdinak aurkeztu ziren eta M-ERA.NETen lehen deialdia izango denaren moldeaketa hasi zen, zeina abiaraztea 2012ko laugarren hiruhilekoan izango dela espero baita. [2012ko otsailak 27 eta 28]

**ERA-NET ENT III ETA ENT II. AZKEN KONFERENTZIA**

Garraioko ERA-NETaren bigarren faseko azken konferentzia. Innobasquek eta EEEk (Euskal Energia Erakundea), bi bazkide berriok hitzaldi batekin parte hartu zuten Euskadi ordezkatuz. Innobasquek Euskadiko garraio-sektorearen I+G+b-aren egoera nabarmendu zuen, proiektu horretako partaidetzaren lerrokatzea 2015 ZTbP berriarekin eta emaitzen- eta partaidetza-inpaktuaren itxaropenak ENTen hirugarren fase honetan.

ENT III-k berritasun bat dakar, bi deialdi motaren bizikidetza: garraioko I+G+b-ko proiektuetarako Flagship-a eta eskala txikiko garraioetarako I+G+b-ko proiektuen deialdiak [Brusela, 2012ko apirilak 17]

## Industrial Technologies 2012

Euskadik parte hartu zuen ERA-NET MANUNETen (fabrikazioa) koordinatzaile bezala stand berri-emaile batekin Industrial Technologies 2012n, zeinek industria, administrazio publiko eta ikerkuntzako 160 hizlari izan baitzituen nazioarte-mailakoak, bertan aztertu zirelarik europar ikerkuntzaren eta industriaren ikuspenak 2020 urterako, bai eta Europak nola izan dezakeen arrakasta lehiakidetza globalaren eta 2020 Ostertza ekimenaren eta inpaktuaren aurrean. [Aarhus, 2012ko ekainak 19, 20 eta 21]

## WIRE 2012 Konferentzia

WIRE 2012 Konferentzia Erregio Berritzaileen Astea ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako erregioen garapen adimendunean zentratu zen.

Innobasquek Euskadiko esperientzia azaldu zuen ERA-NETen, Europar Erregioen Partenergo Berritzaileei buruzko saioan. [Krakovia, 2012ko ekainak 4 eta 5]

## "Enterprise Europe Network" (EEN) Sareko Espainiar Partzuergoen Urteko V. Bilkura

Bilkura honetan Europako eta Estatuko sareko 80 kidek parte hartu zuten partzuergo bakoitzetik burutzen diren ekintzak koordinatzeko asmorekin Europa enpresetara hurbiltzeko eta koordinazio horretarako partzuergo bakoitzaren arteko praktika onak trukatzeko topagune bezala balio izan zuen, espainiar Sareak gaur egun duen egoera aztertzeko eta batez ere, 2014-2020rako etorkizunerantz, enpresei aholkua ematen partzuergoen partaidetza hobetzeko dinamika berrietarako, eta abarretarako.

Enterprise Europe Network Sareak EBaren barruko eta kanpoko 51 ia 600 erakunde hartzen ditu bere baitan, zeinen artean dauden merkataritza- eta industria-ganberak, teknologia-zentroak, unibertsitateak eta garapen-agentziak. Espainiaren kasuan, sarea 27 partzuergok eratzen dute, euskal partzuergoa 3 merkataritza-ganberak, BEAZ, Spri eta Innobasquek eratzen dutelarik. [Palma de Mallorca, 2012ko ekainak 6 eta 7]

enterprise europe network
Business Support at Your Doorstep

## Euskal Turismo Sektoreko Berrikuntzaren Ibilbide Orria

Laneko lehen jardunaldian parte-hartzea turismo-sektoreko eragileekin proposamen eta ekintzen ekarpena egiteko Eusko Jaurlaritzako Sailordetzaren Plan Estrategikoari (2010-2013ko Euskal Turismoaren Lehiakortasun eta Berrikuntza Plana). [2012ko ekainak 15]



"2020 Ostertzek Enterprise Europe Network (EEN) sarea erabili nahi du enpresek **beren berrikuntza-ahalmena gehitzea** ahalbidetzeko eta tren horretaz balia daitezen, **eteentzat egiazko leihatila bakarra** sortuz. EENek esperientzia zabala du eteei laguntzen maila europarrean I+G-erako finantzazioa lortzen, gainera teknologia eta ezagutzaren transferentziaz aholkularitza eginez, bai eta bazkideak bilatzeko zerbitzuetan ere. EEN dauden zerbitzuen kategoria jasoz, eteek gai izan beharko lukete aholkularitza eta orientazio horretaz baliatzeko berrikuntza-proiektu baten bizi-zikloan zehar, merkataritza-jarduera horiek burutzeko laguntza lortu, bai eta bere networking-a erabiltzeko ere Europaren barruan eta kanpoan bazkideak aurkitzeko".

"Horizon 2020: Stimulating SME research and innovation" artikulutik ateratakoa

Clara de la Torre, Europar Batzordeko Ikerkuntza eta Berrikuntzako Zuzendaria.

## EMAITZAK

- I+G+b-ko nazioarteko Proiektuen Kudeaketako Ikastaro Aurreratua [2012ko otsailak 3- martxoak 23]
- Industrial Technologies 2012ko partaidetza MANUNET (fabrikazioa) sustapenerako standarekin proiektuen LEAD-ERA (merkatu liderrak), M.ERA-NET (materialen zientzia eta ingeniaritza), MNT-ERA.NET eta CrossTexNet (ehunkiak) [Aarhus, Danimarka - 2012ko ekainak 19-21]
- Jardunaldi berri-emailea eta Brokerage Event lankidetza-aukerei buruz Europako I+G-eko VII. Esparru Programan [Bizkaia, 2012ko ekaina]
- Innobasqueren Hitzaldia garraioko ERA-NETen azken konferentzian [2012ko apirilak 17]
- Sharebiotech: honako konferentzia honetako partaidetza: "Fostering open innovation in biotechnology: new approaches in biopharmaceutical delivery and building networks in biotechnology" [Pamplona - 2012ko maiatzak 10-11]

## ALBISTE IZANGO DA

- Europako I+G-eko VII. Esparru Programa eta 2020 Ostertzeko Jardunaldia: Lankidetzako aukera berriak I+G+b-en. [BEC, 2012ko uztailak 3]
- M-ERA.NETen 1° deialdia Euskadiren partaidetzarekin [2012ko iraila]

# 5 gako ....

# ERA OSASUNGARRIAN JATEKO



## 1

**Gosari on batekin hasi eguna, eguneko otordu garrantzitsuena da.**

Beharrezkoa da fruta-kontsumoa indartzea bitamina-, mineral- eta zuntz-gomendioak estaltzeko, bai eta gosarikoan opilen kontsumoa gutxitu eta ogi eta zereal oso, azukreztatuegiak ez direnena gehitzeko.

## 2

**Eta barazkiak kontsumi itzazu.** Osasunaren Mundu Erakundeak helburu dietetiko gisa egunean gutxienez 400 gramo fruta, barazki eta ortuari jatea proposatzen du bitamina, mineral eta  oligoelementuen, zuntz bezalako elikagaien  eta ezin zenbatu ahala fitokimikoren iturri zalantzagabea delako, haietako asko efektu babesle antioxidatzailea dutenak.



Alejandro Martínez Berriochoa,
Eroski Fundazioko Zuzendaria



3

**Murriztu koipe-kontsumoa.** Batez ere, koipe saturatu eta “trans-ak”. Koipe saturatuak murriztu eta haiek koipe mono eta poli-insaturatuz, adibidez olio, arrain urdin, ahuakate eta fruitu lehorretan daudenez ordezteak %42an gutxitzen laguntzen du gaixotasun kardiobaskularra garatzeko arriskua.

4

**Kendu sukaldean ondu aurretik haragiek eta hegaztiek ageri duten koipea.** Haragi gihartsuak sarriago kontsumitzea komeni da haragi koipetsuak edo erdi-koipetsuak baino: oilaskokia eta azalik gabeko indioilarkia, koiperik ageri ez duen untxikia, txahal-xerra, txahal- eta txerri-azpizuna, solomo-zinta, txerri-, zaldi-, moxal-giharra. Aholku ona da hegazti-, haragi- eta hezurren koipea hotzean kentzea.

5

**Hidratatuirk eutsi zeure buruari.** Ura da giza gorputzaren osagai nagusia, eta gorputzaren pisu guztiaren %55 eta %60 bitartekoa da. 70 kiloko pisua duen pertsona heldu batengan urak 40 bat litro hartzen ditu. Ura da ezinbesteko edari bakarra, eta ongien egarria asetzen duena.

# Dinamizazioa

Sistemako eragile guztien partaidetza eta lankidetza sustatzeko, ekimenen eta/edo zehar-berrikuntzako proiektuak identifikatzea errazteko eta gizarteko aldaketa sozio-ekonomikoko prozesuak bultzatu eta azeleratzeko. Eraldaketa-dinamikak honako hauek dira: Eko-berrikuntza; Gizarte Efiosasungarria eta Bizi Kalitatea; Laugarren Sektorea eta Enpresak Azeleratzea.

Barruti horretan eszenatoki berriak ere begiesten dira, makrojoera global berriak, zeinekin Innobasque lerrokatu egiten baita aukera bila Euskal lehiakortasuna hobetuko dutenak sarean lan eginez, Gipuzkoa Berritzen, Arbela, Esp@ Sarea, Adimen Emozionalaren Partzuergoa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea eta Iñaki Goenaga Teknologia Zentroen Fundazioarekin.

## Ekonomia Ekoberritzailea Dinamika

Euskadin ekonomia ekoberritzailea bultzatzeari laguntzeko helburuarekin, Innobasquek hiru lerro estrategiko definitu ditu:

**1. Proiektu egituratzaileak sustatzea.** Helburua: ekimen eragileaniztunak eta sektoreaniztunak identifikatu, diseinatu eta sustatzea ekoberrikuntza barruti berezi batean sartzeko jarduera-arlo bat baino gehiago aplikatuz (adibidez, Energia, Garraioa eta Eraikin Jasangarriak Hirietan).

**2. Sektore eko-berritzaileak dinamizatzea (ECOerkidegoak).** Helburua: ekimen eragileaniztunak eta sektoreaniztunak jarduera-arlo bereziak eraldatzeko (EKO-erkidegoak) ekoberrikuntza-irizpideak sarraraziz: eko-teknologia, prozesu berdeak, enplegu berdea, ingurumenarekiko produktu eta zerbitzu begirunetsuak, etab.

**3. Eskaria aktibatzea.** Helburua: baldintza egokiak finkatzearen sustapena eko-berrikuntzako eskari publiko eta/edo pribatuarentzat esparru egonkor bat sortzeko.

Jarduera horren kudeaketa Euskal Herriko Ekoberrikuntza-barrutiko erakunde nagusiek eraturiko Aditu Batzorde baten aholkularitzapean burutzen da.

### Eko-berrikuntzako Aditu Batzordea

Seihileko honetan Aditu Batzordeak bi topaketa izan ditu honako helburu hauekin:

- Cleantech Forum Europen presentziaren edukia eztabaidatzea eta "Southern Europe's Cleantech Hub-en" diseinua jarraitzea. Gainera, Andoni Aldekoa, Bilboko Udaleko Kontseilari Ordezkaria ere izan zen bertan eta euskal hiriaren estrategia erakutsi zuen "Eko-teknologiak eta Hiri Konponbideen" ardatzean lankidetza publiko eta pribatua indartzeko.[2012ko martxoak 8]

- Cleantech Forum Europe 2012ko partaidetzako emaitzen berri ematea, lan-talde espezializatuen sorrera onartzea "Southern Europe's Cleantech Hub" ekimenaren ekintzako plan integrala garatu eta bultzatzeko eta Cleantech Forum Europe 2013rako Euskadiren hautagaitzari bulkada ematearen onarpena. Saio horretan honako hauek parte hartu zuten: Xabier Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Sailburuordeak eta Javier San Miguel, Cener-eko negozio Garapen eta Estrategiako Zuzendariak. [2012ko maiatzak 21]

SOUTHERN EUROPE'S CLEANTECH HUB
your best business, our companies

# Cleantech Forum Europe 2012

Euskal partaidetza enpresa- eta inbertsio foro horretan (416 bertaratu / 258 erakunde / 35 herrialde), honako ekintzen bitartez:

- Euskal exekutiboen panela "Energia efiziente eta garbiari buruz" (Iberdrola, Gamesa eta Sener), "Mugikortasuna Jasangarria" (Automotive Intelligence Center) eta "Ekodiseinua Ekipamenduetan" (Mondragon Korporazioa), Innobasquek moderatua
- Stand Cleantech Hub 7 Eteen eta beuskal start-up teknologikoen presentziarekin : EHE, Orkli, Fagor Ederlan, A&B Laborategiak, Zigor Korporazioa, Urban Intelligent, Optimitive eta Wattio
- Mundu guztiko 15 enpresarekin ekintzaileen aurkezpena eta 2 euskal enpresaren presentzia (Bidatek eta HBiO) haren hazkuntza globalerako inbertsioa bilatzeko helburuarekin
- Euskal korporazio inbertitzaile handien topaketak (Iberdrola eta Gamesa) nazioarteko ekintzaileekin proiektu berritzaile erakargarriak lehen eskutik ezagutu eta atzemateko
- Josean Alijaren, Bilboko Guggenheim Museoko Nerua jatetxeko (Michelin izar 1) chefaren erakustaldi gastronomikoa, bere diseinu gastronomikoan ingurumenarekiko zaintzarekin zerikusia duen berrikuntza kokatzeko
- Euskal enpresen katalogoa




Honako emaitza hauekin:

- Southern Europe's Cleantech Hub-en kokamendua: 100 inpaktu medioetan (prentsa idatzia eta digitala, TV eta irratia nazioarte-, estatu- eta toki-mailan) eta "*All together now – the case of the cleantech hub in the Basque Country*" artikuluaren argitalpena Cleantech Group-en plataforma globalean (50.000 bazkide)
- 70 inbertsio-korporazio eta -erakunde izan ziren exekutiboen panelean
- Ia 1.000 ale banatu ziren euskal enpresen katalogoarenak (paperean edo deskarga bezala Innobasqueren webean), bai nazioartean (Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Portugal, Estatu Batuak eta Kanada), bai nazioan
- Nazioarteko inbertitzaile eta korporazioekiko kontaktua, haien merkatu bereziaren joerak ezagutzea (produktua eta inbertsioa) eta kokaera lehiakor konparatiboa, nazioarteko ekintzaileekiko kontaktuak eta joeren ezagutza [Munich - Alemania, 2012ko apirilak 16-18]





# ERAIKUNTZA JASANGARRIA

- EAEko Eraikuntza Jasangarriaren balio-kateko eragileen gaitasun-analisirako inkesta argitaratu da

- Berrikuntza Funtsaren eskaria egin zaio Eraikuntza Jasangarrirako Berrikuntza Dinamika garatzeko.

- Eraikuntza Jasangarrirako Berrikuntza Dinamikaren aurkezpena ERRIN erregio berritzaileen europar sarean, eta lan-talde bat eratzea 10 erregioren lankidetzarekin honako hauek nabarmentzen direlarik: North Finland, West Finland, South Denmark edo Eindhoven. Lan-talde honen lehen topaketa Bruselako Euskadiren Ordezkaritzan egin zen [2012ko maiatzak 18]

- Euskadiko Eraikuntza Jasangarriaren Berrikuntza Dinamikaren Batzorde Aholkularia diseinatu eta abiaraztea, sektoreko erakunde garrantzitsuek osatua: enpresa eraikitzaileak, erakunde finantzarioak, fabrikatzaileak, utilities, teknologia-zentroak, elkargoak eta elkarteak. Erakundeak: Ascobi, BBVA, Arkitekto Laguntzaileen Elkargoa, Arkitektoen Euskal-Nafar Elkargoa, Ekonor, Eurima, Matía Fundazioa, Iberdrola, IK4, Kutxabank, Mondragon Korporazioa, Sarkis Lagunketa, Sukia, Tecnalia eta Teusa

- Lankidetza teknikoa prestatze- eta birkualifikatze-Planean Eraikuntza Jasangarriaren barrutiko enplegagarritasuna hobetzeko (bigaitzeari lehentasun nabaria emanez). Euskadiko etxebizitzaren aldeko itun soziala, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila*, 78 gizarte-eragile, profesional eta ekonomikoekin elkartzearen emaitza, etapa berri bati ekitea beharrezko jotzen du, eraikuntza-sektorean eraikinak eta etxebizitzak birgaitzea beren gain hartuz, Euskal etxebizitzaren politikako ardatz zentral bezala.
Haren tresna nagusia, Eraikinak birgaitu eta Hiria birsortzeko Plan Estrategikoa 2010-2014k jarduketak era integralean egitearen beharra gauzatzen du eraikin osoaren baitan, hura balioa jartzeko helburuarekin, haren bizitza baliagarria luzatzeko eta energia-efizientzia, bizigarritasun eta irisgarritasun homologatuzko baldintzaz hornitzeko oin berriko eraikinekin eta beste jarduketa batzuekin
Bestalde, Enpleguaren Euskal Estrategia 2011-2014ren proposamenak helmuga bat du: tresna bakar batean enplegagarritasunaren politika integratuko elementu kritiko guztiak txertatzea. Hartara, haren helburuen artean biztanleriaren jarduera gehitzearen orokorra gailentzen da, enplegu egonkor eta kalitatekoaren bitartez, produktibitatea hobetuz, lan-merkatu ireki eta jasangarri batean, aukera-berdintasunean, gizarte- eta lurralde-kohesioan oinarriturik.
Ildo horretatik, Innobasquetik Etxebizitza, Enplegua eta Gizarte Gaietako Saila, Lanbide eta Ihoberekiko lankidetzan ekintza prestatzaile espezifikoen katalogo bat diseinatu da eraikuntza-sektoreko behar

* Nazio Batuen Saria Zerbitzu Publikoari (UNPASA) "Etxebizitzan iritzi guztiak dira baliagarriak" .

# Innobasque kasuak: Eko-berrikuntzako azterlanak Euskadin

> "Hondakinen kudeaketaren eredu berritzaile baten sor-kidetza Euskadin" CIE Automotive, FCC-Ekonor eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritzarekin burututako kasuaren amaiera

> Prestatze-bideak honako kasu hauek: "Liderrekin berri-kidetzan geroko sare elektrikoak gauzatzeko", A&B Laborategiak "Produktu kimikoen negozioa eraldatzeko bioteknologiak ezartzea", FAGOR "Ekodiseinuaren arrakasta kontsumo-ondasunetan" eta IDOM "Eraikuntza Jasangarria"

> "Ekoberrikuntzaren inpaktu ekonomikoa Euskadin" Txostena EHUak eta BC3k landua

horri erantzuna ematea ahalbidetzen duena, birgaitze jasangarriaren barrutirantz orientatuz prestakuntzari eta kontratazioari ere bai irailean argitaratuko dela espero den laguntza-agindu batean sartzeko

- Euskadiko Eraikuntza Jasangarriaren Ibilbide Orria: Bultzatu 2025 amaitzea, eta haren kontraste-jardunaldi bat egitea enpresa-stakeholder nagusiekin [2012ko ekainak 8]

- Inbertsioen Europar Bankuaren ELENA programari finantzazio-eskaria jabeen erkidegoei laguntza teknikoko zerbitzu bat sortzeko eraikinen birgaitze-obrak diseinatzen eta egikaritzen aholkua emateko




## ALBISTE IZANGO DA

- Cleantech Open-en I. European Investor Connect, Opinno, Arabako Teknologia Parkea eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin [Vitoria-Gasteiz - 2012ko urriak 18 eta 19]
- Cleantech Open Spain lehiaketa, Opinno eta Sodenarekin [Iruñea-2012ko irailak 28]
- "Hondakinen kudeaketaren eredu berritzaile baten sor-kidetza Euskadin" kasuaren argitalpena
- EROSKI, ZIV eta IDOM kasuen amaiera [2012ko iraila]
- Eko-berrikuntzako Aditu Batzordearen 5º Saioa [2012ko iraila]
- "Southern Europe's Cleantech Hub" lan-taldeak eratzea eta haien lehen topaketa [2012ko uztaila-iraila]
- Bultzatu 2025: Eraikuntza Jasangarriko Ibilbide Orriko jarduketak abiarazteko [2012ko uztailak 11]
- Aholkularitza-taldeak aktibatzea Bilbo hirirako lehentasunezko proiektu berritzaileak abian jartzeko (energia, gune publikoa eta zarata)

## EMAITZAK

- "EAEko Eraikuntza Jasangarriaren balio-kateko eragileen gaitasun-analisirako" inkestaren argitalpena
- 1,3M€ Eraikuntza Jasangarrirako Berrikuntza Dinamika garatzeko
- Ekintza Plana2012-2013 abiaraztea "Southern Europe's Cleantech Hub-erako" [2012ko maiatza]
- Hurrengo Cleantech Forum Europe 2013 egiteko egoitza bezala izendatu dute Euskadi

# Gizarte Efiosasungarria eta Bizi Kalitatea Dinamika

Ekintza aldi berekoa eta koordinatua 4 jarduketa-barrutitan (elikadura eta bizi-ohiturak, zahartze aktiboa eta osasungarria, kronikotasuna, eta teknologia sanitarioak) osasunaren balio-konstelazio gehiena aktibatzen duena, eta 3 helburu lortzeko era esanguratsuan aurrera egitea ahalbidetzen duena:

- gehiago eta hobeto bizi
- balio ekonomikoa eragin ingurunean
- sistema sozio-sanitarioaren jasangarritasunari lagundu

## INNOBASQUEREN EGINKIZUNA

- Inguruneak sustatzea, non erakunde publiko eta pribatuek, pertsonek eta erkidegoek, lankidetzan jardungo duten elkarrekin ekimen berritzaileak definitu, garatu eta ezartzen
- Mugen artean eta haietan zehar lan egitea osasunaren balio-konstelazioa eratzen duten eragile desberdinen artean
- Ikuspegi desberdinak dituzten eragileen artean lankidetza sustatzea, negozio eta fokatze ideia berriak atzeman eta abian jartzeko




## ELIKADURA ETA BIZI-OHITURAK

Elikadura-barrutiari bi ikuspegitatik ekiten zaio:

- Gosasun Gizarte osasuntsu baterako elikadura: **Gosasun**
- Herrialde osasuntsu baterako elikadura: **Katilu**

### Gosasun

Mugimendu sozio-ekonomikoa bizi-ohitura osasungarriagoak sustatzeko pertsonen eta inguruneen aldetik. Ohitura osasungarriak, ez elikaduran bakarrik, baizik eta jarduera fisikoan eta osasun emozionalean, hiru barrutietako jarduketa orekatuak osasunean duen inpaktuarengatik.

- Gosasun zigilua abiaraztea, ohitura osasungarriak sustatzeko praktikak aitortzen dituena eta Getxo Kirolak-en (Getxoko Udala) jarduera bati dagoeneko esleitu zaiona
- Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldearekin lankidetza-hitzarmena, zeinen bitartez Gosasunen eskura ezartzen baitu "Diet on Health" zerbitzua elikatze-, jarduera fisikoko eta pertsonen emozioen kudeaketa-ohiturak aldatzen laguntzeko, MPower haren programaren esparruan. Zerbitzu hori Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldeak diseinaturik dago, beste enpresa batzuekin elkarlanean (Athlon, B2B, Eslite-Alecop, Ibime, Ikerlan, Mondragon Unibertsitatea, Xupera,...) Zahartze-barrutiarekiko lerroan, abiarazitako lehen proiektuak 55 eta 75 urte bitarteko pertsonak ditu fokutzat, izan ere adin horretan garrantzi berezia baitu bizi-ohitura osasungarriak izateak Zahartze Aktiboaren Liburu Zuriaren ondorioetatik eratortzen denez, zeinek baieztatzen baitu "gaixotasun guztien %40 eta 70 bitartekoak zati batean edo osoki prebenigarriak direla arrisku eta prebentzio-faktoreen estiloan, erabileran eta kontrolean aldaketak eginez". Proiektuak 60 pertsonaren partaidetza du, bi aldetan banaturik, bata Bilbon eta bestea Enkarterrietako eskualdean
- Dagoeneko 32 eragile publiko eta pribatu atxiki zaizkio Gosasun mugimenduari.

GOSASUN

katilu



Helburua honako hau da: eragile horiek burutzen dituzten ohituren sustatze-jarduerak ezagutzea, haiek hedatzea, praktika onak ateratzea, barreiatzea eta sustatze-jarduera berriak eragitea. Atxikitako eragileak: Acambi, Adegi, Aisiatek, AKTIBILI, Landa Garapeneko Elkartea Enkarterrialde, ASVASAM, Athlon, Avento Aholkularitza, Gasteizko Udala, Azaro Fundazioa, Azti Tecnalia, Basque Culinary Center, Bosko Taldea, La Merced Osasun Zentria, Club Tximeleta, Elikadura Klusterra, El Regato Ikastetxea, Eroski, Frutas Dioni, Etorkintza Fundazioa, Gastronomia eta Opariak, Getxo Kirolak, Goiztiri, Gozogintza Konfiteriako Artisauen Bizkaiko Gremioa, Fagor Etxetresna Elektrikoen Taldea, Itsasmendikoi, Leartiker, Naturelle, Neiker Tecnalia, Okelbiz, Orekan Bizi, Miguel Ángel Psikologia Klinikoa eta Tecnalia

- Euskadiz kanpo burututako osasuna sustatzeko praktiken benchmarking-a. Ildo horretatik, 2012ko lehen hiruhilekoan Valentin Fusterren gidaritzapeko SHE (Science, Health and Education), Fundazioarekin kontaktua egin da, lankidetza-bideak ezartzeko.
- Openideiak-en gune bat sortu da Gosasun mugimenduaren inguruan www.openideiak.com



## 2013-2020 Osasun Plana

Innobasqueparte hartzen ari da Eusko Jaurlaritzako Osasuna eta Kontsumo Sailaren 2013-2020 Osasun Plana definitzen.



### Osasunaren kudeaketa erakundeetan

Ekimen berri honek aldaketak sartu nahi ditu pertsonen inguruneetan, zeinen bitartez osasunaren kudeaketa sistematiko bat fokapena proposatzen baitzaie erakundeei sustatze-ikuspegi batetik, zeinek lortuko baitu, ez bakarrik enplegatuen eta haien familien Osasuna hobetzea baizik eta horrek eragina izan dezala enpresan ere haien produktibitatea hobetuz.

- Osalanekiko hitzarmena gai hau bultzatu eta zenbait proiektu pilotu garatzeko euskal enpresetan
- Innobasqueren Astearte "Osasunaren kudeaketa, abantaila lehiakorra erakundeentzat", zeinek konbinatu baitzuen esparru teoriko baten aurkezpena Karolinska Health Management-en aldetik (europar erreferente bat da erakundeetako osasuna kudeatzen), kasu praktikoekin eta partaidetzako saio batekin
- Barne-laneko talde bat abian jartzea Innobasquek barruti horretan bere gain hartuko dituen konpromisoak definitzeko




## Katilu

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2015 Planaren barruan, Katilu berrikuntza dinamikarako euskarri-tresna bezala hartzen da nekazaritza eta elikadura, landa-ingurune eta itsasbazter-sektorerako.

Joan den otsailaren 6an haren aginte-organoak eratu zirelarik, zeinetan parte hartzen baitute Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, nekazaritza eta Arrantza Sailek, Hazik, Neikerrek Aztik eta Innobasquek honako 2012 jarduketa-planeko ekintza hauek garatu dira:

- Katilu weba (www.katilu.net) diseinatu eta garatzea
- Katilu Box diseinatu eta abiaraztea, sektorean eta sektorerako berrikuntzako ezagutza-kutxa, eta hura garatzeko ekipoaren konfigurazioa
- Sektoreko eragile gakoekin topaketak Katilu erkidegoaren oinarri bezala
- Neikerrek bultzaturik Foodlinks bezalako proiektuetako prozesu parte-hartzaileen diseinuari laguntzea eta hura aberastea, konexio-lantegi bat egin zelarik sektoreko 40 eragile baino gehiagoren partaidetzarekin [2012ko urtarrilak 17]
- "Nekazaritza Agenda Digitala" bezalako ekipoak dinamizatzea gaitasun digitalen programen esperientzia pilotua Arabako lurraldean garatu baitu
- Katiluren aurkezpen ofiziala "Berrikuntzaren emozioa lankidetzaren emozioa da" jardunaldian, 110 pertsonaren partaidetzarekin [2012ko maiatzak 17]
- Nekazaritza eta Elikaduraren Berrikuntza Foroaren idazkaritza teknikoa bere gain hartzea berrikuntza lankidetzan lantzeko intereseko gaiak identifikatzeko asmoarekin
- Lantze-bidean da ondasun erkideen kudeaketari buruzko azterlan bat Euskadiko landa-ingurunean

## KRONIKOTASUNA

Euskadin kronikotasunaren erronkari ekiteko Estrategiarekiko lerroan, Innobasquek proiektuak garatzen ditu "Pazientearen erantzukizun eta autonomia" politikaren "Paziente aktibatu eta konektatuen sarearen" atal bezala.

- Kroneten aurkezpen ofiziala eta dagoeneko 837 pertsonak darabilten plataformaren irekiera [2012ko apirilak 23]
- Paziente kroniko, haien senideen eta zaintzaileen eskura jarritako plataformen erabileraren optimizazioa (kronikoen sarea-Kronet eta plataformak eta elkarteen wewak)
- "Kronet, to be a patient my way" poster batekiko partaidetza International Health Technology Assessment-en Kongresuan ("HTA in Integrated Care for a Patient Centered System") [2012ko ekainak 23-27]

## ZAHARTZEA

Barruti horretan ebakiduretan ari gara lanean: "elikadura eta ohitura osasungarriak" eta "teknologia sanitarioak" gaiekin

Zahartzearen eta Teknologia Sanitarioen barrutian, Innobasque lankide da Bizi Kalitatea bermatzeko Konponbideen Klusterrean, Donostia Sustapena lider duela Merkatuaren Zaintza-mahaian, gaur egun ekintza-plana lantzen ari delarik.



# TEKNOLOGIA SANITARIOEN SEKTORE GARAPENA



Teknologia sanitarioen sektorearen garapenari laguntzeko, sektore "tradizionaletako" enpresen desberdintzetik eta enpresa berriak sortzetik, Innobasquek fokatze global bat definitu du, zeinean lehen fase batean egoeraren diagnosi bat egin baita eragileen mapa eta herrialde-eskuduntzen ezaugarritzeena egitearen bitartez, herrialdeak barruti horretan dituen apustuak identifikatzen jarraitzeko, zeinek emango baitute aukera lankidetzan aritzeko aukera zehatzei buruz.

- berrikuntza-sistemako 7 eragileak teknologia sanitarioen sektoreko eragileen mapa erabiltzen ari dira, edo proiektu propioetarako oinarri bezala
- Innobasque, Bioef, Osteba eta Bizkaiko teknologia Parkearekin batera, lanean ari da produktu eta zerbitzu sanitarioen garatze-prozesua definitzen eta haien merkaturazten, bai eta eragile desberdinak identifikatzen ere, zeinek eskaintzen baitute zerbitzua aipaturiko prozesuaren barruan hura sistematizatzeko, eraginkorrago bihurtu eta sektore sanitarioaren, industriaren eta pazienteen beharrak hurbiltzeko. Proiektu hau eragile pribatuekin kontrastatu da (Tecnalia, IK4, Mondragon Health, IMQ, Gaia) eta publikoekin (Eusko Jaurlaritzako Osasuna eta Kontsumo Sailarekin eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin)
- Goierriko eskualdeko garapen-agentzia (GOIEKI) eskualdeko teknologien identifikatzea burutu du eta enpresa nagusiekiko duten atxikimendua, desberdintze posiblerako oinarri bezala. Bestalde, Azaro Fundazioak ariketa bera egin du Lea-Artibai eskualderako, teknologia sanitarioen sektorerantz desberdintzeko interes erreala duten enpresa talde bat identifikatzera iritsi delarik
- Akitania-Euskadi Lankidetzako Funts Erkidearen deialdira proiektu-proposamen baten aurkezpena, teknologia sanitarioekin zerikusia duten produktuak eta zerbitzuak garatzeko sare bat sortzeko: Bioef, Bizkaiko Teknologia Parkea, IkerConsulting European & Regional Innovation, SL, Centre Hospitalier Universitaire de Bordeaux eta Adour Compétitivité
- Sektore horretarantz Israelen desberdintze-kasu arrakastatsuaren analisiari ekin zaio, eta herrialde horrekin kontaktuak ezarri dira

## EMAITZAK

- Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldearekin hitzarmena eta adineko pertsonengan ohitura osasungarrien proiektu pilotua abiaraztea.
- Gosasun lehen zigilua Getxo Kirolak-i
- 32 eragile Gosasuni atxikiak
- Indarguneak identifikatzea teknologietan Goierri eta Lea-Artibaiko eskualdeetan
- Kroneten aurkezpen publikoa eta plataforma irekitzea [2012ko apirilak 23]
- Aginte-organoak eratu eta Katiluren aurkezpen ofiziala [2012ko maiatzak 17]
- Argitalpena eta Innobasqueren Asteartea "Osasunaren kudeaketa, abantaila lehiakorra erakundeentzat" [2012ko maiatzak 29]
- "Kronet, to be a patient my way" eta "Developing the Health Technology sector in The Basque Country" posterren aurkezpena, Health Technology Assessment (HTA) urteko nazioarteko topaketan [2012ko ekainak 23- 27]

## ALBISTE IZANGO DA

- Bigarren pilotua Fagor Etxetresna Elektrikoak taldearekin, haur eta gazteengan ohitura osasungarriak izateari buruz [2012ko urria]
- Gosasun-en bloga abiaraztea
- Proiektu berriak identifikatzea Eusko Jaurlaritzako Osasuna eta Kontsumo Sailaren "Euskadin kronikotasunaren erronkari ekiteko estrategia" ezartzen laguntzeko
- Oslanekin hitzarmena [2012ko uztaila]
- Hitzarmena Osasuna eta Gizarte Ongizatearen Europar Institutua, Espainiako OMEren zentro lankidea [2012ko uztaila]
- Lan Ingurune Osasungarrietako proiektu pilotuak [2012ko uztaila]
- Paziente, Berrikuntza eta Teknologien Europar Kongresua [2012ko azaroa]
- Ondasun erkideen kudeaketari buruzko azterlana Euskadiko landa-ingurunean

# Enpresak Azeleratzea Dinamika

Dinamika hau espezializazio-lerro bat bezala sortzen da Innobasquek bere jaiotzatik ekintzailetzaren barrutian garatuak zituen jarduketetatik, hazkuntza handiko enpresen garapena bultzatuz, aberastasuna eta enplegua sortzen ekarpen garrantzitsua egiten zutelako. Ideia hau da: Innobasque proiektua eratzen duen kapital soziala balioan jartzea inpaktu handiko enpresa-ekimen berrien bulkadarekin.



## ABIAN DAUDEN PROIEKTUEN EGOERA

### I. Faseko enpresak: azeleratze-prozesua

- **Hib- S*Concept:** Soliker, eguzki-energia termikoaren eremuan gama altuko produktuak eta konponbideak fabrikatu eta merkaturazten dituen enpresarekin hitzarmen bat sinatu da. Negoziatze-bidean hitzarmen bat Burdinola, laborategi-altzariak diseinatu, fabrikatu eta merkaturatzen dituen enpresarekin
  Halaber, negozio-plan berria amaitu da, 10 aldiz enpresaren fakturazioa biderkatzea ekarriko duena
- **Virtualware:** eragile batekin baino gehiagorekin alde biko topaketak burutzeaz gainera, hala nola Fagor Etxetresna Elektrikoak eta Arkauti Akademiarekin plan estrategiko bat lantzeari ekin zaio, nazioarteko merkatu berriak bilatzeari lehentasuna emango diona eta Virtualware EIPG bihurtzea lortuko duena

### Kontraste-taldeak baliozkotutako enpresak

- **Gese:** lehen topaketa bere kontraste-taldearekin. Gesek inbertsioak sustatzen ditu, zerbitzuetako industria-enpresen energia-efizientzian, energia-aurrezkia energia-zerbitzuko enpresa (EZE) bihurtzen duten konponbide teknologikoak integratuz, kaudimen eta errentagarritasun kontrastatuarekin
- **Unicorp:** irabazi-asmorik gabeko elkarte bat enpresaren helburuari atxikia sortu ondoren, ekimena Bizkaiko Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, Spriri eta enpresaburu-talde bati aurkeztu zaie
- **Kera-Coat:** Aurrera doaz eragile zenbaitekiko alde biko kontaktuak, produktu bat baino gehiago industrializatze-prozesuan daudelarik.
  Gainera, Kera-Coatek kontraste-talde bat sortzea faboratu du itsas korrosioaren barrutian, Energia Klusterra lider dela, eta bertan 15 erakundek parte hartzen dute korrosio-fenomenoen aurrean itsas ingurunean energia-instalazio industrialetako material eta osagaien portaera hobetzeko helburuarekin. Horretarako, proiektu bat garatuko da barruti horretan.
  Tubocoat eratuko da, Tubacex eta Kera-Coat bat-egitearen fruitua, finantzazioa bilatze-prozesuan dagoena
- **Amicyf:** 3 jardunaldiren antolaera honako barruti hauetan: energiaren erosketa taldekatua, EZE proiektuak finantzatzea eta energia-zerbitzuen eskaintza publikoko kontratuen klausula multzoaren analisia

### Prozesuaren hasiera-fasean dauden enpresak

10 enpresa berrirekin kontaktuak Enpresen Azeleratzailean sartuko diren ala ez aztertzeko: Gestionet, Ekiona, Avan Group, Indargenia, Hermeneus, Vas hecha un cuadro, Muxote Potolo Bat, Ekiona, HBio eta Gestionet.

## EMAITZAK

- "La (R)evolución de los nuevos negocios. Variaciones del emprendimiento. La experiencia de Innobasque" artikulua, "Estudios Económicos de Deusto" buletinerako [2012ko urtarrila]
- Hib- S*Concept-en negozio-plana

## ALBISTE IZANGO DA

- Gese enpresa-azeleratzailean sartuko da
- Dokudea eta Minirobots kontraste-taldeen lehen topaketa
- Barne-ekintzailetzari buruzko azterlana Progenika Biopharma, Ormazabal, Sener, Grupo TTT, Vicomtech, Batz, Ikusi, Lanik eta Abantailek landua
- Sustainable Labs Summit Bilbao Global Sustainable Laboratory Network-ekoa (GSLN), Fundación Maitek antolatua [2012ko azaroa]

# Laugarren Sektorea Dinamika

Dinamika eraldatzaile honen helburua erronka sozial gaurko eta gerokoei aurre egiteko aukera emango duten eredu, balio, ideia, ekimen eta negozio berritzaileak aztertu, bultzatu eta garatzea da, eta horrek guztiak gizartearen garapen sozial, ekonomiko eta ingurumeneko jasangarriaren onerako izan dadila irekia, solidarioa, berritzailea eta jasangarria izan dadin.

## Zer da Laugarren Sektorea

Laugarren Sektorea hibrido bat da sektore publiko, pribatu eta hirugarren sektorearen artean, zeinek aurre egiten baitie erronka sozial konplexuei, negozioetakoak diren praktika propioak asmo sozial bati aplikatuz. Laugarren Sektoreko erakundeek elementuak partekatzen dituzte sektore pribatuarekin, zeren eta emaitza-kontu batekin funtzionatzen baitute eta jarduera ekonomiko baten bitartez lortzen dituzte beren baliabideak. Barruti publikoaren antza dute, zeren behar sozial bat asetzen laguntzen baitute eta hirugarren sektorearekin haren xede soziala partekatzen dute.

Ikuspegi horretatik, balio soziala balio lehiakor bezala agertzen da, aberastasuna eta enplegua sortzeko gai dena, gizarte barne-hartzailea sortuz. Innobasque Laugarren Sektorean ari da lanean egituratzen duten lau ardatzak azpimarratuz:

- Ekintzailetza soziala
- Enpresa-erantzukizun soziala
- Negozio barne-hartzaileen nazioartekotzea Piramidearen Oinarrian
- Finantza sozialak

## Laugarren Sektorea Partzuergoa

Laugarren Sektorearen nazioarteko Mintegiaren esparruan, Euskadiko Laugarren Sektorearen Partzuergoa eratu zen, xede sozialekin ekonomia sustatzen duen negozioak egiteko modu berritzaile bat sustatu eta garatzeko asmoarekin.

21 enpresak eta erakunde publikok eta pribatuk eszenaratu zuten jendaurrean Partzuergoarekiko atxikimendua: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sozialeko eta EESaren Zuzendaritza; Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Saila, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, MIK, Koopera, Lantegi Batuak, Sinnple, The Rights Factory, Agintzari Koop. E., Zerbitzu Sozial Integratuak, Gureak, Amasté, Emaus, INIT, Eutokia, Deloitte, Bae Koop. E., San Prudencio Lan Fundazioa, LKS, Konfekoop eta ASLE. [2012ko otsailak 28]

## Laugarren Sektorea Azterlana

"Laugarren Sektorea Euskadin" argitalpenaren aurkezpena, Innobasquek sustaturiko azterlanaren emaitzak jasotzen dituena eta hiru euskal unibertsitateetako (UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) ikertzaile-ekipo baten landu duena, zeinean Laugarren Sektoreak Euskadin duen egoerari ekiten zaion, 17 kasu eta 20 elkarrizketaren azterketa oinarritzat harturik.

Azterlanaren xedea Laugarren Sektorearen diagnosi bat egitea da, gure lurraldeko gaurko ekonomian suposatzen duen dimentsioa eta pisu erlatiboa erakutsiko dituena.

Partzuergora atxikitzeko eta/edo informazioa gehitzeko: 4thsector@innobasque.com

## Nazioarteko konexioak: Laugarren Sektoreak EEBBetan duen esperientzia

Heerad Sabeti, Fourth Sector Network-en arduraduna eta Laugarren Sektorea teorizatzen duen Aspen Instituteren Txostenaren egilekidea Innobasquen bildu zen Euskadin Laugarren Sektorearen inguruan lanean ari diren eragile-sarearekin. Topaketa horretan, Sabetik diagnosi bat egin zuen Laugarren Sektoreak bere herrialdean, Estatu Batuetan duen egoeraz, non aurkezten baita estrategia berri bat bezala garapen ekonomikorako eta enplegua sortzeko, ekonomia jasangarri eta barne-hartzaile bati bide emango diona [2012ko maiatzak 29]



# EKINTZAILETZA SOZIALA

## Momentum Project

Innobasquek Kooperan Momentum Projecten bigarren edizioa aurkeztu zuen, proiektu horren xedea ekintzaile sozialei laguntza ematea delarik, finantzazio-, prestakuntza-, aholkularitza- eta mentorizatze-eran, enpresa horiek beren inpaktua hazi eta gehitu dezaten.

Ekimen hau, BBVAk eta ESADE negozio-eskolak bultzatua, PwC Fundazioaren lankidetzarekin, joan den urtean 3 milioi euroko hornidura bat izan zuen zazpi enpresa-proiektu finantzatu zituzten mailegu hobaridunen bitartez

2012ko edizioan, 97 hautagaitza aurkeztu ziren, eta haien artean hautatu dira finantzatuko diren 10 proiektuak, haietako bat Euskal Herrikoa delarik: Txita Txirrindak. [2012ko urtarrilak 23]

Lehen aldiz hautatu du Momentum Project-ek **euskal proiektu** bat: **Txita Txirrindak**. Ekimen hori 2006an Donostian sortu zen merkantzien banaketarako hiri-ingurunera egokitutako sistema jasangarri bat sortzeko, bitartekoa (ibilgailu-trizikloak) eta garraio-kostuak gutxitzeko aritzeko era berrituz.




## Open Space: Nola berritu ekintzailetza soziala?

Lan-jardunaldi honetan-Eutokia Berrikuntza Sozialeko Zentroan egin zen- i-Taldeko kideak eta beste euskal eragile batzuk, gune desberdinetatik egunean-egunean barruti horretan lan egiten dutenak, beren ikuspuntu lerrokatu eta partekatzeko elkartu ziren, bai eta Euskadiko enpresa sozialak sortu eta sendotuko dituzten itxaropenen inguruan eztabaidatzeko ere.

Topaketa, gainera, I-Taldearen hurrengo lan-planaz gogoeta egin eta hura prestatzeko gune ere izan zen, etapa berri bati ekiteko aukera emango duena, zeinek Europar Batzordearen arestiko jakinarazpenaren arabera sareko ekosistema bat definituko baita Euskadiko ekintzailetza sozialari laguntzeko.

Hartarako, Innobasqueko laugarren Sektorea dinamikan lantzen ari diren ardatzekiko lerroan, jardunaldia 4 barrutitan fokatu zen:

- Ekintzailetza soziala aldaketa sozialaren zerbitzura eta interes orokor prokomunera irekitako berrikuntza bezala
- Enpresa-eredu eta -praktikak EESetik ekintzailetza sozialeraino
- Ekintzailetza sozialaren nazioartekotzea
- Ekintzailetza sozialaren finantzaketa [2012ko martxoak 22]

# ENPRESA ERANTZUKIZUN SOZIALA

## EES-ETEE ekimena

Innobasquek lankidetza-hitzarmen bat sinatu du EES-ETEE ekimenaren erakunde adiskide bezala, zeina jarri baitu abian Kreditu Ofizialeko Institutuak eta Mundu Itunaren Sare Espainiarrak, enpresa txiki eta ertainetan Enpresa Erantzukizun Sozialaren kudeaketarako prozeduren eta tresnen garapena eta ezarpena sustatzeko, hartara, haien eguneroko kudeaketan EESa txertatzea erraztuz

Ildo horretatik, joan den ekainean 250 langile baino gutxiagoko hogeiren bat erakundek EES-Etee prestakuntza-saio batean parte hartu zuten Enpresa Erantzukizun Soziala (EES) ezartzen eta jasangarritasun-memoria bat lantzen hasteko borondatezko konpromisoarekin [Bilbo - 2012ko ekainak 7]



# FINANTZA SOZIALAK

## Mikrofinantzen Espainiar Plataformaren Aurkezpena

Caja Laboralaren Gaztempresa Fundazioak eta Nantik Lum Fundazioak, Eusko Jaurlaritzako Enplegua eta Gizarte Gaietako Sailarekin lankidetzan, Lanbidek eta Innobasquek Mikrofinantzen Espainiar Plataforma aurkeztu zuten (MEP) Bilbon mikrokredituekin edo bermerik gabeko maileguekin lanean ari diren erakundeen eta ekintzaileen aurrean.

MEP online plataforma aitzindaria da, Natik Lum Fundazioak garatua, ICO Fundazioaren laguntzarekin, zeinek zentralizatzen baititu Estatuko mikrofinantzen sektoreari buruzko informazioa eta baliabide guztiak (mikrokreditua bermatzeko erakunde sozialak, erakunde mikrofinantzarioak, erakunde finantzarioak, erakunde publikoak, erakunde akademikoak, komunikabideak eta ekintzaileak) eta honetarako aukera ematen du:

- Mikrofinantzei buruzko informazioa plataforma teknologiko bakar batean zentralizatzea
- Sareko lana hobetzea
- Erakundeak mikroekintzaileekin konektatzea, haiek irispidea izan dezaten aholkularitza eta finantzazioko zerbitzu eskuragarri guztietara
- Sektoreko ekimen berritzaile guztiak hedatzea eta azken albisteen eta gertaldien berri ematea [2012ko apirilak 25]

Innobasquek konpromisoa sinatu du "The Global Compact"eko 10 printzipioekin giza eskubide, lan-arau, ingurumenaren babesa eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruz Nazio Batuetako Idazkari Nagusiari zuzendutako gutun batean, 2012ko otsailean.

## EMAITZAK

- Momentum Project, ekintzailetza sozialaren finantzazio-tresnaren aurkezpena [Koopera, Bilbo -2012ko urtarrilak 23]
- 4º Sektoreko Nazioarteko Mintegia [2012ko otsailak 28]
- Laugarren Sektoreko Partzuergoa Euskadin eratzea [2012ko otsailak 28]
- "Euskadiko Laugarren Sektorea" azterlanaren aurkezpena [2012ko otsailak 28]
- Open Space Euskadiko Ekintzailetza Sozialari buruz [2012ko martxoak 22]
- Mikrofinantzen Espainiar Plataformaren aurkezpena [Bilbo -2012ko apirilak 25]
- EES-Etee Prestakuntza-saioa, Kreditu Ofizialaren Institutuak eta Mundu Itunaren Espainiar Sareak antolatua, Innobasqueren lankidetzarekin [Bilbo - 2012ko ekainak7]

## ALBISTE IZANGO DA

- Bi europar proiektu baterako abian jartzea: SEKA ("Social Entrepreneurship: Knowledge & Advice") eta "berrikuntzen/enpresa sozialen inkubategiak"
- Hiri Euskal enpresaren nazioartekotzea piramidearen oinarrian/oinarriarekin/oinarriarentzat
- Finantza Sozialen I-Talde bat eratzea
- Finantzazio sozialeko tresna-katalogoa

# Honako hau partekatu nahi dut . . .

# Pintzelkadak Shanghai-tik

**Badira jakin beharko zenituzkeen gauza batzuk Shanghaira joateko asmoa baduzu**, zeren eta hiri hori Txina modernoaren isla bada ere, edo dagoeneko mendebaldar bihurturik dagoen geroko megapolis bat, oraindik arbasoen sineste eta ohituretan bildurik jarraitzen du. Ongi etorri herensuge handiaren herrialdera, non lurra karratua den, eta zerua biribila; sineskerien herrialdera, non 8 zenbakiak zorte ona ematen baitu eta 4k txarra; non ez dagoen yin yang gabe; non ez dagoen ogirik, arroza baizik; non ez dagoen kaferik, tea baizik; non ez dagoen mahai-tresnarik, txotxak baizik. Ongi etorri.

## Visa eta tipoak

Txinan sartu baino lehen, derrigorrezkoa da Txinako enbaxadan edo kontsulatuan bisatu bat eskuratzea herrialdera sartzeko. Bisatu mota bidaia motaren araberakoa izango da: Turismoa (L), Negozioak (F), Lana (Z), Ikasketak (X), eta beharrezko dokumentazioa ere egonaldiaren mota eta iraupenaren araberakoa izaten da. Bisatuan esaten da noiz sartu behar duzun, zenbat aldiz sar zaitezkeen eta zenbat denborakoa izan daitekeen egonaldia. Epe hori bukatu bezain laster Txinatik irtetera beharturik zaude eta beste berri bat eskatzera berriro sartu nahi baduzu. Badira Txinan bertan berritzearen hautabideak (Shanghai-ko Entry and Exit Bureau-n, Pudongen) edo Hong Kongeko txinatar enbaxadara bidaia eginez (ez baita Txinatzat hartzen, haren erregimen bereziarengatik).

## Maglev: aireportutik hiriraino

Iristen zara Shangahi-ko Pundong International Airportera...lurra hartzen duzu bidaia luze baten ondoren eta berehalaxe joan nahi duzu hotelera. Bada gogor heldu, zeren munduko jasotze magnetiko bizkorreneko tren batera igoko baitzara, orduko 430 kilometrotan, eta ordu laurden baino gutxiagoan, Shanghai-ko hirigunera iritsia izango zara, non ez baitago elkarrekiko loturarik zain dauden bi metro- eta taxi-linearekin.

## Telefono magikoa

Maglevetik irteten zara eta berehala aurkitzen zara trafiko, zarta eta usain nahas-mahas batean...noranzko berean Dhaka dirudien jendeari jarraitzen diozu eta konturatu gabe taxi batean eseri zara. Hotelaren helbidea bilatzen duzu, baina tira! Helbidea ez dago karaktere txinatarretan idatzirik...despistatuarena egiten duzu eta gidariari pasatzen diozu ulertuko duelakoan. Ez dago zorterik! Gidariak helbidea itzuli egiten dizu eta zirkinik egin gabe geratzen da. A zer egoera! Zer egin orduan? Ez kezkatu, atera mugikorra eta deitu telefono magikora: 962288. Ingelesez kontu egingo dizute eta zeure egoeraren berri eman diezaiekezu: "Can you tell the taxi driver to take me to the Hotel..., please?" "Ok. No problem. Give the phone to the driver, please". Eta kito!

## Txinatar txotxak

Jateko ordua da eta ehunka jatetxe daude herrialde, tamaina, prezio desberdinetakoak, ...kendu burutik "txinatar jatetxe" kontzeptua eta murgildu abenturan. Txotxak aurkituko dituzu mahaiaren gainean (praktikatu al duzu inoiz txotxekin?), ez da izango ur hotzik, beroa baizik...eta zorte pixa batekin ezpain-zapia izango duzu. Mahaia biribila da erretilu birakari bat erdian duena, non ezartzen diren platerak eta bakoitzak nahi duena pikatzen duen. Zapore eta ehundura guztiz arraroekin topo egingo duzu, baina merezi izan duela pentsatuko duzu.

## Guanxi eta negozio-bilkurak

Seguru asko negozio-bilkuraren bat izango duzu txinatar enpresaren batekin. Ongi etorri protokoloen eta hierarkien mundura! Labur emango dizkizuet aholku batzuk: Pazientzia (handia) izan. Zaindu zeure "guanxia" edo harreman-sarea, noizean behin txinatar kontaktua mantenduz. Ikas itzazu txineraz oinarrizko esaldi batzuk, haien kulturarekiko

Lander Unanue,
Idea hunter
Saiolan



interesa erakusteko. Ez izan tratu bat egiteko asmorik egun batean (ezta bitan ere). Ezagutzen ez zaituzten arte, ez dute egingo inolako traturik, eta hori normalean adostutakoa baino gehiago luzatzen da. Akordioa edo hitzarmena aldatu egingo dute bizpahiru aldiz azken bertsiora iritsi arte. Txartelak bi eskuez eskaini eta hartzen dira. Egiatia izan baina mesfidatia aldi berean. Azaldu eta komentatu dena, ez eman ezer aurrez ulertutzat. Kontuz ibili opariekin. Tartean toparen bat egiten bada "ganbei" esaten badute, buruzagi txinatarraren edalontziaren azpitik egin topa errespetua hari erakusteko eta trago batez hustu edalontzia... topa guztiak aguantatzeko ziur ez bazaude (seguru asko banaka batzuk izango dira), desenkusa zaitez eta ez edan bakar bat ere.

## Kuluska eta Euskal Etxea

Egun batzuetan zehar kultura txinatarrean murgildu ondoren, batzuetan ondo etortzen da dena alde batera utzi eta etxekoaz gozatzea. Bada Shanghai-n erbesteratutakoen komunitate txiki bat, asteazken arratsaldetan Kuluska tabernan bildu ohi dena. Gozamen hutsa da hara iritsi eta aho-sabai zapore ezagunez betetzea; pintxo pare bat eta kalimotxo bat hartzea Fitoren abestiren bat entzuten ari zaren bitartean eta 'huntaz eta hartaz' hitz egitea, protokoloak, txotxak, itzulpenak, ganbeiak, guanxia... alde batera utzita. Gainera, asteburu batzuetan, Shanghai-ko Euskal Etxeak era guztietako jarduerak antolatzen ditu: mus-txapelketa, patata tortilla lehiaketa, indaba-jana, Sanferminak, Korrika, inauteriak, Maritxu Kajoi,....

# Berrikuntza Sareak

Sareak elkarri eragiteko, konektibitate-guneak dira, helburu erkide batekin jaio, hazten eta garatzen direnak xede horretarantz ibili dabiltzan neurrian. Innobasque mila erakunde bazkidek eratutako sare bat da, elkarrekin konektatzean beste sare batzuk sortzen eta haietan parte hartzen dutenak, efizientzia, balio-katearen osagaien artean koordinazioa sortuz bezeroarentzat balioa eraginez. Berrikuntza eragiten duen ezagutza desberdintzaile bat sortzeko proiektuen bitartez lortzen dute, eta horrek erakundeei lehiakortasunean eragitea dakar, eta hedaduraz, dagokien sistema sozio-ekonomikoari.

### Linea irekiak

- Gipuzkoa Berritzen
- Arbela - Itaca Foroa
- Esp@ Sarea
- Adimen Emozionalaren Partzuergoa
- Zientzia Teknologia eta Berrikuntzako Sarea
- Iñaki Goenaga Teknologia Zentroen Fundazioa

## GIPUZKOA BERRITZEN

52 pertsonarekin Gipuzkoa Berritzen Gipuzkoako lurraldean berrikuntza sustatzeko pertsona-elkarte bezala eratu zen sarearen Batzar Nagusia egin zen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Innobasqueren laguntzarekin.

Une horretatik aurrera Gipuzkoa Berritzen onartutako estatutuen arabera arituko da eta zuzendaritza batzorde berria izango du, pertsona-sarearen zerbitzuan egongo da eta hari euskarria emango dio. Bilkuran argi eta garbi geratu zen ziklo berri honetan pertsonak izango direla, haien ekarpenak eta protagonisten sareko lana izango direla Gipuzkoako berrikuntzaren protagonistak

Hartara, Gipuzkoa Berritzen-ek etapa berri bati ekingo dio, zeinean garrantzia eman nahi baitio sarea indartzeari helburu duen erakundearen proiektuaren konprometitutako 300 pertsonak baino gehiagok eratzen duten sareari, berrikuntza burutzen duten pertsonen lana agerian jartzeari eta Gipuzkoako lurralderako aurreikusitako estrategia berriak burutzen laguntzeari. [2012ko ekainak 3]




## ARBELA - ITACA FOROA

Joan den abenduko hiletik hasita Itaca Foroa, Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Sustapen Ekonomikoko Sailak sustaturik, zeinen dinamizazioan Innobasquek aktiboki esku hartu baitu, Arbelaren osakide izatera igaro da, eztabaida eta ikaskuntzei sarrera emateko gune berri bati, zeinek lagunduko baitute izaera parte-hartzaileagoko enpresen antolaera-eredu bateranzko igarobide bideratzen.

Arbelak, guztira 11 enpresa-foro bere baitan biltzen dituena, zeinetan 710 pertsona baitira partaide, erkidego birtual eta presentziala da, zeinean pertsona bakoitzak, enpresa bakoitzak, antolaera bakoitzak bere lekua aurkitu baitezake eta esperientziak eta praktika onak parteka ditzake kezkatzen duenaz edo abian jartzera eramaten duenaz.

Horretarako, bi jarduera mota garatzen dira: Arbela blogeko eztabaida-foroen bitartez elkarrizketa birtualak eta topaketa presentzialak, eta horien artean seihileko honetan honako hauek dira nabarmentzekoak:

- 4 saioko antolaera eraldatzeko lantegia, 11 erakundetako ordezkariekin antolatze-modu desberdinei buruz elkarrizketan
- Enpresen esperientzia praktikoen aurkezpena hala nola Agintzari, S.Coop, Servicios de Mesa de Guernica, S.L, Grumal, Hanna Instrument, Fundación Etorkintza edo Mol Matric bezalakoena
- "Enpresa Parte-hartzaileen Txokoa" abian jartzea D. José Mª Arizmendiarrietaren Adiskideen Elkartearekin lankidetzan, zeinean hilero parte hartzen baitute enpresa desberdinetako 18 ordezkarik konfiantzan eta partaidetzan oinarritutako kudeaketa-ereduez eztabaidatu eta haietan sakontzeko
- Partaidetza-prozesuetan praktika onei buruzko azterlan bat lantzea, Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan, zeinean



jasotzen baita pertsonengan oinarritutako eraldatze-bidetik aurrera egin duten edo egiten ari diren 7 enpresaren lekukotasuna: Fundación Etorkintza, Virtualware, Artez, Lancor 2000, Walter Pack, Eder Fabrikazio Elektromekanikoak eta Inauxa. Azterlan hori "Solstiziotik solstiziora" jardunaldian aurkeztu zen, zeinean, bestalde, Arbelaren lehen 6 hilabeteetako ibilbidea egin baitzen [2012ko ekainak 22]

- Sustapen Ekonomikoko Sailaren aldetik enpresak kudeatzeko bere programen aurkezpena egin zen: Premie (kudeaketa hobetzeko), Xertatu:adi (EESa kudeatzeko), eta Bilgune (elkarrizketa- eta kudeaketa parte-hartzaileko guneak sortzeko)
- "Eraldaketako hiztegi" bat abian jartzeko sareko topaketetan sortutako gogoeta-dokumentuen gainean. Eskuragarri daude lehen 3 dokumentuak, Hobesten lankidetzarekin eginak: Autonomia", "Erabakien ez lekua" eta "Boterea"
- "Zer ari da gertatzen Arbelan?" hileroko buletina abian jartzea " eta haren 3 ale sareko 710 kideri helaraztea




## EMAITZAK

> Batzar Nagusia egitea eta Gipuzkoa Berritzen pertsona-elkarte bihurtzea

> ESPA Sarea
- 17 erakunde berri txertatu dira
- Sarearen aurkezpen ofiziala [Bilbo, 2012ko urtarrilak 31]

> Arbela
- Partaidetza-prozesuetan praktika onei buruzko azterlanaren aurkezpena, 7 enpresaren lekukotasunarekin [2012ko ekainak 22]
- "Zer ari da gertatzen Arbelan?" hileroko buletina abiaraztea

## ESP@ SAREA

Joan den urtarrilean jendaurrean aurkeztu ondoren, Innobasqueko Astearteen esparruan, ESPA Sareak ahaleginak egin ditu 17 antolaera berri bereganatzen: ADN Design, Alecop, Betean Taldea, Biometriks Innovative Solutions, Factor CO2, Grupo CEI, HAZI, Human Management Systems, ICSA Socios Consultores, IDEO Consultores, IKEI Reserch & Consultancy, MRE - Mentores en Reflexión Empresarial, Orgaus Soluciones y Teknologia, P+I Procesos e Innovación, Puntodis, Sestra Ingeniería y Arquitectura etaTrack Consultores.

Parez pare, sareak bere jarduerarekin jarraitu du sarearen beraren kudeaketa-eredua garatuz, eta bi proiektu-proposamen aurkeztuz bere kideentzako lankidetzan:

- "Laguntza teknikoko programa sektore publikoan efizientzia hobetzeko" Panaman garatzeko
- "Technology for increased access to finance" Latinamerikan garatzeko
- "Errepublika Dominikarreko enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna igoarazteko gaitasun-transferentzia"
- "Informazio Sistemaren garapena Kolonbiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako sistema nazionalerako"

Gainera, ESPA sarearen osakideek, Lanbide Zerbitzu Aurreratuen sektorea bultzatzeko bere helburuarekiko adostasunean, bere ekimena honako eragile hauei aurkeztu diete: Bilbao Metrópoli 30, Bilboko Udala, SPRI, Arabako Foru Aldundia, Garapenerako Amerika arteko Bankua, Gasteizko Udala edo The Competitive Institute.



## ALBISTE IZANGO DA

> "Aukera-kudeaketa" entregagarriaren aurkezpen-jardunaldia [GIPUZKOA BERRITZEN, 2012ko iraila]

> "Etika berrikuntzan" jardunaldia" [GIPUZKOA BERRITZEN, 2012ko iraila]

# ADIMEN EMOZIONALAREN PARTZUERGOA (AEP)

Joan den abenduaren 16an, Adimen Emozionalaren Partzuergoak osatzen duten pertsona eta antolaera guztiei irekitako gogoeta-prozesu parte-hartzaile bati ekin zion. Prozesu hori, “75 egun eraldaketarako” deitua, “AEPren eraldaketa kontzientean” bukatu zen, oinarrizko funtsaren, emozioa eta adimen emozionala mantentzetik, eta lankidetzatik berrikuntza eta etorkizun jasangarri eta osasungarri baterako gako bezala.

Eraldaketa horren emaitza planteamendu berritu bat izan da, ziklo berri bat AEParen estrategian, zeinean AEParen estrategia hirutik bost jarduera-arlotara igarotzen baita:

| Jarduera-lerroak | Jarduera-lerro honen asmoa |
|---|---|
| **L1. AEP erkidegoa** | • AEPko pertsonen eta antolaeren ezagutza eta konexioa bideratzea<br>• Innobasqueren estrategia indartzea berrikuntza eta eraldaketa bultzatzen lagunduz<br>• AEParen esparru kontzeptuala bistaratu eta aberastea |
| **L2. Ikaskuntza** | Gune berriak sortzea ikaskuntzarako, ezagutza-trukerako eta elkarri eragiteko |
| **L3. Eraldaketa-proiektuak lankidetzan** | Eraldaketa-proiektuen ekipoak aktibatzea lankidetzan proiektu berritzaileak arakatu, diseinatu eta garatzeko |
| **L4. Ikerkuntza-unitatea pertsonengan eta lankidetza** | AErekin eta barruti sozial, lan-enpresako eta hezkuntzakoekin zer ikusia duten gaietako ikerkuntza |
| **L5. Komunikazio sistemikoa** | AEParen fluxua eta komunikatzeko kanalak hobetzea |

Consorcio de Inteligencia Emocional

## L1. AEP erkidegoa

AEParen ekipo eragileak ELT (Emozioaren eta Lankidetzaren Teknologiak) kontzeptua garatu du, zeinek egiten baitie erreferentzia ezagutza, hurbiltzea eta entrenatze emozionala, garapen pertsonala, profesionala eta ingurune desberdinetako lankidetza faboratzen dituzten eta gaitasun sozio-emozionalen garapena faboratzen duten teknologia, tresna eta metodologiei.

## L2. Ikaskuntza

2 lantegi egin dira:

- Adimen Emozionalera eta maila pertsonal eta profesionalean heziketa emozionalak eta gaitasun sozio-emozionalen garapenak egiten duen baliagarritasunaren ekarpenera hurbiltzeko lantegi irekia 25 partaide [2012ko maiatzak 4]
- “Lankidetza jasangarriranzko noranzkoan” lantegia asmo bikoitzarekin: konektatzeko ezagutzea (AEParen ekipo desberdinak ezagutzea, hura osatzen duten pertsonak, eta haien helburuak) eta hobetu eta berritzeko partekatzea (esperientziak trukatzea ekipoen funtzionamendua hobetzeko) 39 partaide [2012ko ekainak 29]

## L3. Eraldaketa-proiektuak lankidetzan

- Aktivate Ekipoa: kirol-jardueraren bitartez gaitasun sozio-emozionalak garatzeko programaren lehen esperientzia pilotua burutu da, langabezia-egoeran dauden 45 urte baino gehiagoko pertsonentzat
- LED Ekipoa Empresas Delfín laborategia: bukatu da pertsonengandik egindako antolaera-eraldaketa Osakidetzaren Zerbitzu Orokorretan burutua
- “Berrikuntza Ekipoak, antolaerak garatzeko tresna” proiektua, UPV/EHUrekin lankidetzan burutua: bukatu da enpresetan esku hartzearen eta datuak biltzearen fasea, 20 ekiporen lagin batekin. Datu-analisiaren, hipotesien baliozkotzearen eta gero aurkezteko ondorioen lanketa egin da

## L4. Pertsonengan ikerkuntza eta lankidetza unitatea

Bilkura berri-emaile bat egin ondoren, bertan 18 pertsonak parte hartu zutelarik, diseinuko ekipoa eratu da, zeinen helburua honako hau baita: AEPko Pertsonengan Ikerkuntza eta Lankidetza Unitatea diseinatzeko eta garatzeko ibilbide-orriaren proposamena aurkeztea.

## L5. Komunikazio sistemikoa

- AEParen ekipoaren ekarpena “Berrikuntza, pertsonak eta partaidetza” argitalpenerako, partaidetzari buruzko ikuspen eta esperientzia desberdinei buruzko artikulu sorta bat landuz
- Katilu-n informazio gehiago. TICs&TECs lehen Barnetegia garatzen partaidetza, landa Emakumeen Batzordeak eta Katiluk bultzatua, eta Euskadi+Innovak antolatua SPRIren bitartez, HAZIrekiko lankidetzan

## EMAITZAK

- AEParen eraldatze-aurrerapenerako aberaste-lantegia, 30 pertsonaren partaidetzarekin [2012ko otsailak 17]
- AEPak dagoeneko baditu 113 antolaera eta 187 pertsona
- AEParen presentzia hazten ari da 4.302 jarraitzailerekin Facebook-en eta 574 Linkedin-en

## ALBISTE IZANGO DA

- Adimen Emozionaleko lantegi bat antolatu da Global Innovation Dayko esparruan [2012ko irailak 20]
- “AEPko Ekipoak: lankidetza jasangarriranzko noranzkoan” lantegia [2012ko irailak 28]



# TALENTUA SORTZEA EUSKADIN

Iñaki Goenaga Fundazioak, haren Giza Baliabidetako Batzordearekin batera, zeina IK4 Ikerlan, Tecnalia eta IK4 Teniker-ek eratu baitute 2012ko Beka eta Laguntza Programetan lan egin ondoren, Doktoregorako Laguntzen Programa bakarrik irekitzea erabaki zuen, haren helburua goi-mailako titulazioa duten gazteen prestakuntza bukatzea delarik doktorego-tesia ZTbESaren barruko erakunde bazkideren batean eginez.

Hartara, edizio honetan 6 zentrotan garatuko diren guztira 36 bekatarako deialdia egin da, Azti - Tecnalia, IK4 Ikerlan, Tecnalia Research&Innovation, IK4 Tekniker, CEIT, Gaiker IK4.

## EMAITZAK

- 600.000 euroko 2012ko Beka eta Laguntza Programak

## ALBISTE IZANGO DA

- Doktoregorako Laguntzen Programaren hautespen-prozesua eta pertsona onuradunak atxikitze-zentroei eranstea. [2012ko urria]
- Euraxess-Euskal Herria Zerbitzu Zentroaren 2012ko jarduera-proposamena aurkeztea mugikortasun ikertzailea sustatzeko



# SARE MAPA

**01/01/2012 – 30/06/2012   180 EGUNEKO JARDUERA**

**SEIHILEKO 5 BIDEO GORENAK**

**Garbiñe Henry**, Deustu Berrikuntza Soziala - 4.sektorea

**INNOBASQUE**: Egiten, konektatzen, berritzen

**Luis Ramos**, Idom - Lanbide Zerbitzu Aurreratuak - Innobasqueren Astearteak

**Eugenio Moliní** - Berrikuntza, pertsonak eta partaidetza

**Ana Hernández**, Guardian Express - Osasun-kudeaketa, abantaila lehiakorra erakundeentzat

**63.026** KANALAREN BIRSORTZE GUZTIZKOAK

**17.761** SEIHILEKOKO BIRSORTZEAK




**377** SARRERA

**165** IRUZKIN

**1.040** PARTEKATUAK

**2.437** ATSEGIN DUT

**4.686**
BAZKIDE

**1.038**
BAZKIDE BERRI
URTARRILETIK

**800**
EZTABAIDA
URTARRILETIK MARTXORA
(35EKO BATEZ BESTEKOA ASTEAN)

**SEIHILEKOKO EZTABAIDA JARRAITUENAK**

ENPRESETAN BALIO-EKARPENIK EGITEN EZ DUTEN PARADIGMAK, PENTSATU ETA JOKATZEKO ERAK, SINESTE ERROTUAK IDENTIFIKATU NAHI DITUGU, ZEIN EZAGUTZEN DUZU?

INGENIARITZA-ARKITEKTURA-TOPOGRAFIAKO ENPRESA BATENTZAT DOKUMENTU-KUDEAKETARAKO SOFTWAREA GARATZEN ARITZEN DEN ENPRESA BATEKIN KONTAKTUA IZAN NAHI DUGU. ESKERRIK ASKO.

ZUEN MERKATARITZA-EKIPOEK ARRAKASTA DUTELA USTE AL DUZUE?

BARRUTI SANITARIOKO BLOG INTERESGARRIAK

**TALDE-KIDEEN SOSLAIA**

Informazio-zerbitzuak eta teknologia **11%**
Eragiketen aholkularitza eta estrategia **9%**
Ikerkuntza **8%**
Marketina eta publizitatea **5%**

**1.836** TWEET IGORRIAK
**2.500** BIRTWEET
**1.225** APAIMEN
**6.148** JARRAITZAILE
**806** JARRAITZEN




**244** DOKUMENTU
**185.093** DOKUMENTU IKUSI
**3.412** DESKARGA

**SEIHILEKOKO IKUSIENAK**

**278** GOSASUN, BIZI OHITURA OSASUNGARRIAGOEN ALDEKO MUGIMENDUA
**237** FAQ. Minutu bat berrikuntzarako
**236** Prestakuntza- Minutu bat berrikuntzarako
**155** Ekonomia ekoberritzaileko dinamika
**106** Kronet kronikoen sarea

# Sozializazioa

Berrikuntza sozializatzea euskal gizartean berrikuntza-praktika hobeak hedatzen jarraitzea da Euskal berrikuntzako eragileak egiten ari dira lana ezagutu eta aitortu dadin, nola barrurantz hala kanporantz.

### Innobasqueko kanalak

- Innobasqueren Asteartеak: hileroko deialdia berrikuntzaren protagonistei foro dibulgatzaile eta irekian, euskal berrikuntza pertsona, antolaera eta komunikabideen begiradaren erdian kokatzeko
- Innoberri: Innobasqueren hileroko buletin elektronikoa
- Innobasque Hautatzaile: gaien dibulgazio-fitxa Innobasqueko aurkezpenen gaiak sakontzeko
- Innobasque 2.0: Innobasque de Youtube, Flickr, Facebook, Linkedin, SlideShare, Issuu eta Delicious web, blog eta kanalek berrikuntzako eduki garrantzitsuenak hedatu eta lotu egiten dituzte
- Informazioa nahierara: dokumentu eta argitalpenetako gaiak hautatzeko harpidetza egiteko aukera ematen duen zerbitzua
- Argitalpenak: Innobasqueren lerro editoriala web korporatiboan
- i-Bazkide: Innobasqueren hileroko albiste-buletin elektronikoa bazkideentzat

## Innobasqueren Asteartea

### Zerbitzu profesional aurreratuak, sareko nazioartekotzea

Herrialde aurreratuetako industria-ekonomia eboluzionatzen ari da gero eta gehiago ezagutzan oinarritutako ekonomia baterantz. Gertaera horrek gero eta garrantzia handiagoa ematen die zerbitzu-enpresei, izan ere azken urteetan jarduera handieneko sektore bihurtu dira Europako Batasunean eta gainerako herrialde garatuetan. Bereziki, zerbitzu aurreratuko enpresek zeregin garrantzitsua dute antolaeren, erakundeen eta gizartearen ezagutza sortu, bildu eta hedatzen, beren bezero diren sektoreei (industria-enpresak eta sektore publikoa) berritu eta modernizatzera.

Innobasquek Espa Sarea bultzatzen du antolaera mota horien eskariari erantzuna emateko, izan ere nazioarteko negozio-aukerak sortzeko beharra erakutsi dute, beren “know how-a” esportatuz diseinuan eta politika, estrategia eta metodologien garapenean beste organismo, erregio edo hirietara.

Espa Sarearen aurkezpen ofiziala Bilboko Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoan egin zen, “Zerbitzu profesional aurreratuak, sarearen nazioartekotzea” jardunaldiaren esparruan, eta bertan 100 pertsona baino gehiago izan ziren, eta honako hauek parte hartu zuten: Tomás Orbea, SPRI Taldeko Zuzendari Nagusiak; José Ignacio Arrieta, Ingeniaritza eta Aholkularitza Enpresen Euskal Elkarteko Presidenteak (IAEEE); Juan Luis Moragues, Fundador MAS Taldearen sortzailea; Luis Ramos, Idom Aholkularitzako Zuzendaria, Tomás Elorriaga, Banproko Zuzendaria Maria Kövesdi, MKM Internacional Business Consultingeko Zuzendaria eta José María Villate, Innobasqueko Zuzendari Nagusia. [2012ko urtarrilak 31]






## Laugarren Sektorearen Nazioarteko Mintegia. Berrikuntza kausarekin: eredu sozio-ekonomiko berrietarantz

Vitoria-Gasteizko Europako Jauregian egin den mintegi honetan, bertan parte hartu zuten 200 pertsonek baino gehiagok aukera izan zuten, barruti horretan lanean ari diren nazioarteko adituen eta Euskal eragileen eskutik enpresa-praktikarako eszenatoki berriak ezagutzeko kontuan izanez, ez bakarrik negozioen alderdi ekonomikoa, baizik eta soziala eta ingurumenekoa ere bai.

Antonio Vives, Standford Unibertsitateko irakaslea eta EESean espezialista denaren ardurapean egin zen inauguratze-hitzaldian, "Euskadiko Laugarren Sektorea" azterlana aurkeztu zen, Innobasquek sustatua eta hiru euskal unibertsitateekin (Mondragon Unibertsitatea, UPV/EHU eta Deustuko Unibertsitatea), lankidetzan egina, eta bertan Laugarren Sektoreak Euskadin duen egoeraren barri ematen da, haren diagnosia egitea bilatuz, gure lurraldeko gaurko ekonomian suposatzen duen dimentsioa eta pisu erlatiboa erakutsiko duenaz gainera.

Mintegiaren bigarren erdian, kasu praktikoak aurkeztearen bitartez, Laugarren Sektorea osatzen duten lau ardatzetan sakondu zen: ekintzailetza soziala, enpresa-erantzukizun soziala, negozio sarkarien nazioartekotzea Piramidearen Oinarriaren eta finantza sozialen bitartez.

Parez pare, eta egun guztian zehar, bertaratuek bisita egin ahal izan zioten erakuketa-areto edo "showroom-ari" eta bertan zenbait eragilek (Amasté, Dokudea, Emaus, Eutokia, INIT, Lantegi Batuak, MIK, Mondragon Unibertsitatea, Sinnple eta Deustuko Unibertsitatea) Laugarren Sektorean lantzen ari diren proiektuak erakutsi zituzten. [2012ko otsailak 28]




## Zahartzearen erronka

Euskadi munduko gizarte zaharrenetako bat da eta, aurreikuspenen arabera, 2025 urtean adin handieneko biztanleria %25 izango da, 2010ean zegoen %19aren aurrean. Zahartzea jaiotzarekin hasten den prozesu bat da, eta arrakasta bat, zeren eta gero eta haur gutxiago hiltzen baitira jaiotzean eta urte gehiago bizi izaten gara osasun hobearekin. Fenomeno horrek gizarte eta ekonomiako barruti guztiak erasaten dituenez gero, zehar-lerro gisara ekin behar zaio eta berrikuntza-iturri bezala, halako moldez non Euskadik ordezkatzen dituen aukerak balia ditzan.

"Zahartzearen erronka" jardunaldian BBVArekiko lankidetzan eta Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Europar Urtean kokatuan, bertaratu ziren 80 pertsona baino gehiagoren aurrean barruti horretan gure ingurunean nola Innobasque hala beste eragile batzuk garatzen ari diren ekimen batzuen berri eman zen.

Horretarako honako hauen partaidetza: Eusko Jaurlaritzako Idazkari Nagusiaren, José Manuel Salinero; Alfonso Gurpegui, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailburuordea; Javier Retegui, Innobasqueko Zuzendaritza Batzordekidea eta Eusko Jaurlaritzako Industria Sailburu ohia; Javier Laucirica, IK4ko Ikerkuntza Zuzendaria; Javier González, Tecnaliako Osasunerako Teknologia Unitateen Zuzendariaren albokoa; Miguel Leturia, Ingemako Plangintzen eta Modeloen Arloko Arduraduna; Juan Ramón Iñurria, Director del proyecto mPower de Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldeko mPower proiektuko Zuzendaria, Estibaliz León, Goizalde Atxutegi, Luis María Ullibarri eta José María Villate, Proiektuburu, Berrikuntza Sozialeko Zuzendaria eta Innobasqueko Zuzendaria, hurrenez hurren. [2012ko apirilak 3]



# Berrikuntza, pertsonak eta partaidetza




Mundu-ekonomiaren bilakaera ziurgabetasunak eta aldaketa-abiadurak markaturik dago. Pertsonak kontuan hartzen dituzten erakundeek eta lurraldeek bakarrik lortuko dute aurrera egitea eta egoera berri honek eskaintzen duen potentziala baliatzea. Horretarako, oinarrizkoa da partaidetza-prozesuak eranstea, gure inguruneko aukera sozio-ekonomikoei eta auzi gakoei ekiten lagunduko duten pertsonekin konektatzeko aukera emango dutenak.

Euskadin partaidetza oso presente dago gizartean eta enpresa- eta erakunde-ehunean, eta ugari dira esperientziak eta ikuspegiak, zeinetatik ekin baitzaie barruti pribatu, publiko eta sozial desberdinetan.

Lerro horretatik, Innobasquek "Berrikuntza, pertsonak eta partaidetza" jardunaldia antolatu zuen, eta bertan beren erakundeetan pertsonen partaidetza-prozesuen bitartez berrikuntza bultzatzen duten edo bultzatu nahi duten 100 pertsona baino gehiago elkartu ziren, eta haien artean honako hauek parte hartu zuten: Eugenio Moliník, Antolaera eta Sistemen Garapenerako Aholkulariak; Oscar Usetxik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ezagutza sustatzeko Zuzendari Nagusiak; Jose Mari Aizegak, Mondragon Unibertsitateko Zientzia Gastronomikoen Fakultateko Zuzendariak; Nice Lazpita, Norgara Garapeneko Bazkide Zuzendariak eta Adimen Emozionalaren Partzuergoko kideak: Olga Gómez eta leire Bilbaok, Innobasqueko Proiektuburuak eta Eraldaketa Sozio-ekonomikoko Zuzendariak, hurrenez hurren.

Gainera, Basque Culinary Center-en egindako gertaldiak, "Berrikuntzak, pertsonak eta partaidetza" liburua aurkezteko balio izan zuen eta bertan Eugenio Moliníren "Benetako Partaidetza edo elkarrekin pentsatu, erabaki eta lan egitearen artea" ekarpena dator, garapen jasangarriren ikuspegitik berrikuntzara bideratutako partaidetza-prozesuen ikuspegitik berrikuntzara bideratutako prozesuen diseinu eta garapenerako tresna bat. [2012ko apirilak 24]

# Osasunaren kudeaketa, abantaila lehiakorra erakundeentzat



Lan-lekuan osasuna kudeatzea errentagarria da. Laneko Segurtasun eta Osasun Agentzia Europarrak kalkulatzen duenez, Osasuna sustatzen inbertitutako euro bakoitzak 2 eta 5 euro arteko itzulkina izan dezake enpresarentzat. Langileen Osasuna, segurtasuna eta ongizatea oinarrizko auziak dira, beraz, ez langileentzat beraientzat bakarrik bai eta erakundeen produktibitatea, lehiakortasuna eta jasangarritasunerako ere, eta hedapenez, herrialdeen ekonomietarako

Lan-lekuko baldintzek erasan egiten dute pertsonaren Osasuna, bai eta pertsonaren baldintza fisiko, psikiko eta sozialek beren lana erasaten duten bezala. Beraz, beharrezkoa da harreman noranzko biko horri kontu egin eta langileen osasun eta ongizatearen kudeaketaranzko aldaketa bat erakundeetan sustatzea.

Lan-ingurune osasungarriak sortzea sustatzeko helburuarekin, erakundeetan lanean ari diren pertsonen Osasuna sustatzeko beharraz haiek sentiberatuz, Innobasquek, Bizkaiko Foru Liburutegian, "Osasunaren kudeaketa, erakundeentzako abantaila lehiakorra" jardunaldia egin zuen eta bertan Euskal eta britainiar enpresetan osasun-kudeaketaren praktika onen arrakasta-faktoreak aztertu ziren, negozio-aukera berriz hitz egin zen eta, amaitzeko, ekitaldian parte hartu zuten ia 80 pertsonek beren enpresa propioetan osasun-kudeaketa ezartzeari buruzko saio praktiko batean parte hartzeko aukera izan zuten.

Ekitaldian honako hauek parte hartu zuten: Olga Rivera, Eusko Jaurlaritzako Kalitatea, Ikerkuntza eta Berrikuntza Sanitarioko Sailburuordeak; Borje Svensson, CEO Karolinska Institutet Health Managementekoak; Kepa Celaya, Caja Laboraleko medikuak; Ana Hernández, Giza Baliabideen Saileko eta HealthGuard de Guardian Glass Expressekoak; Kepa Larrea, Athloneko Osasun-programako Teknikariak; Pilar Collantes, Osalaneko Zuzendari Nagusiak Annette Clefberg, Svensson & Svenssoneko Aholkulariak; Anne Murphy, Innovation in Learningeko Zuzendariak; Lola Elejalde, Programa Zuzendariak Txema Villate, Zuzendari nagusiak, biak Innobasquekoak. [2012ko maiatzak 29]

# Innoberri

## Hurbiltzea eta dibulgatzea dira Innobasqueren Innoberri newsletter berria gidatzen duten bi helburuak, izan ere hileroko aldizkakotasunarekin, sakontasun pixka bat gehiago eskaintzen baitie Euskal berrikuntzaren gai, proiektu eta protagonistei.




Innoberrin joera globalekin lerrokatutako eta euskal gizartean eta ekonomian inpaktua duten berrikuntza-proiektuei buruzko artikuluak irakur daitezke; eta horietan edo beste proiektu batzuetan inplikatutako berrikuntza-sistemako eragileei ikusgaitasuna ematen zaie. Gainera, pertsona berritzaileek zeregin garrantzitsua dute elkarrizketa-sailaren bitartez. Albisteen ondoan, lekua dago hileko agendarako eta sarean zirkulatzen ari diren berrikuntzaren inguruko bideo bitxientzat.

Innoberri beste pauso bat gehiago da Innobasqueren edukien eskaintzan, eta berrikuntzaren dibulgaziorako gune bat eskaintzen du era hurbilekoan, haren protagonistei ahotsa emanez.

Egizu Innoberriren harpidetza hemen: innobasque@innobasque.com

## Kazetaritza eta komunikabideak berrasmatzen

3 hitzaldiko zikloa Berria Taldeak, Gipuzkoa Berritzen-ek eta Innobasquek antolatua negozio-eredu berri hautabidezko eta berritzaileak garatzeko komunikabideen aukerez, eta haietan 3 kazetari gailenen partaidetza izan zen:

> "Komunikabideak testuinguruaren funtziotan. Audientziari garai zailetan laguntzeko kazetaritza", Juan Varela, kazetari eta komunikabideen aholkulariarekin [Andoain - 2012ko apirilak 26]

> "Kazetaritza hackeatu. Banatutako komunikabideak eta audientzian zentraturiko berrikuntza" [Donostia -2012ko maiatzak 8]

> "Erkidegoa eta haren nongotasuna: kazetaria eta prentsa berrasmatzen" Vicent Partal, Vilawebeko kazetaria eta zuzendariarekin [Andoain -2012ko maiatzak 24]



**2011ko irailetik, Inobasquek aktiboki parte hartzen du Iniciador Bilbao, ekintzailetza sustatu eta bideratzea helburu duen ekintzaile-erkidegoaren hileroko foroak hedatzen.**

Sei hilabete hauetan Iniciador Bilbaotik adin eta dedikazio desberdinetako ekintzaileak igaro dira hala nola Gary Stewart, Academia Wayra Españako Zuzendaria; Mikel Uriguen, AGS&B Marketing y Comunicación-eko Zuzendari Bazkidea; François Derbaix, Topruraleko sortzailekidea eta CEOa, Rentaliako sortzaile-kidea; ElectricNana, kantEgileaea; Alex Dolara eta Jordi Martí, Karmacracy-koa; eta Carina Szpilka, ING DIRECT Españako Zuzendari Nagusia.

# Openideiak

Erakunde publiko eta pribatu guztien eskura Innobasquek ezartzen duen plataforma dinamikoa, berrikuntza irekia sustatzeko erronka mota guztiei ezarria, zeinetan, gizarte eta pertsona bezala, garapen ekonomiko, sozial eta gizatiarrarekin erlazionaturiko ekimenak garatu baititzakegu (ingurumenekoak, enpresakoak, teknologikoak, sozialak, kulturazkoak). www.openideiak.com




## Guztien onerako erronkak

9 erronka berri hedatu dira:

### > Aire girotu eguzkizkoa

Udan egiten du bero gehien eta argindar gehien ere bertan kontsumitzen da airea girotzeko aparatuetan. Bestalde, badira metodoak prozesuak sortzeko aukera ematen dutenak, bai eguzkiaren berotasuna baliatzeko, edo fotovoltaikoa eguzki-iturri hori frigoria eta energia bihurtzeko aire freskoa mugitzeko, etxean, bulegoan edo kostaldeko hotel batean.

### > Osasuna duen Sinergia

Gasteizko Nutrizio Behatokia, Udalak eta Farmazia Fakultateak (nutrizioa) eratu zuen, urteak daramatza erakundeen arteko sinergien eremua baliatzen helburu argi batekin: ekin, ebaluatu eta zuzendu osasunaren barrutian, batez ere elikaduraren bitartez. Gaur egun badu beharrezko ehuna diagnosiak egiteko, materialak edo izaera heziketazko edo esku-hartzezko partaidetza, osasunaren eta elikaduraren barrutian, edozein maila eta geruzatan (haurrak, adinekoak, etorkinak... etab.).

Behatokitik planteatzen den erronka azaleratzen dena baliatzea da: asmamena, ideiak, motibazioa eta sinergiak bilatzen jarraitzea, bere aliantza-sarea eskainiz elikadura osasungarri, jasangarri eta solidarioa lortzen saiatzeko.

### > AZTI-Tecnaliaren itsas erabileren Inkesta

Inkestaren bitartez "Zein gustatuko litzaizuke izatea itsas inguruneko erabilerak 2050ean?", AZTI-Tecnaliak ikerkuntza akademiko baten parte hartzeko aukera eskaintzen du kostaldearen kudeaketa hobetzeko xedearekin. Inkesta hertsiki konfidentziala da eta 12-15 minutu bakarrik behar dira hari erantzuten. Horretarako hemen sartu:

encuestausos.azti.es

### > Klima Aldaketari buruzko Legearen eztabaidan parte har ezazu

Lege honek zehar-lerro gisa esku hartu nahi du energi, garraioa, lurralde-antolaketa, hirigintza, etxebizitza, hezkuntza edo nekazaritzako barrutietan beharrezko egitura-aldaketa egiten laguntzeko ekonomiaren materia gabetze baterantz joko duen eredu ekonomiko baterantz.

Eredu horrek, gero eta ekoefizienteago egingo gaituelarik, enplegu berdea sortuko du, zeinen gainean sostengatu beharko baitu gure ongizate sozialaren atal garrantzitsu bat. Eta ezagutza, sentiberatze, partaidetza eta berrikuntzako mekanismoak garatuz egingo du, zeinek ahalbidetu baitute aukera bat bezala ekintza-fokatze bat klima-aldaketaren gaian.

Eragin ezazu honakoa hau jakinik: eztabaidaren edukia talde parlamentarioetara iritsiko dela ekimen babestuenak nabarmentzen dituen txosten batean.

### > Konexio gertagaitzak

Artista, sortzaile, diseinatzaile esperimental, arkitekto esperimental, software-diseinatzaile, berrikuntza eta erantzukizun sozialeko barrutiko proiektuak garatzen interesaturiko zientzialari sozialei zuzendua. Ekipo batena integratuko dira eta lankidetza-era batean, prototipo bat, dispositibo bat, ideia-katalogo bat, gertaldi bat, bistaratze bat, eta abarrean gauzatu litekeen emaitzetara iristen saiatuko dira.

### > Administrazio elektronikoa funtzionarazi

Administrazio elektronikoak eskaintzen dituen ahalbide guztien erabilera hiritarrei sozializatu eta bideratzeko ekimena, txip batean integratutako ziurtapen digitaletan oinarritutako kautotze- eta sinatze-sistemak, "txip txartel" bezala gehiago ezagutzen direnak ordeztuz, erabilera errazagoko beste hautabide batzuez.

### > Perlen Uharteetarako irrati-igorgailu bat

Irrati-igorgailu bat eraikitzea da kontua artxipelago guztia igorpen bat estal dezakeena, hari batasuna emanez. Irratia da komunikabide sinple, eraginkor eta merkeena. 3.000.000 pertsonako biztanleria batekin, gehienak ikasketarik gabeak, baina hizkuntza eta nortasun propio batekin, komunikatzeko bitarteko sinpleena (ez baitu eskatzen inbertsio ez azpiegitura handirik) eta zerbitzu iraunkor bat eskain dezakeena, nola uharteetan, hala itsas zabalean, irratia da. Proiektuari nazioarteko lankidetza bezala ekin behar diogu eta Euskadiko GKEren batek hartan parte hartzea.

### > Ibilgailu elektrikoa sustatzea

Ibilgailu elektrikoa merkatuan sartzea errazteko helburuarekin, eta zenbakailu elektrikoak aldatu beharra baliatuz, erkidego-garajeetan ibilgailu elektrikoentzako karga-guneak instalatzea sustatzea planteatzen da.

### > TR35 Spain Sarietarako Nominazioak

Innobasque, Fundación Novia Salcedo eta Fundación Iñaki Goeneagarekin batera jendea animatzeko lankidetzan ari da euskal gazte berritzaileak nominatzera.

TR35 Sariak Massachusetts-eko Teknologia Institutuaren ekimen bat da (MIT), zeinek Technology Review bere aldizkariaren bitartez urtero bilatzen baititu 35 urtez azpiko gazte berritzaile gailenenak mundu guztian. Sari horiek herrialdez herrialde doaz talentu bila, aitortza ospetsu bat eta estaldura informatibo zabala emanez irabazleei.

# Saridun erronkak

9 erronka hedatu dira:

## > BBK BilbaoGoodHostel hiri arte lehiaketa

BBKBilbaoGoodHostel ekimen aitzindaria da Euskadin, Lantegi Batuak eta BBK Solidarioaren laguntzarekin bultzatua. Lehen ostatu hiritar europarra da hesirik gabea ahalmen urritasuna duten pertsonek kudeatua, Boluetako auzategi bilbotarrean kokaturik, 2012ko udaberrian ateak ireki dituena.

Erronka horrek gonbidatu egiten du Boluetaren hiri-sorketara sozialki arduratsua den proiektu batean parte hartuz, Hostelen sarrera nagusia eta haren ingurumariak egokituz

## > Toribio Echevarria 2011 Sariak

Sari horiek berrikuntzaren kultura eta Euskal Herriko industria-ehunaren modernizazioa sendotzea bilatzen dute. Bi kategoria daude:

"ENPRESA IDEIAK/PROIEKTUAK" Kategoria. Euskal Herriko ekintzaileeiideiak/proiektuak, batez ere izaera zientifiko/teknologikoa dutenak, enpresa-ekimen berriak aurkeztuko dituztenei zuzendua.

"ENPRESAK" Kategoria. Berriki sortu diren izaera zientifiko eta teknologikoa duten edo ezagutzan enpresa berritzaile intentsiboak direnei zuzendua.

## > World Business and Development Awards Sariak

Sari horien helburuen artean Milurtekoaren Garpen Helburuak lortzen lagundu dezaketen garapen jasangarri sustatu eta pobrezia arintzera bideratutako negozio-ekimenak sustatu eta inspiratzea gailentzen da.

Sariak ematearen zeremonia 2012ko ekainaren 19an egin zen, garapen Jasangarriari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren bezperan (Río +20).

## > 2012 Nekazaritza Sariak

XXVII Feria Expo Agro Almería 2012k abian jarri du Nekazaritza Sarien II. edizioa Lehiaketarako finkatu diren modalitateek bere baitan dute Industria Laguntzailea, Merkaturatzea, Ekoizpena, Nekazaria, Berrikuntza eta Komunikabidearen barrutiarekin zerikusia duten lanak



## > Universal Biotech Innovation Prize 2012

Universal Biotech-ek Universal Biotech Innovation Prizeren laugarren deialdira gonbidapena egiten du, talentu berritzailea eta prozesu eta produktu berrien garapena aitortzeko helburuarekin industria bioteknologikoen sektorean

Proposamen edo proiektu berritzaileak honako gai-eremu hauetakoren batean txertaturik egon behar dute: terapia prebenitzaileak edo sendatzaileak, medikuntza-dispositiboak eta teknologia berriak.

## > XXI Ekintzaile Sariak

Ekimen honek Espainian hazkuntza-ahalmen handienekoak diren eta arestian sortu enpresa berritzaileak identifikatu, aitortu eta laguntzea bilatzen du.

2012 edizioak bi kategoria ditu: ekinXXI, 2 urte baino gutxiago ibilbideko proiektuei zuzendua; eta haziXXI, 2 eta 7 urte bitarteko ibilbidea duten enpresa berritzaileentzat.

## > Spain Startup Competition

IE Business School, Infoempleo eta Financial Communication Platforms-en (FCP) ekimen pribatua, zeinen helburu nagusia inbertitzaileengana 50 espainiar start-up hoberenak hurbiltzea baita.

Proiektu berritzaileak izan beharko dute, nazioartean inplementatzeko ahalmena dutenak, eta beren eragiketak Espainian hasi dituztenak. Gainera, 100.000€ baino gehiagoko beren lehen erronda gainditua izan beharko dute, eta gehienez 5 milioi euro eta gutxienez 500.000 €ko inbertsioak behar dituzten proiektuak izan behar dute

## > Explot Esperientzia

Ikasle gazteengan adimen sortzailea indartzeko Explot esperientziako proposamenetako batean, lehiaketa-kategoriak honako hauek dira: negozio-ideia eta bizi-proiektuen lehiaketa; Berrikuntza sozialeko Karta; Explot eta Lankidetza-Esperientziako Erronkak.

## > Tomorrow Egunkaria. Mundua aldatu nahi dutenen egunkaria

Egunkari hau mendean gauzkan albiste ezkorren atergabeko bonbardaketari eman nahi zaion erantzun bat da. Egunkari magiko honekin aukera eman nahi dugu baikorrek, ameslariek, hitza har dezaten eta beren etorkizun-ikuspenaz kutsa gaitzaten. Zeren eta etorkizuna hobea irudikatzea beharrezko lehen pausoa baita aldaketak lortzeko. Etorkizuna gako baikorrean berridatziko duten pertsonek Interraileko lau txartel izango diren sari baten jabe gertatuko dira.

## Openideiak Ikastaroa

Innobasquek, KZgunearekin lankidetzan, hiritarrei irekitako doako ikastaro bat abian jarri du openideiak.com erabiltzeko eta erkidegoka eskaintzen dituen aukera guztiek gozatzeko: sarean lan egin, esperientziak elkarbanatu, lankide izan, solas egin eta ideiak kontrastatu.

Ikastaro horren edukiak, bi orduko iraupenarekin, erregistratzen, erabiltzaile-kontua konfiguratzen, erronkak gehitzen, konponbideak proposatzen, geure blog propioa sortzen, taldeetan lankide izaten ikastea eta abar ditu bere baitan.

## Blog Openideiak

2 sail berri gehitu zaizkio blogari:

- **Lankidetza-kontsumoa:** sail horretan lankidetza-kontsumoko esperientziak bilatzen dira Euskadin
- **GALDERAKbota:** Euskal gizarteari “botatako” eta guztien onera eta euskal gizartea hobetzera bideratutako galdera mordo bat biltzea du helburu

Openideiak euskal web hoberenentzako **El Correo Digital**eko sarietan finalista, “Elkarte/ Sare Sozialeko Web Hoberena” kategorian.

Sarien bederatzigarren edizioan 900 orrialde hautagai aurkeztu ziren eta haietatik 12 hautatu ziren finalista.







## GOMENDIO-KATEA

Gizartean sormen berritzaileak duen inpaktua balioan jartzen duen lankidetza-proiektuak barruti oso desberdinetako eta bizi-ingurune oso bestelakoetako pertsona kezkatuak ezagutu eta aitortzeko aukera ematen du. Innobasquek jarrera berritzailea identifikatu, aitortu eta mobilizatzeko abiaraztea erabaki zuen eta pertsona-sarean hura txertatzea.

3 maila berri erantzi zaizkie kateei: Javier Padrini, Jose Mari Luzarraga y David Pérez

## ZER DA ZURETZAT BERRIKUNTZA?

**Javier Padrini:** “Berrikuntza ordura arte egindakoa berrikustetik dator” “Oinarrizkoa da espiritu irekia izan eta arriskuaren parte bat nork bere gain hartzea”.



**José Mª Luzarraga:** “Gauzak nola egiten diren auzitan jartzeko gizakiak duen gaitasuna da”.



**David Pérez:** “Pertsona berritzailea besteak hunkitzea lortzen duen zerbait egiten duena da”.



# First Lego League Euskadi: Berrikuntza Eskola

## *FIRST LEGO League*-ren espainiar finala

LS Bideluze y Overclock Axular (Gipuzkoa), y D Team (Bizkaia). 3 euskal ekipok parte hartu zuten FIRST LEGO League-ren espainiar finalean: LS Bideluze eta Overclock Axular (Gipuzkoa), eta D Team (Bizkaia).

Bi ekipo gipuzkoarrek jaso zuten saria 374 gaztek eta 34 ekipok parte hartu zuten lehiaketa honetan. LS Bideluze, Andoaindo La Salle Berrozpekoak Hirugarren saria irabazi zuen, eta horrek Alemanian egin zen Europar Txapelketara zuzenean igarotzea eman zion. Gainera, proiektu zientifikoa 1.000 pertsona bertaratuen aurrean aurkeztera gonbidatu zituzten konponbide berritzailea eta aurkezpen sortzaile baten eredua zelako.

Bestalde, Overclock Axularrek, Donostiako Axular Lizeokoak, Ekipo Lan Hoberenarentzako saria jaso zuen eta horregatik FLL Italiako torneoan parte hartzera gonbidatu zuten. [2012ko martxoak 12]

## Foro Creativity Meeting Point

Integrantes del equipo D Team del Colegio Gaztelueta Leioako (Bizkaia) Gaztelueta Ikastetxeko D Team ekipoaren osakideek Creativity Meeting Point foroan robotikari buruzko Creativity Zentrumek antolatutako mahai-inguruan parte hartu zuten.

**"FLL Euskadi: berrikuntza-eskola bat"** artikulua argitaratu da 2012ko lehen sehilekoko CIC Networks aldizkarian.

Mahai-inguru hori bera, Innobasqueko Estibaliz Leónek moderatuak FLL Euskadi heziketa-proiektu berritzaile bezala aurkeztu zuen Maria Pascual de Zulueta (IK4-Gaiker) izan zuen torneoan prestatzaile eta epaile zientifikoko esperientziaren bitartez Jesus Angel Bravok (Strelia) Innobasque lankide duen udako Teknologia Eremuen esperientzia azaldu zuen. [2012ko martxoak 13]

## Esperientzia alemana *FIRST LEGO League*-ren europar finalean

LS Bideluze Andoaingo Ekipoa izan da First Lego Leagueren europar finalera iriste alortu duena Euskal ekipo bakarra, zeinek mundu guztiko 66 ekipo izan baitzituen torneoaren fase hori kultura arteko esperientzia bihurtuz, non zientzia eta teknologiarekin jendea suhartzen den, lehiaketa batean baino gehiago.

LS Bideluze hiru saritarako nominaturik egon zen: aurkezpen hoberena, balioak eta ekipo berritzaileena. Gainera, Epai-mahaiak zoriondu egin zuen FLL balioak erakusteko aurkezpen sortzaile eta berritzailearengatik. [Mannheim - Alemania, 2012ko ekainak 7-9]

## Teknologia Eremuak

2012ko camp teknologikoa abiaratze-ekintza bezala Bilboko Alhondigan lantegiak eta mahai-inguruak antolatu ziren. José María Villate, Innobasqueko Zuzendari Nagusiak, FLL Euskadiren ekimena azaldu zuen mahai-inguru batean beste erakunde batzuetako ordezkarien ondoan Eztabaida, zientzia, teknologia, ingeniaritza, matematikak, ekintzailetza eta berrikuntza sustatzearen ingurukoa izan herrialde eta erregioen lehiakortasun-faktore bezala. [2012ko ekainak 2]

## Euskal partaidetza *FLL* Italian

FLL Euskadi "Overclock Axular" ekipoak FIRST LEGO League-ren italiar torneoan parte hartu zuen praktika on berritzaile bezala. Nola ekin proiektu zientifiko eta teknikoei, zer torneo-eredu antolatzen da Euskadin, eta nola antolatzen da taldea izan ziren azaldu FLL italiar finaleko antolatzaile eta ekipo partaideekin partekatu zituzten gaietako batzuk. [2012ko apirilak 19]



# Diplomazia Berritzailea

Gure nazioarteko kokamenduan errealitate berritzaile bezala aurrera egin, geure erakundeak beren nazioartekotzean lagundu eta nazioarteko nodo garrantzitsuenekin konektatzeko programa.



> "Ciudad del Saber"koen bisita (Panama), Panamako Nazioarteko Teknoparkearen Zuzendariak, Ricardo Endara, haren Kudeatzaileak, Janelle Castrellón eta Ciudad del Saber, Antonio Ariasek eratua [2012ko martxoak 29]

## TOPAKETAK:

- Alexia Bekangba eta Limbert Rodríguez-en bisita Ecole de Management, Normandie-koa (Frantzia) Innobasqueren jarduera ezagutzeko Euskadiko berrikuntza sustatzen [2012ko urtarrilak 17]

- Christina Arancibiaren Núcleo Biotecnologia Carauma, Caraumako Campuseko Pontificia Universidad Católica de Valparaíso-koaren (Txile) Euskadirako bisita euskal jarduerak ezagutzeko asmoarekin Biozientzien barrutian eta Innobasqueren jarduerak berrikuntzaren eremuan [2012ko otsailak 6]

- Cristian Quijada Torres, eta María Paulina Mogollón, World Bank-ekoen bisita, Bob Hodgson, Zernike aholkularitza britainiarrekoa lagun zutela, Innobasque proiektua ezagutzeko interesarekin [2012ko otsailak 22]

- Temucoko Komunako ordezkaritza baten bisita (Araucanía-Txileko erregioa), Eduardo Abdala Abarzúa buru zuela, Concejal Comuna de Temucoko Komunako Ziengotzia eta Araucaníako Udalerrien Elkarteko Presidenteordea. Sei kidek osaturiko ordezkaritza honek Innobasqueren esperientzia berritzailea ezagutzeko helburua zuen bai eta geroan lankidetzan aritzekoa ere esperientzia hori esportatzeko [2012ko otsailak 22]



- Tilburg-eko (Holanda) ordezkaritza baten bisita, hiriko alkatea den Peter Noordanus-ek, Tilburgeko Unibertsitateko Presidenteak, Hein Van Oorschot-ek eta Udaleko Gai Publikoen Arduraduna den Gerhard Hauser-ek osatua, Innobasque proiektua ezagutzeko interesarekin Berrikuntza Sozialari dagokionez, eta harremanak eta etorkizuneko lankidetzak ezartzeko gogoarekin, bai eta hiri eta berrikuntza sozialeko hirien europar sare bat sortzeko ere [2012ko maiatzak 2]

- Konpenagengo Danish Architecture Center-eko (Danimarka) ordezkaritza baten bisita, Emmy Laura Pérez Fjalland, Soren Smidt-Jensen eta Gustavo Ribeirok osatua, daniar udalerrien zuzendari talde baten "study tour"a prestatzeko, Euskadin egin diren esperientzia berritzaileetan interesaturik [2012ko maiatzak 7]

- Garapeneko Amerika arteko Bankuko 8 ordezkariren ordezkaritza baten bisita [2012ko maiatzak 8]

- Aragoiko Ekonomia Sailburuaren bisita [2012ko maiatzak 9]

- Kolonbiako Berrikuntza Sozialeko Ziencia Parkea (KBSZP) proiektuko ordezkaritza baten bisita Innobasqueko Berrikuntza Sozialeko ekimenak ezagutu eta etorkizuneko lankidetza posibleak aztertzeko [2012ko ekainak 18]



## PARTAIDETZA HONAKO HAUETAN:

- Enpresa Berritzailearen Barakaldo Sariaren Epai-mahaikide, Inguraldek antolaturik [2012ko otsailak 20 eta 23]
- "Berrikuntza-dinamikak" jardunaldian mahai-ingurua Azaro Fundazioak antolatuta [2012ko maiatzak 17]
- Lankidetza publiko eta pribatuko lankidetzako praktika onen kasuen aurkezpen-jardunaldia, SPRIk antolatua eta Garapeneko Amerika arteko Bankuaren bisitaldian kokatua, "hiri jasangarrien" barrutian garatutako jarduerak ezagutzeko. SPRIk antolaturik, Topaketa honetan Innobasque, Southern Europe Cleantech Hub, eta ESP@ sarea aurkeztu ziren [2012ko maiatzak 31]
- Danish Architecture Center-eko ordezkarien bisitaren jarraipen bezala, Innobasqueren jardueren eta haren dinamika eraldatzaileen aurkezpena 27 pertsonaz osatutako Danimarkako 18 udalerriren arduradun gorenei. Aurkezpen hori "Strategic Urban Governance" Masterraren esparruan egin zen, eta hiri-gobernantza eta plangintzako prozesu berritzaileko praktika onen analisiari eskaini zitzaion [2012ko ekainak 15]
- Ingurumen Teknologien Espainiar Teknologia Plataformaren Eko-berrikuntzaren Sustapenaren Lerro Estrategikoaren Bilkura - PLANETA (www.pt-planeta.es) [2012ko ekainak 26]
- "New materials for a better life" workshoparen esparruko mahai-ingurua BCMk antolatua - Basque Center for Materials, Applications and Nanostructures [Bilbo, 2012ko ekainak 15]

# Innocampus

Unibertsitatea eta merkatuaren arteko lankidetza sustatzen duen jarduketa. Innobasquek planifikaturik ditu unibertsitate-gunearekiko lankidetza-hitzarmenak, gradu-ondoko ikasleek praktika egin ditzaten, edo ikerkuntza bat garatu, Innobasqueren baitan proiektuak sendotuz doazen neurrian.

- 2012ko lehen seihilekoan Deustuko Unibertsitateko bost pertsona gehitu dira (DBS eta Ingeniaritza) bere proiektu akademikoko praktikak garatzeko. Gehitze horiekin 16 dira, azken 12 hilabeteotan Innobasquen praktikak egin dituztenak, 3 unibertsitateetatik (UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea), eta BBL Gaztelanbidetik datozenak.
  Lankidetza horien helburua unibertsitatea enpresara hurbiltzea da eta aukera ematea gazteei lan-munduarekin eta berrikuntzarekin harremanetan sar daitezen eta era praktikoan eta azeleratuan garatu ditzaten bakoitzak bere ikasketetan eskuratutako ezagutzak. Helburu hori bultzatu nahi dugu Innobasqueren II. Zikloan (2012-2015)
- Euskarri Teknologikoaren Kudeaketa eta IKTen Ezarpenari buruzko eskolak ematea Deustuko Goi Heziketako Berrikuntza eta Gaitasunen Garapenaren Masterreko prozesuetan [2012ko urtarrilak 23-24]
- Eskolak ematea Berrikuntza eta Kalitateari buruzko moduluan Deustuko Unibertsitateko Segurtasun-masterrean [2012ko martxoak 6-7]




- 25 naziotasun baino gehiagoko 80 pertsonaren aurrean, Innobasqueren jarduera aurkeztea Deustuko Unibertsitateak antolatutako Eurokulturako Masterraren Programa Intentsiboaren barruan. Master horrek prestakuntza aurreratua ematen die nazioarteko eta europar ikasketen eremuan etorkizuneko profesionalei [2012ko ekainak 25]

# Bazkideentzako programa

Innobasque proiektu guztiz soziala da, eta haren misioa eta ikuspena amaierara eramateak bazkide dituen erakundeen eragingailuak aktibatzea esan nahi du derrigor Eraldaketara bideratzeko. Innobasqueren balioa hain zuzen ere bere bazkide-sarean datza. Haiek laguntzen dute Herrialdea eraldatzen, beren gaitasunen eta trebetasunen, beren baliabideen, beren ideien eta beren balioen ekarpena egiten...

Horregatik, hasia dugun hazte eta sendotzearen bigarren zikloan Innobasquek zabaldu egin nahi du bere zeregina gaitasunak eta tresnak pertsonei eta erakundeei hornitzen, beren bazkideen sareko lana bultzatuz, jarduera berriak garatuz eta balioaren ekarpena eginez.

Horretarako, bazkide-garapeneko plan bat garatu dugu, bazkidearen eginkizuna balioan jartzea helburu duena, haren iraupena, konpromisoa eta inplikazioa indartuz eraldatze-proiektuetan. Eta plan hori bazkideentzako ekintza espezifikoak abian jartzearen bidez gauzatzen da.

Dagoeneko badugu lan-ekipo bat bazkideen kudeaketaz, haiekin kontatzeaz eta haien eskari eta beharrak hurbilagotik ezagutzeaz arduratzen dena.

Gainera, joan den ekainetik hasita argitalpen berri bat dugu, I-Bazkide, bazkideentzat bakarrik dena, gure bazkide-sarearen proiektuak eta jarduera berritzaileak ezagutarazi nahi dituena, ikusgaitasuna eta nabaritasuna enpresa bazkidetuei eman nahi diena. Newsletter honek hileroko aldizkakotasuna izango du. i-Bazkiden agertu nahi baduzu, igor iezazkiguzu zeure albiste eta gertaldiak hona: pmartinez@innobasque.com

Eta zerbitzu berrietan, ekimen berrietan lanean ari gara lankidetza eta elkarlana bideratuko duten inguruneetan erakunde bazkideen artean, esaterako Innobasque Exchange, zeinen lehen edizioa uztailaren 10ean abiaraziko baita.

Bazkideak direla Innobasqueren zutabe nagusia, eta elkarrekin ideiak eta aukerak sortzen jarraitu ahal izango dugulako erronka larrienei erantzun hobeak aurkitzeko.






## EMAITZAK

- 1.567 inpaktutan medioetan lehen seihilekoan. Balioa (publizitate-baliokidetzaren arabera) 2012an zehar metatua 3,25 milioi eurotara iristen da
- Sare sozialetan jarraitzen dugu: Innobasquek 6.148 jarraitzaile baino gehiago ditu twitter-en, 1.225 aipamen eta 2.500 retweet baino gehiagorekin.
- FLL: 2 euskal ekiporen partaidetza nazioarteko lehiaketatan [Italia - 2012ko apirilean eta Alemania -2012ko ekainean]
- Openideiak:
    - seihileko honetan 4.961 pertsona erregistraturen kopurua lortu da
    - 248 lan-talde
    - 210 erronka metatu
    - 2 sail berri eranstea blogari: "Lankidetza Kontsumoa" eta "Galderak Bota"

## ALBISTE IZANGO DA

- "Minutu bat berrikuntzarako" argitalpena
- FLL:
    - FLL Euskadi 2013-Senior Solutions Aurrez izena emateko deialdia [2012ko uztaila]
    - FLL Euskadi abiaraztearen gertaldia, Euskaltelekin lankidetzan [irailak 28]
- Innobasque Exchange-ren abiarazte-topaketa [2012ko uztailak 10]
- II Global Innovation Day [2012ko irailak 20]
- TR35 Spain sariak banatzea [2012ko azaroa]

# Innobasque medioetan



## Jakiontzi adimendunak

La Vanguardia. Estilo de Vida - 21/01/2012

Euskadiko First Lego League-ren (FLL) hirugarren edizioaren irabazleak, Innobasquek Euskadin antolatzen duen kirol-gertaldi baten formatuko torneoa eta munduko 57 herrialdetan egiten dena bokazio zientifikoak eta teknologikoak sustatzeko xedearekin ikasgeletan. Maite Couto, Andoni Alonso, Koldo Antolinez, Ane Imaz eta Mikel Rodríguez dira La Salle Berrozpe, Andoain (Gipuzkoa) ikastetxeko bost ikasleak, saria irabazi dutenak janarien kontserbazio-egoeraren berri ematen duen eta patente bat lortze-bidean dagoen taper bat diseinatu dutenak.




## IK4k eta Tecnaliak zahartzeari buruzko proiektu bat aurkeztu dute "Innobasqueren Astearteetan"

Empresa XXI - 15/04/2012

Elderbask-ek gaitasun teknologikoak eta sozio-sanitarioak integratzen ditu adineko pertsonen autonomiaren inguruan industria bat eta zerbitzuak garatzeko xedearekin. Innobasquek zahartzeari buruz egindako jardunaldi honetan agerian jarri zen Innobasquek fenomeno horren inguruan berrikuntza-iturri bezala harturik lan egiten duela eta zehar-lerrotasunezko ikuspegi batetik ekin behar zaiola uste du.




## "Banku etikoa ez doa sistemaren aurka gardena izateaz arduratzen da"

Ugo Biggeri, presidente de Banca Ética Poppolare

Expansión - 05/3/2012

Ugo Biggeri Laugarren Sektorearen Nazioarteko Mintegia, Innobasquek antolatua. Banca Popolare Etica duela 13 urte sortu zen Italian, eta beste edozein finantza-erakunde bezala aritzen da soilik ekimen sozio-ekonomikoak finantzatzen dituela helburu sozial eta ingurumenekoekin beren aurreztaileen baliabideekin. Horretarako hain zuzen, haren printzipioak gardentasunean, krediturako irispide-eskubidean eta efizientzian oinarritzen dira.

## Sormena osasuntsu bizi izateko

Lola Elejalde, Directora de Programas de Innobasque

El Mundo - 16/04/2012

Gosasun izenaren pean Innobasque 2011aren azkenetan ekimen nobedadetsu bat sortzeari ekin zion, hiru ardatzetan oinarritua, hiritarren elikaduran, jarduera fisikoan eta emozioen kudeaketan mugimendu osasungarri bat bultzatzea bilatuz. " Duela bi urte hasi ginen adimen emozionaleko taldean eta agentziako beste barruti batzuetan ideia honekin, zeren ariketa fisikoa eta elikadura osasungarria lotzearen beharra ikusten baikenuen osasunaren sustapenean jarduteko". Horretarako, erakundeak osasunaren prebentzioan eragitea erabaki zuen mugimendu horrekin, zeinari dagoeneko 30 eta 40 euskal eragile sozial eta politiko atxiki zaizkion", adierazten du Lola Elejalde Innobasqueko programa-arduradunak.

GOSASUN
bizimodu osasungarriaren alde
por una vida + saludable




## Abu Dhabiko Berrikuntzaren Mundu Gailurreko Bileran Euskadi eta Bilboren esperientzia aurkezten dute (Arabiar Emirreriak)

El Economista - 19/04/2012

Innobasque, Berrikuntzako Euskal Agentziak eta Bilbo Metropolitarra Biziberritzeko Elkarteak (BM30) parte hartu zuten apirilaren 25 eta 26an Abu Dhabiko (Arabiar Emirreri Batuak) egin zen i2Ok antolatutako Berrikuntzako Munduko Gailu-bileran.



## Europa eta garapenaren erronkak: milurtekoaren garapen-helburuez harago

Paul Ortega, Director de Programas de Innobasque
Hermes - 24/04/2012

Ortegak honako hau defenditzen du artikulu honetan: nahiz eta krisi ekonomikoak Europa ikaratu, horrek ez dituela bertan behar utzi behar konpromisoak maila globalean garatzeko, baizik eta garapen-agenda bat bultzatzeko gai izan behar duela 2015eko ostertzaz harago eta milurtekoaren garatze-helburuez harago.



## Firma berdeen bultzatzaile

Leire Bilbao, Innobasqueko Dinamizatze Sozio-ekonomikoaren Zuzendaria
El Mundo - 30/04/2012

Pertsona “proaktibo” bezala definitzen du bere burua eta suharrez ekiten dio “erronka berriei” aurre egiteari, zeren eta horiek “pilak jartzen” baitizkiote Euskal enpresei laguntzeko “merkatuan desberdinduko dituzten balio handiagoko jarduketei ekiten”. Innobasque agentziako gidari bezala duen pribilegiozko kokagunetik “ekipo-lanean oinarritutako lanean eta jarrera ekintzaile batean oinarritutako berrikuntza sustatzen du”, dio berak. Euskal erakunde horretatik ekimen bat baino gehiago bultzatu du “teknologia garbien” garapena sustatzeko euskal enpresa-ehunean.

## Etengabe aurrera

Guillermo Ulacia, Innobasqueko Presidentea
Estrategia Empresarial. Anuario - 01/05/2012

Ulaciak balantze bat egiten du Innobasqueren jardueraz presidentetza bere gain hartu zuenetik. Balio-ekarpena 1,8ra gehitu dela azpimarratzen du, euskal enpresei beren nazioartekotzean lagunduz VII. Europar Esparru programan egindako lana. 14 planetan lan egin da, Eusko Jaurlaritzako 7 sailekin ekintza integratuz; erkidego lankideen eta sorkideen gune bat sortu da 4 barrutitan: Eko-berrikuntza, Efi-osasuna, Laugarren Sektorea eta Presentzia Globaleko Enpresen Azeleratzea. Gainera OPENTRIC eredua ezarri da, pertsonei, enpresei, elkarrekin gure aukera eta beharretan zentratu eta fokaturik lanean ari diren toki- eta nazioarte mailako irismeneko erakundeei irekia.



## All together now – the case of the cleantech hub in the Basque Country

Cleantech Insights - 02/05/2012

Stephen Marcus, Cleantech Group-ekoa Harriturik dago Europaren Hegoaldean, Euskal Herrian sortu den cleantech hub berri baten gogo iraultzailearengatik, eta uste du, cleantech hub bat sortzen lehenagotik lanean ari direnek ere zerbait ikas dezaketela uste baitu.../...“Euskal Herrian zerbait interesgarria badago hauxe da: erlazionaturiko eragile guztiak erabat inplikaturik daudela proiektuan hasieratik, batera hitz eginez eta lan eginez helburu erkideak lortzeko asmoarekin”.



## FLL Euskadi: berrikuntza-eskola bat

José María Villate, Innobasque Zuzendari Nagusia
CIC Network - 01/05/2012

Zientzia-teknologia-gizartea harremana elementu gako bat da Ezagutzaren Gizartean herrialdeak eta erregioak integratzeko zientzia eta teknologia oinarrizko elementuak dira kulturan eta era erabakigarrian eragin dute gizateriaren bizi-baldintzak hobetzen, Hala ere, gaur egun kultura zientifikoaren ez ezagutze handia dago oro har, bai eta interes falta handi bat ere zientziarekiko gizartean. Baina beste gai batzuk interesatzen dira, esaterako osasuna edo ingurumena, osagai zientifiko argi batekin. Hiritarrak zientzia eta kulturarekiko duen interes falta horrek zaildu egiten du, adibidez, zerbitzu, ezagutza zientifiko eta teknologikoaren ezarpenetik sortzen diren ondasun edo produktu batzuk hartzea. Testuinguru horretan, zientzia eta teknologia gazteen artean sustatzeko jaio da FLL Euskadi, berrikuntza-eskola bat.



## Hegoaldeko hautabide garbia Euskadin dago

El País (Suplemento Negocios) - 06/05/2012

Mugaz haraindiko inbertsioak atzematea. Posizio nazionalak indartzeko nazioartekotzea Lehiakide erregionalen artean lankidetzan aritzea ahuleziak minimizatzeko. Indar pribatua funts publikoei batu ikerkuntza eta berrikuntza indartzeko. Produktu eta garapen berriak sortu balio erantsi handikoak. Hauek dira merkatu ziztrin baino gero eta zorrotzagoak direnetan

hazi nahi duten enpresa eta taldeen jarraibideak. Esan eta egin. Euskal enpresa garrantzitsuenek, energia garbi eta efiziente, berriztagarri, mugikortasun jasangarri eta ekodiseinuan mundu mailako ahotsa dutenek erantzun egin diote Innobasque, Berrikuntzako Euskal Agentziak sektore publikotik egin duen deiari eta Europaren Hegoaldeko Teknologi Garbien Plataformaren inguruan elkartu dira. (Southern Europe's Cleantech Hub).



## "Saltzaileak eta hartzaileak harremanetan jarri behar ditugu"

Pablo Mancini, kazetaria eta idazlea
Berria - 09/05/2012

"Kazetaritza eta komunikabideak berrasmatzen" Berria Taldeak eta Innobasquek antolatutako zikloko bigarren hitzaldian, kazetariak azpimarratu egin du erabiltzaileari balioren ekarpena egitearen garrantzia. " Egiazko balioa jarraitzaileek gure informazioa partekatzean datza", dio kazetariak.

SOUTHERN EUROPE'S CLEANTECH HUB your best business, our companies

## Cleantech, Euskal berrikuntza bultzatzeko leku bat

El Correo - 29/05/2012

Innobasquek teknologia garbietan ezartzen du fokua, Euskadiren indarguneentzat hazten ari den merkatu batean. Euskadi lehen mailako berrikuntzako polo - hub- bat bihurtzea da helburua 2030ean. Teknologia garbiak edo "Cleantech" ardatz estratégico bat da helburu anbiziotsu hori lortzeko.



## "Enpresa orok diru-sarrerak bilatzen ditu, baina horretarako berrikuntza beste biderik ez dago"

Guillermo Ulacia, Presidente de Innobasque
El Mundo - 23/05/2012

Ulacia berrautatzea, pertsonengan oinarritutako kudeaketaren aldeko apustua egin duenak Innobasque sendotu eta haztearen bigarren zikloa inauguratzen du. Ulacian elkarrizketan dio berrikuntzaren oinarriak hezkuntza eta lankidetza publiko eta pribatua direla.



## Bost andoaindar Liga Legoko europar finalean

El Diario Vasco - 06/06/2012

El Diario Vascok bere azalera eraman zituen Innobasquek Euskadin antolatzen duen First Lego Leagueko europar finalean parte hartu zuten Andoaingo bost neska-mutiko. Beraiek "Tupper" bat asmatu dute bertako janariak noiz den egokia kontsumitua izateko abisatzen duena Fagor, Alfa, CEITi aurkeztu diete beren proiektua, euskal sukaldaritzako izen garrantzitsuei (esker onez gogoratzen dute Arzak eta Argiñanok egin zieten harrera), Gautenari...; hartu trena eta Donostian aurkeztu ziren hura erregistratzeko, liburuxkak egin dituzte... Ikasten duten ikastetxetan eta bertako AMPAn, Kutxan, SPRIn, Angulas Aginagan eta Ikor-en lagundu egin diete finantzazioan, eta nahi duen edonork lagun diezaieke www.goteo.org/bantute. 'crowdfunding'eko webaren bitartez.

## "Gero eta enpresaburu gehiagork konpondu nahi dituzte gizarteko arazoak"

Heerad Sabeti, Fourth Sector Network-en arduraduna
Deia - 25/06/2012

Heerad Sabeti (Teheran, 1967) Raleigh-eko ekintzaile sozial estatubatuar bat da (Ipar Carolina). Fourth Sector Network-eko arduraduna Laugarren Sektorea teorizatzen duen Aspen Instituteren Txostenaren egilekidea da. Innobasqueko Laugarren Sektoreko eraldaketa-dinamikak gonbidaturik azaldu zuen, bere ustez, "Laugarren Sektoreak kapitalismoak zina duen bilakaeraren atal bat eratzen duela".



## "Nagusitzea guztion gauza da"

Gotzon Bernaola, Innobasqueko Programa Zuzendaria
El Correo - 22/06/2012

Iritzi-artikulu batean Bernaolak honako hau defenditzen du: Innobasqueren Gizarte Efiosasungarriaren Dinamikatik zahartzeari gure gizartearen erronka handietako bati bezala aurre egiten zaion aukera-arloetako bat delarik Euskadirentzat, zehar-lerrotasunezko eran eta berrikuntza-iturri bezala ekin behar zaiola. Gainera Zahartzearen b-Taldetik zahartzea balioan jartzen da eta erronkari gako berritzailean ekiten zaio, Euskadin zahartzearen kultura sustatuz, zeinean aitortzen baita adineko pertsonen ekarpena gizartean eta non indartuko diren belaunaldien arteko elkartasuna eta elkarlaguntza. Hori izan da, halaber, "Europar Ahotsak Zahartze Aktibo baten alde" lelopean World Café Europak eta Innobasquek antolaturik, joan den ekainaren 28an egin den nazioarteko World Kafearen helburua ere.

# Seihileko argitalpenak




## Innobasque 2010-2011 Oroitidazkia

Egilea: Innobasque
Data: 2012ko ekaina
Oroitidazki honetan Innobasquek 2010- 2011ko ekitaldian garatutako jarduera egitekotsuaren berri ematen da, zeinean lankidetza estuan ari izan baita nola Euskadiko eragile garrantzitsuenekin hala estatuko eta nazioartekoekin barruti desberdinetan. Ia 5 urte igaro dira 2007ko uztailean Innobasque sortu zenetik 2030ean berrikuntzako europar erreferente izateko misioarekin. Berrikuntzako Euskal Agentziak Euskadiren eraldatze-prozesua bultzatzen jarraitzen du gizarte berritzaile baterantz barruti guztietan, ekintzaile-espiritua eta sormena sustatuz.



## 4º Sektorea Euskadin

Egilea: Innobasque
Data: 2012ko otsaila
Innobasquek sustatu eta hiru euskal unibertsitateekiko lankidetzan burututako proiektu honetan, Euskadiko laugarren sektorearen egoerari ekiten zaio, haren diagnosia finkatuz, zeinek erakusten baitu haren dimentsioa eta gure lurraldeko ekonomian hark duen pisu erlatiboa.



## EAEko eraikuntza jasangarriko balio-kateko eragileen gaitasunen azterketa egiteko inkesta. Berrikuntza-dinamika Euskadiko Eraikuntza Jasangarrirako

Egilea: Eusko Jaurlaritza - Innobasque
Data: 2012ko martxoa
Euskal enpresa-ehunaren eskaintza ezagutzeko gaitasunen analisi bat zeinek ahalbidetuko baitu etxebizitza berria eta/edo birgaitua eraikitzea energia-efizientzia handiko konponbideekin eta karbono-igorpen baxuekin eta, horregatik, Euskal herriko Eraikuntza Jasangarriaren garapenari lagunduko diona. Horretarako, 244 erakunderi inkesta bat eragin zaie.




## Southern Europe´s Cleantech hub

Egilea: Innobasque
Data: 2012ko apirila
“Cleantech” ekosistema lehiakorra erakusten du katalogoak, Euskadin dagoena eta Cleantech Forum Munich 2012an aurkeztu zena. Honako hauek daude: Iberdrola, Gamesa, Sener, Mondragon Corporation, CIE Automotive, Idom, Deloitte, CAF, Kutxabank, IK4 Research Alliance, ZIV aplicaciones y teknologia SL, Tecnalia, Bidatek, HBiO, Urban Intelligent, Optimitive, Wattio, Gese,  Eficient Home Energy, Fagor Ederlan Group, Orkli, A&B Laboratorios de Bioteknologia eta Zigor Corporation.



## Berrikuntza, pertsonak eta partaidetza

Egilea: Adimen emozionalaren Partzuergoa - Eugenio Moliní - Innobasque
Data: 2012ko apirila
Liburuak lau atal ditu. Lehen atalean lotura bat proposatzen da berrikuntza, pertsonak eta haien partaidetzaren artean barruti horretan Innobasquek egindako esperientzia batzuetatik abiatuta hala nola lan-taldeak (b-taldea), "Minutu bat berrikuntzarako" ekimena, First Lego League, World Café metodologiatik eratorritako WOKAk, Gomendio kateak, Openideiak, edo Eusko Jaurlaritzako politika publiko desberdinetako berrikuntza irekia. Euskadiko beste esperientzia batzuk ere analizatzen dira. Bigarren atala Eugenio Moliní, Erakunde eta Sistemen Garapenean aholkulari ospetsua denak sinatzen du, zeinek azaldu baitu bere eskuliburu praktikoa "Benetako Partaidetza edo elkarrekin pentsatu, erabaki eta lan egitearen artea", garapen jasangarriaren ikuspegitik berrikuntzara bideratutako partaidetza-prozesuen diseinu eta garapenerako planteamendu eta tresna bat.



## Erakuntza Jasangarrirako Berrikuntza Dinamikak. Praktika Onen Analisia

Egilea: Eusko Jaurlaritza - Innobasque
Data: 2012ko ekaina
"Euskadiko Eraikuntza Jasangarrirako Berrikuntza Dinamika" ekimenaren ibilbide-orriaren diseinu teknikoa aberasteko analisia, zeinek identifikatzen baititu beste herrialde batzuetan burututako neurriak eta jarduketak eta eraikuntza jasangarrian tarteko diren eragileen aldetik konpromiso-proposamen konparagarriak finkatzen baititu.



## Zahartzea eta arreta-zerbitzu berriak etxean

Egilea: Ingema - Innobasque
Data: 2012ko apirila
Euskadi ongizate- eta bizi-kalitatezko maila garrantzitsuak iristea lortu du, gure lurraldeko aberastasuna eta aniztasuna baliatzen jakin duten politika publiko berritzaileen emaitza. Bizi-itxaropenaren gehitze sostengatua jaiotzean lorpenik garrantzitsuenetako bat da biztanleriaren ongizatearen aldeko apustu horretan. Hala ere, bizi-urteak hedatzeak adierazten duen konkistak berekin dakartza erronka garrantzitsuak sektore sozial guztien partaidetzarekin aurre egin beharrekoak. Biztanleria zahartzea da erronka horietako bat.



## Osasunaren kudeaketa antolaeretan

Egilea: Innobasque
Data: 2012 maiatza
Osasuna, segurtasuna eta langileen ongizatea oinarrizko auziak dira, ez langileentzat beraientzat bakarrik, baizik eta erakundeen produktibitatea, lehiakortasuna eta jasangarriarentzat era, eta hedaduraz, herrialdeen ekonomietarako.



## Eraikuntza Jasangarrirako Berrikuntza Dinamika. Eragile Maparako Hasiera Proposamena

Egilea: Eusko Jaurlaritza - Innobasque
Data: 2012ko ekaina
Euskadiko erakuntza jasangarriko sektorean inplikaturik dauden eragile nagusien ikuspen global eta eguneratua dauka dokumentuak. Alde batetik, eraikuntza jasangarriko balio-katean zehar diharduten eragile motak identifikatzen dira, eta bestetik, eragile mota bakoitzaren gaurko egoeraren ikuspen orokor baten ekarpena egiten da, haien kritikotasunaren eta ingurumenaren jasangarritasunean duten inpaktuaren aranera sailkatzen direlarik.



## Volvone kasua: Biziraungo al dugu beste laurogeita hamar urte produktu berekin?

Egileak: Unai Tamayo Orbegozo, Covadonga Aldamiz-echevarría González de Durana
Data: 2012ko ekaina
Lan honek Oyar kasua aurkezten du, Procter & Gamble y Henkel. Bezalako multinazional handien mendean arrakasta handiarekin Volvone garbigarria merkaturatzen duen euskal etee baten kasua. Volvone, haren produktu izarraren salmenta, bere fakturazioaren %95 baino gehiago da, eta diru-zorroaren konpentsazioa galtze horren aurrean eta bezeria pixkanaka zahartzearen aurrean, produktu berriak abiaraztea edo erosle berriengana jotzea planteatzen ari dira.



## Innobasque Kasuen Gai Azterketa: "Lankidetza Nazioartekotzean"

Egileak: Amaia Agirre, Izaskun Agirre, Amaia Aizpuru, Juan Carlos Aldasoro, Izaskun Alvarez, Sara Cabezudo, Maria Luisa Cantonnet, Olatz Etxegarai, Idoia Idigoras, Jon Iradi, Aitziber Lertxundi, Jone Mitxeo, Oskar Villarreal, Enara Zarrabeitia, Kristina Zabala y Arantza Zubiaurre
Data: 2012ko ekaina
Azterlan honek 6 enpresa-kasu analizatzen ditu (Corporación Rinder, Grupo Tamoin, Esi-Tecnalia, Geyser-Gastech, Hine eta Orkli) nazioartekotze-lankidetzaren alorrean arrakastako proiektuak garatu dituztenak, haztera eraman dituzten proiektuak eta haien prozesuen efizientzia eta bezeroei eskaintzen dizkieten produktu eta zerbitzuen kalitatea hobetzera.



## Ehun proposamen ongizatean eta zahartzen ari diren pertsonen tratu onean aurrera egiteko

Egilea: Eusko Jaurlaritza
Argitalpen honek hurbiltze desberdin bat sustatzen du zahartzera, hondatzea, gaixotasuna, balio gabezia eta beste edozein pertzepzio ezkor eta estereotipaturi atxikiriko irudikapen sozialak ezabatuko dituena hiritar talde horri buruz. Hala ere, urteak igaro ahala, kezka halako bat orokortzen ari da zahartze aktiboa gehiegi identifikatzearengatik "jarduera" multzo batekin, zeinek batzuetan baitirudi hutsaldu egiten dutela kontzeptu bat, zeinen esparru teorikoak eta etorkizun-proiekzioak gainditu egiten dituela planteamendu horiek.




## The Global Cleantech Innovation Index 2012

Egilea: Cleantech Group
Txosten honek teknologia garbien industriako berrikuntzaren egoera globala ikertzen du. Munduak klimatologia, energia eta ekonomiarekin zerikusia duten erronkei egiten diete aurre. Start-up teknologikoak erronka horiekin zerikusia duten berrikuntza eta merkaturatzerako ibilgailuak dira, aldi berean inbertitzaileentzat etekinak sortzen dituztenak. Txostenak erakusten du non erneko dira Cleantech konpainiak datorren hamarkadan eta zer herrialde atzera geratzen ari diren ere erakusten du eta zein diren teknologia garbietako liderrak.




## Euskadiko ingurumen-soslaia 2010

Egilea: Ihobe
11 helburu estrategikoren analisia eta 44 konpromiso II. Ingurumen Esparru Programan 2007-2010 (IEP) hartuak 6 jasangarritasun-baldintza beharrezkorekin ingurumen-plangintzako dokumentu horretan barne hartuak haiek ere. Edizio honek markatzen du ingurumen-plangintzaren ziklo-amaiera III. EPak 2007-2010ek ezarria eta horregatik erakusten dira denboraldiko emaitza globalak.




## Quick Survey European Union Programme Social Change and Innovation

Egilea: Europako Batasuna
Aldaketa Sozial eta Berrikuntzarako (PSCI) Europako Batasunaren programa enplegua eta politika sozialak sustatzeko tresna bezala proposatzen dute. Europako Batzordearen proposamenaren atal bat da politika erregionalak 2014tik 2020ra barruti horietan lantzeko, zeinek lagunduko baitute Europa 2020Estrategia egikaritzen kohesio eta inpaktu handiagoarekin.



## La inversión en I+D+i en España en 2012

Egilea: EAE
EAE Business School-eko Strategic Research Center-ek azterlan hau aurkezten du: "I+G+b-ko Inbertsioa 2012an" eta bertatik aztertzen ditu berrikuntzako inbertsio publikoa eta pribatua Europan eta Espainian, autonomietan berrikuntzan dauden aldeak sakontzen ditu eta Espainiako enpresa te sektore berritzaileenen analisia egiten du. Espainiak batez beste 317,02 euro inbertitu zituen biztanleko I+G+b-n 2010ean, oso urrun geratzen delarik Alemanian egiten den inbertsiotik 855 eurorekin biztanleko, 2,7 aldiz handiagoa espainiarra baino. Alemaniaren ondoren Frantzia, Erresuma Batua eta Italia datoz.



## Eusko Legebiltzarra 2011 Urteko Txostena

Egilea: Ararteko

Urteroko izaera duen txosten honek 2011n zehar Arartekoak garatu dituen jarduketen berri ematen du, era berean eskainiz Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideek duten egoera orokorraren ikuspen bat.




## Rethinking Financial Innovation

Egilea: World Economic Forum

Txosten honek zerbitzu finantzarioetako industriaren berrikuntza arakatzen du eta hark duen ondorioa ekonomia hedatuago batean. Kontuan hartzen bada zerbitzu horiek hil edo bizikoak direla hazkuntza ekonomikoa zurkaizteko, txostena modu espezifikoei buruz aritzen da finantzak berritzeko arriskua eta ziurgabetasuna gutxituz.



## The global go to Think Tanks Report

Egilea: The Think Tanks and Civil Society Program, Pennsylvania Unibertsitatea

Think Tanks eta Civil Society programak Global Go-To Think Tank Index sortzen du, urteroko index bat, zeinek sailkatzen baititu mundu guztiko think tanks liderrak, 1.500 erakunderen panelaren eta medio aditu inprimatu eta elektronikoen, mundu akademikoaren laguntzarekin, zeinak baitatoz enpresa publikoetatik, pribatuetatik eta politikoengandik.



## Euskadiko Energia Estrategia 2020

Egilea: Eusko Jaurlaritza

Energia-estrategiak % 22an energia-aurrezkia hobetzearen aldeko apustua egiten du, %87an energia berriztagarrien baliamendua gehitzea eta energiarekin lotura duten euskal enpresen garapen teknologiko eta industriala areagotzea %25 gehiagoan, halako moldez, non mobilizatu diren inbertsioak 1.710 milioi eurotan datozen hamar urteetan. Estrategia hiru ardatzetan oinarritzen da: energia aurreztearen aldeko apustu deliberatuan, energia berriztagarriak bultzatzean eta Euskadi 2020 energiari lotutako euskal industria-sektorea indartzean.




## Industry: Europe´s Future

Egilea: European Roundtable of Industrialist

Industriak eginkizun hil edo bizikoa du Europako geroko oparotasun eta ongizatean. Europar ekonomiaren bizkarrezurraren atala da eta enpleguari, hazkuntzari eta aberastasunari laguntzen diete. European Roundtable of Industrialist (ERT) txostenak EBeko hazkuntza eta enpleguari industriak egiten dion laguntza nabarmentzen du. Gainera, ekintza politikoak industriaren alemaniarra indartu dezakeela erakusten du europar ekonomia indarberritzeko asmoz.



## Health for All, Care for You. Unlocking the value of Personalised Healthcare in Europe

Egilea: Science and Business

Medikuntza pertsonalizatua metodologia bat da, genetikak, biofarmaziak, diagnosiak eta EKTek bideratua, norbanako bakoitzarentzat egindako tratamenduak eragiten dituena. Medikuek genomak ekarritako ezagutza eta osasun eta gaixotasunaren beste biomarka batzuk erabiltzen dituzte neurri prebentiboak eskaintzeko eta tratamendu-estrategiak optimizatzeko. Emaitza eraginkortasun handiago bat da, ondorio sekundario gutxiago, bizi-kalitatea hobetzea eta sistema sanitarioen jasangarritasunari laguntzea. Praktikara eramateko hesiak teknologia, finantzazioa, kostua, aldaketaren kudeaketa dira, nahiz eta dagoeneko erabiltzen den onkologian, kardiologian eta gaixotasun bakanetan.




## GE Global Innovation Barometer

Egilea: General Electric

GE Global Innovation Barometer Strategy One firma aholkulariak landua da eta berrikuntzako bitartekariak eta elementu atzera-eragileak identifikatzen ditu, aldi berean berrikuntzarekin zerikusia duten aukera eta erronkei buruzko pertzepzioak aztertzen dituelarik. Aurten ia 22 herrialdetako 3.000 exekutibo kontsultatuak izan dira berrikuntza-estrategiei buruz eta erabakiak hartzeari buruz beren konpainietan.

# Innobasqueren balioa ...
# gure bazkideak

2012ko lehen seihilekoan
39 erakunde berri atxiki zaizkigu,
eta ongi etorri esaten diegu

**ADN DESIGN** – Merkatuan eragin eta negozio-aukera handiak diseinatu eta garatzeko produktuak.
adndesign.es

**ALIMEK** – Elikadura-sektorean eta haien laguntzaileetan espezializatutako enpresa aholkularitzan, prestakuntzan, laborategi-analisian, elikadurako I+G+b-an eta diru-laguntzen kudeaketan aritzen dena.
alimek.com

**ARTECHE LANTEGI ELKARTEA** – Sektore elektrikoan 65 urteko esperientzia duen enpresa-taldea.
arteche.com

**AMICYF EUSKADI** – Beroa eta hotzaren instalazioen mantentzaileen elkartea Euskadin.
amicyfeuskadi.net

**AZAFATAS ERCILLA** - Kongresuak, itzulpen- eta interpretazio-zerbitzuak, sustapenak, azafatak, gidak... eta abarretan espezializatutako enpresa.
ercisa.com

**BATUZ AURRERA EGIN** - Enpresa soziala, zerbitzuak eta produktuak ematen dituena garapen sozio-komunitarioko eta garapenaren lankidetzako barrutiko erakundeetan.
www.facebook.com/pages/bae-Batuz-Aurrera-Egin/119940461444007

**BITEZ** – Itzulpen-zerbitzuak hizkuntza guztietan.
bitez.com

**CHEQUE DEJEUNER ESPAÑA** – Otordu-txekeak, haurtzaindegia, liburuak, oparia eta enpresentzako informatikan espezializatutako enpresa.
cheque-dejeuner.es

**CONSORCIO DE AGUAS BILBAO - BIZKAIA** - Bilboko arlo metropolitarreko udalerrien ura hornitze- eta saneatze-zerbitzuak.
consorciodeaguas.com

**DATA BASES STORAGE (GRUPO OMEGA-PERIPHERALS)** - Informazioaren segurtasuna. Informazioa eta zerbitzariak babesteko konponbideen merkaturatzea, ezarpena eta mantentzea.
omega-peripherals.com

**ELECTRONICA ARTECHE POWER QUALITY** - Arteche Taldeko enpresa tentsio ertainean ekipoan eta konponbideak eskaintzen dituena; bai eta konpentsazio erreaktiboa eta harmonika-iragazpena tentsio baxu, ertain eta altuko sistema elektrikoetarako.
arteche.com

**ELECTRONICA ARTECHE SMART GRID** - Arteche Taldeko enpresa babesean, kontrolean eta neurketan potentzia-sistemen automatizaziorako ekipo eta konponbideetan espezializatua.
arteche.com

**ERAIKUNE** - Euskadiko Eraikuntzako Kluster Elkartea, sektorearen lehiakortasuna hobetzera bideratua.
eraikune.com

**FLORIDITA BILBAO** - Kalitateko zerbitzu gastronomikoak haien era guztietan.
grupoiruña.net

**ETORBIZI - FUNDACIÓN VASCA PARA LA INNOVACIÓN SANITARIA** - Zahartzetik, gaixotasun kronikoetatik, ahalmen urritasunetik edo mendekotasunetik eratorritako egoeren prebentzioa eta arretaren ikerkuntza, garapena eta izaera sozio-sanitarioaren berrikuntzako ekimenen bulkada.
etorbizi.net

**GASTRONOMIA Y REGALOS** - Opari gastronomikoetan espezialistak duela 25 urtetik hona.
gastronomiayregalos.com

**GIROA** - Ekipo termikoen eta energia-efizientziako zerbitzuen instalazioa eta mantentzea tokiko, ospitaletako eta enpresetako entitateentzat.
giroa.es

**EUSKO JAURLARITZA - ENPLEGUA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA** - Departamento del Gobierno Vasco
gizartelan.ejgv.euskadi.net

**HBIO RETO XXI** - Uren tratamendu-sektoreko enpresa HBIO birsorgailuak diseinatu, instalatu eta mantentzen aritzen dena.
hbio.es

**IKERGUNE** – Zientzia sozial eta humanitateetako barrutian ikerkuntza, garapen eta berrikuntzako jarduerak burutzen aritzen den elkartea.

**INSTITUTO DE GOBERNANZA DEMOCRÁTICA-GOBERNANTZA DEMOKRATIKOAREN INSTITUTUA** – Ezagutzaren gogoeta, ikerkuntza eta hedapenerako zentroa, zeinen helburua gure garaiko pentsamendu politikoa berritzea baita.
globernance.org

**INSTITUTO VASCO DE LOGÍSTICA Y MOVILIDAD - SOSTENIBLE LOGÍSTICA ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIKO EUSKAL INSTITUTUA** - Irabazi-asmorik gabeko logistika eta hari atxikiriko alderdi orokor eta espezifikoak ikertzen aritzen den elkartea.
ivlogistica.com

**KUTXABANK** - Hiru Euskal Kutxak- BBK, Kutxa eta Vital bat-egitetik sortzen den Bankua.
kutxabank.es

**LIKUID NANOTEK** - Uraren Mundua, ingurumena eta industria-inguruneetarako produktuen garapena eta filtrazio-konponbideak.
likuidnanotek.com

**LIMIA&MARTÍN** – Ingurumen gaietako aholkularitza eta kontsultoretza.
limia-martin.com

**MARAMARA - TALDEAREN HIZKUNTZA ZERBITZUAK -** Itzulpen zuzenketa eta interpretaziorako hizkuntza-zerbitzuak.
maramara.net

**MCCGRAPHICS** – Komunikazio eraginkorrerako marketing eta ekoizpen grafikoko zerbitzuen eskaintza integrala.
mondragongraphics.com

**MINIROBOTS** – Robot mugikor txikien fabrikazioa eta merkaturatzea irakaskuntzarako, teknologia eta berrikuntzaren ekarpena eginez irakaskuntzari.
minirobots.es

**NOVATTIA GARAPENAK** - Solidoen tratamendu fisikorako teknologia aplikatuaren ikerkuntza eta garapenean aritzen den enpresa.
novattia.com

**ORGAUS SYSTEMS** - Aholkularitza eta kontsultoretza enpresa energia-efizientzia, energia berriztagarrien eta enpresa-kudeaketaren arloetan
orgaus.com

**ORTZADAR** - Programa sozial, kultural, hezkuntzako eta ingurumenekoen kudeaketa.
ortzadar.es

**PROZESUAK ETA BERRIKUNTZA** – Zuzendaritza espezializatuko kontsultoretza zuzentze-antolabide eta estrategian, bai eta gidarientzako prestakuntzan eta coaching-ean ere.
procesoseinnovacion.com

**MUNDUA SALBATU NAHI DUT MARKETING EGINEZ** - Enpresa aitzindaria jasangarritasuna sustatzen garapen ekonomiko, sozial eta ingurumenekoaren eredu bezala bere berrikuntza- eta marketing-ikuspegitik.
quierosalvarelmundohaciendomarketing.com

**REFLECTIA** - Konpainia honek bioteknologian, bioenergian, energia-efizientzian, energia berriztagarrietan eta eko-industrian garatzen du bere jarduera ekonomikoa.
reflectia.es

**SINNPLE CONSULTORES E INNOVACIÓN SOCIAL** - Berrikuntza sozial aplikatuko kontsultoretza, maila akademikoan edo esperimentalean garatutako tresnak enpresen, enpresa sozialen eta Hirugarren Sektoreko entitateen errealitatera egokitzen dituena.
sinnple.es

**UGT - EUSKADI** – Langileen interesak eta eskubideak oro har integralki defenditzeko sindikatua.
ugteuskadi.org

**VIBO BCD TRAVEL** – Bidai-agentzia.
viboviajes.com

**WIDE MEDIA** - Zerbitzu orokorreko publizitate-agentzia konponbide-sortzaile eta eraginkorrak eskaintzen dituena bere bezeroen merkatuan kokagunea hobetzeko.
wmzgroup.net

**WORKÖHOLICS** – Komunikazio-agentzia
workoholics.es

Global innovation day

# Ikasten dutenengandik ikasteko

## 20 / 9 / 2012

**EUSKALDUNA JAUREGIA BILBAO**

Lantegiak, hitzaldi inspiratzaileak eta esperientziak

**IZENA EMATEA:**
global@innobasque.com / www.innobasque.com

**Santiago Niño Becerra**
GoteoEuskadi
**SPOTBROS**
DIARIO TOMORROW - UNIVERSIDAD DEUSTO
**Belén Hermosa, Idom**
Pedro Arboleda, Monitor
**T-FESTA**
Mikel Lejarza, ANTENA 3 FILMS
MARISA TORO, Google
**VIDA SANA**
*Asociación de Esclerosis Múltiple de Bizkaia*
**EROSKI**
**HIRIKO**
Virtualware
**FAGOR**
**THE COMPETITIVE INSTITUTE**
Mikel Iturriaga, El Comidista
**GLOBAL FUTURIZER**
EDUARDO ALKORTA, CAFÉ FORTALEZA
*Martín Lejarraga, low cost HQ architecture*
**LANA – NUEVOS DISEÑADORES**
**Rodolfo Carpintier, XXI mendeko enpresak**
CIB – Ayuntamiento de Bilbao
FLL Euskadi
**Consorcio de Inteligencia Emocional**

berrikuntza innovación

innobasque
berrikuntzaren euskal agentzia
agencia vasca de la innovación

CONECTAMOS HACEMOS INNOVAMOS

KONEKTATZEN EGITEN BERRITZEN